

## Andramari jaiak Leintz Gatzagan

Ekitaldi asko egongo da domekara arte | 27



Luntxa atzo santutegi aurrean. | M.A.

Marixol Iparragirre Eskoriatzako presoa epaituko dute hilaren 13an | 5



Espainiako Itzulia bihar izango da gurean; baita protestak ere | 4 eta 29



San Martin feria egingo dute bihar, zapatua, Bergaran | 16



## DENBORAREN KAPSULA

Ulma Taldeak etorkizuneko bazkideendako desio, mezu eta objektuak batu ditu denboraren kapsula baten, eta, atzo ezker, 2061eko bazkideek zabaltzeko zain dago. Ekitaldi sinboliko hori 50. urtemugako ospakizunen barruan egin dute. Gaur, beste ekitaldi bat dago: Donostiako Orfeoia eta Bilboko Bandaren kontzertua. | 32

Ulmako zortzi negozioetako ordezkariak Irene Alberdi Taldeko lehendakaria erdian dutela, poliedro itxurako kapsula itxi aurretik. | MONIKA BELASTEGI

## Dena prest Bergaran 'Monzon' pastoralerako

Hilaren 17an izango da, Seminarioko jolaslekuan; sarrerak salgai daude Bergara, Oñati eta Arrasaten | 17

## Asteburuan hasiko dute liga bailaran



Bergarak bakarrik jokatuko du etxean | 29

## Artisau azoka egingo dute domekan Arantzazun

Belarra izango da aurtengo azokaren gai nagusia | 31

### SINADURAK

	ANDONI URZELAI   6
	6   INAZIO ARREGI
	ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL   13
	24   TXOMIN AZPITARTE
	IDOIA ETXEBERRIA   40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

## "Kontua da Arantzazuk bere esangura salbatzea; ez fraideok salbatzea"

Iñaki Beristain | Frantziskotarra | 8



## Matz-Erreka kooperatibaren 50 urteak liburuan batu dituzte

Enpresaren lau negozio-ildoan historia batu dute | 25

goienakluba<sup>®</sup>  
Abantailaz betetako kluba!

ORAINDIK ... **EZ DUZULA?**

goienakluba<sup>®</sup> 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.



# Askotariko iritziak piztu ditu kutxen bankarizazioak

Arrasateko Ekai Center ikertegian, Garaian, dabilta horietako asko plazaratzen

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

**K**utxako Aparteko Batzar Nagusiak BBK eta Vitalekiko batzartean gainean erabakiko du irailaren 23an. Aztarna guztien arabera, alde bota nagusituko da, eta hiru kutxek banku bat, Kutxa Bank, sortuko dute.

Zeresan handia piztu du batzarteko prozesuak eta, batez ere, aukeratu den formulak: bankua,

aurrezki kutxa bateratuaren ordez, Espainiako Bankuak ere horretara bultzatuta. Entitateetako eta erakunde politikoetako arduradunek, ekonomialariek, sindikatu etako ordezkariak... horiek eta gehiagok askotariko iritziak plazaratu dituzte. Goienak zuzenean zein beste komunikabideetan jasotako iritzi batzuk daude honako erreportaje

XABIER ITURBE

KUTXAKO PRESIDENTEA

## "Gizarte Ekintzari eusteko bidea da"

"Ezin da hazi, ez eta epe luzera bizi iraun ere, banku-fitxaren bidez ez bada. Bankarizazioa ez da eztabaida; erabakia da (...). Kutxa erregulazio eta finantza-ingurune berrira egokitu behar da lehiakor eta eragingarri izaten jarraitzeko. Eta bere Gizarte Ekintzari eusteko eta hura handitzeko aukera bakarra dauka: Kutxa Bank izatea (...). Euskal Kutxen Bankua izango da, eta Kutxak ez badu parte hartzen, BBK-k eta Vitalek euren kabuz sortzea erabaki dute (...). Finantza-ekintzari kutxa barruan eustea da Kutxa betirako ezkongabetasunera eta etorkizun bako bide batera kondenatzea".

RAFA LARREINA

ALKARTASUNA FUNDAZIOKOA

## "Helburu sozialak betiko izan behar du"

"Zergatik aldatu behar da eredu? Diote Espainiako Bankuak hala agintzen duelako. Baina oso gaizki kudeatutako bankuen adibideak daude. Bestalde, eredu horrek ez du ziurtatzen kontrol publikoa, ez eta funtzio soziala. Hori ziurtatzeko, batetik, kanpoko kapitala mugatu egin behar da; eta, bestetik, funtzio soziala behin betiko izatea bermatu behar da. Bankuaren helburua etekinak dira; horretarako sortu da. Baina kutxa batek, etekinak izateaz gain, bere buruari galdetu behar dio ze etekin mota nahi duen; akaso arriskatu egin behar du eta diru-irabazi txikiagoekin konformatu, funtzio soziala delako bere helburu nagusia".

Caja Vital Vital Kutxa



Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru kutxen logotipoak. | GOIENA



JOXEAN URKIOLA

LAB-FINANTZETAKO ARDUR.

## "Euskal Herrirako kutxa da alternatiba"

"Alternatiba erraza da: Euskal Herriarendako kutxa bat egin dezagun, honakoak bermatuko dituen: pribatizaziorik ez, Gizarte Ekintza, eta kutxek Estatutuen bidez izan duten eta daukaten rola eta eredu, herri hau eta herritarrek defenditzeko, batez ere krisi egoera hauetan. Ez dezagun ahaztu krisiak (...) zerikusia duela gure Kutxak euren gure nahi dituzten banku eta bankari horiekin (...). Bestalde, Bankuarekin desagerrarazi nahi dute Kutxen parte-hartze eredu (...). Eredu hori hobetu daiteke, baina inola ere ez beste interes batzuen zerbitzura dagoen Administrazio Kontseilu batekin ordezkatu".

PELLO GONZALEZ

HAMAIBATEKO KIDEA

## "Hiru kutxek indarrak batzea ona da"

Gonzalezek Kutxako ordezkarietako esan zenez, bankarizazioa "porrota" da eta "gipuzkoar gehienek fusio bero baten alde borondatea zapuzten du". H1-ek "finantza erakunde publiko eta erantzukizun soziala duena, gizartearen alde dagoena defenditzen du". Hala ere, euren iritziz, "hiru euskal kutxek indarrak batzea ona da, erakunde bakar indartsuagoa sortzen baita". Ondo ikusten dute batzarteko, hiru baldintza hauek betez gero: "erakunde berriak aurrezki kutxen balore sozialei eustea", "lurraldean artean desoreka fiskalik ez sortzea" eta "lurralde bakoitzari dagokion arabarako ordezkari izatea kutxa bakoitzak".

ALBERTO ALBERDI

KAZETARIA

## "Presazkoa da indarrak batzea"

"Ekonomia sozialaren herrian, frogatuta dago nortasunari eusteko eta, era berean, nazioarteko merkatuetan lehiatzeko gai garelako, eta etxean ekonomia sozialerako formulak eta kanpoan formula pribatuak bateratzen uzten du gaurko legediak (...). Dударik gabe, presazkoa da zerbait egitea, indarrak batzea eta lehenbailehen ailegatzea 75.000 milioi aktibo izatera, estatuko merkaturaren jarduteko behar den gutxienezkoa. Herriak bere iritzia eman ahalko balu, ekonomia sozialaren eredu defendituko lukeela (...) baina fusio hotza egin behar bada, egin dadila iraganeko paralisian gelditu gabe". (Iturria: *Deia*).

ANDER ARRATIBEL

IRITZI-EMAILEA

## "BBK-k aginduta, Burtsara irtengo da"

"Bankarizazio hau pentsatu eta ondo aztertu gabeko proposamena izan da (...). Kutxako lehenakariak, eta Araba eta Gipuzkoako agintari politikoek, dirudienek, Kutxen jabetza mantendu nahi dute, Burtsara joan gabe. Baina agintea, argi eta garbi, BBKren eskuetan egongo denez, susmatzen dut segituan sartuko dela Burtsara (...). Ez dugu ez giza oinarriarik eta ez kapital oinarriarik horrelako erakunde baten jabetza epe ertainera Burtsan mantentzeko (...). Epe ertain edo luzera, nahitaezko kontua da kapitala gero eta gehiago diluitzea bere inbertsoreen artean". (Iturria: *Zuzeu*).

JOSE A. DEL MORAL

ARTIKULUGILEA

## "Konprometitu egin behar da enpresekin"

"Gaur egun, aurrezki kutxen negozioak ez du alderik banku pribatuarekin. Bere egunean, kutxek bazituzten abantailak, hala nola komisiorik ez egotea. Hori aspaldi joan zen (...). Ni sinistuta nago finantzazioa lortzeko zailtasunak izango litzuzkeen sektoreak babestuko dituzten erakundeak egongo direla; batez ere, enpresa txiki eta ertainak. Baina hori bankarizazioarekin bateratu daiteke. Argi eta garbi entzun nahi nuke, zurikeriak alde batera, datorren euskal bankuak enpresa ertain eta txikiak finantzatzeko konpromiso garbi bat hartuko duela (...). (Iturria: *Gananzia.com*).



## GIZARTE-LAGUNTZAN PRESTAKUNTZA

### UDAZKENEKO IKASTAROAK



**Menpekotasuna duten adinekoen zaintzak eragiten duen estresari aurre egin eta ulertu**

Iraupena: 15 ordu.

Matrikula epea: urriaren 1etik 28ra arte.

**Osasun mentalaren psikologia**

Iraupena: 20 ordu.

Matrikula epea: irailaren 1etik 30era arte.

**Sindrome gerontologiko nagusien aurreko jokaerazko jarraibideak**

Iraupena: 18 ordu.

Matrikula epea: urriaren 1etik azaroaren 4ra arte.

Informazioa eta Matrikula

UNED-Bergara • San Martin Agirre plaza 4 • 20570 Bergara

Tel.: 943 76 90 33 • [csoriano@bergara.uned.es](mailto:csoriano@bergara.uned.es)

[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara) ("gure ikastaroak" atala)



Ekai Centerreko kafe-tertulia Rafa Larreinarekin, kutxen bankarizazio prozesuaz. | LEIRE KORTABARRIA

**SIXTO JIMENEZ**  
EKONOMIALARIA

## "Itsas handi politikoa baretu egin behar da"

"Presaka ibiltzeak kezkatu egiten nau, beldur naiz bategitearen kostuak eta kalteak gutxietsi egingo ez ote diren, eta uste dut tamaina handiaren eta txikiaren abantailak aprobetxatu daitezkeela, lekuan lekuko erakundeen independentziari eutsiz eta kostu-sinergiak edo handiago izateko beharra ikusten diren gaitan elkarlana eginez.

Sustrai sozialdun euskal finantza sistemak bere inguruan dagoen itsas handi politikoa baretu dadin behar du, eta lantalde on bat sor dadin, lan egitea utz zatazaion eta aukeratutako misioa eta emaitza sozial eta ekonomikoak errespetatuz.

**JOSEBA BARANDIARAN**  
EKONOMIALARIA

## "Administrazioetatik bidera daiteke dirua"

"Bankuaren bazkide izateko nazioarteko inbertsoreengana jotzen bada, normala denez, eurek euren interesak defendatuko dituzte. Etxeko proiektu estrategikoetan parte hartuko dute baldin eta errentagarritasun potentziala ikusten badiote. Hori bai, politizazioaren arriskuak dira, berbarako, Gaztela Mantxan hango kutxak finantzatutako aireportua egitea. Bestelako jardueretan dirua jartzeko, kutxez gain, administrazio publikoak ere badi-tu bere baliabideak, aurrekontuak medio. Eta aurrekontu horietatik ere bidera daiteke dirua kutxen/bankuen kapital gisa erabiltzeko". (Iturria: Zuzeu).

**OSKAR MATUTE**  
ALTERNATIBAKO BOZERAM.

## "EAE osorako aurrezki kutxa bat nahi dugu"

"Bankarizazio prozesua da Italian 90eko hamarkadan izan zena: gizarte ekintza bere jardueratik banantzen eta hura fundazio bihurtzen duen banku bat; hasieran bakarrik, bankuak kontrolatzen du hura. Gero, kapital pribatua sartzen da eta, pixkana-pixkana, fundazioak erabakietan duen pisua txikitzen du. Azkenik, bankua eta fundazioa guztiz banantzen dira, fundazioa erabaki-organutik ateraz eta gizarte ekintza desagerraraziz (...). Alternatibak finantza-sistema publiko, garden eta demokratikoa defendatzen du. EAEko hiru lurraldeetarako aurrezki kutxa bakarren alde gaude".

**CARLOS RUIZ** | KUTXAKO GIZARTE ALOR ZUZENDARIA

## "Produktu eta zerbitzu katalogo aberatsagoa izango du gure bezeroak"

Kutxako Gizarte Alorreko eta Komunikazio zuzendariaren esanetan, Kutxako bezeroek gestore eta bulego berbera izango dute eta, epe ertainean, aukera gehiago.

**Kutxaren bezeroak aldaketarik igarriko du Kutxa Bankekin?**

Kutxak bere markarekin, nortasunarekin eta konpromisoarekin jarraituko du; bulego berberekin, langile berberekin eta txartel iragarle berberekin. Proiektu honek neutraltasun-printzipioari eusten dio bezeroari dagokionez, baina abantaila nagusi bat ere badu: sarea hazi egingo da, eta handitu egingo da gainera zerbitzu-guneen kopurua. Ez da ezertan ere aldatuko bere gestorearekin eta bulegoarekin duen harremana. Eta epe ertainean, beste bi Kutxek egingo dako ekarpenarekin aberastutako produktu- eta zerbitzu-katalogoa izango du eskura.

**Aurrezki kutxa izatetik banku izatera pasako da Kutxa?**

Kutxa ez da banku bat izango; banku bat erabiliko du finantza-negozioa garatzeko tresna gisa,



Carlos Ruiz. | KUTXA

eta Kutxa bera existituko da aurrerantzean ere bankuaren jabe gisa. Jadanik ez dago negozioaren kudeatzaile zuzena den aurrezki kutxarik ia, eta araudi-ingurumari berriak urrats hau eman dezagun eskatzen digu, lehiakorrek eta eraginkor-

rrak izaten jarraitu nahi badugu. **Zer gertatuko da Gizarte Ekintzarekin?**

Kutxaren Gizarte Ekintza Kutxak kudeatuko du soilik. Hori bai, baliabide gehiago izango ditugulakoan gaude -Kutxa Bankek lortuko dituen mozkinen hazkunde esponentzial bat espero dugu-, haie-tatik elikatuko baita Kutxaren Gizarte Ekintza.

**Zer esaten diezu datorrenaren beldur direnei?**

Beldurrik balego, desagerrarazi nahi dugu gizarteratze-prozesuarekin. Kaudimenak, berez, ez du etorkizuna bermatzen, baina segurtatu egiten du elkarketa, eta horretatik, herrialde-proiektu bati ekin ahal izango diogu. Eta formula hau da gipuzkoarrei balioa eta aberastasuna ematen diena.



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

**BERMEA 2 URTE**

1000 b/min  
6 Kg

A<sup>+</sup> Saillkapen energetikoa

**GARBIGAILUA ALF 1106**

260 € **aspes**

**BERMEA 2 URTE**

1200 b/min  
6 Kg

A<sup>+</sup> Saillkapen energetikoa

**GARBIGAILUA WM12E222**

375 € **SIEMENS**

**BERMEA 2 URTE**

1000 b/min  
7 Kg

A<sup>+</sup> Saillkapen energetikoa

**GARBIGAILUA ZEN-L1017**

315 € **edesa**

**BERMEA 2 URTE**

1400 b/min  
7 Kg

A<sup>+</sup> Saillkapen energetikoa

**GARBIGAILUA WM14E465EP**

410 € **SIEMENS**

**BERMEA 2 URTE**

1200 b/min  
8 Kg

A<sup>++</sup> Saillkapen energetikoa

**GARBIGAILUA F-2812**

430 € **FAGOR**

**BERMEA 2 URTE**

A Saillkapen energetikoa

**ONTZI-GARBITZAILEA 2LF013S**

360 € **FAGOR**

**BERMEA 2 URTE**

A Saillkapen energetikoa

**AI-1300 INDUKZIOA**

335 € **aspes**

**BERMEA 2 URTE**

A Saillkapen energetikoa

**LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X  
INDUKZIO PLAKA HOLLY-I3S**

625 € **edesa**

**BERMEA 2 URTE**

1850  
x 600  
x 600

A<sup>+</sup> Saillkapen energetikoa

**HOZKAILUA KGN-36NVW20**

490 € **SIEMENS**

**BERMEA 2 URTE**

1850  
x 600  
x 600

A<sup>++</sup> Saillkapen energetikoa

**NO FROST  
HOZKAILUA FFJ4871X**

665 € **FAGOR**

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A<sup>+</sup> >>> 70%  
A >>> 45%  
B >>> 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.



# Bildu eta Aralar koalizioan aurkeztuko dira eta EAJ bakarrik

Hiru alderdiak elkarrekin aurkezteko aukerak ikusmin handia piztu du

G.ARANA/M.BIKUÑA | ARRASATE

Aralarrek baiezkua eman dio EAri, Alternatibari eta ezker abertzaleari. Hala, koalizioan aurkeztuko da azaroaren 20ko Espainiako Kongresuko hauteskundeetara. Aralar koalizioaren proposamenari baiezkua eman zioten 140 kidek (%61,4) eta ezezkoa 80k. Zazpi abstentitu egin ziren eta batek boto zuria eman zuen. Berrehundik gora batzarkide batu ziren batzarrean.

Ezker abertzalearekin, EAren eta Alternatibarekin adostutako akordioari buruz ez zuen ezer aurreratu Patxi Zabaletak, baina testuak ukitzen dituen hainbat gai aipatu zituen: "Nafarroari eta Nafarroaren gaitasun politikoei buruz; bakegintzari eta normalizazioari buruz; eta ingurumenarekin lotutako politikari eta ezkerreko politikari buruz".

## EAJk ez du onartu

Bestalde, EAJk ezezkoa eman dio Bilduk egindako proposamenari, "lehentasuna bake eszenatoki bat finkatzea" dela argudiatuta. Euzkadi Buru Batzarreko presidentea Iñigo Urkulluk hauxe esan zuen: "EAJk bide eta proiektu propioak ditu. Indarrak batuta etorkizuna irabazteko eta hobe egiteko lanean jarraituko dugu jeltzaleok".



REBEKA UBERA  
ARALAR

"Hartutako erabakia koherentea da, ditugun printzipioen ondorio"

"Aralarren lana izan da beti ezkerreko alderdien eta abertzaleen arteko akordioa lortzea. Gure apustua da etorkizuneko ezker zibil eta zabal indartsua sortzea, herriak dituen beharrei erantzuteko."

Aralarren zuzendaritzaren proposamenari baiezkua eman zion gehiengoak. Urrats taktikoa da. Hauteskundeetara joateko besterik ez, baina koherentea, ditugun printzipioen ondorio.

Koalizioa normalizazioan eta bake bidean urratsak emateko erabaki garrantzitsua da. Euskal Herriaren ahots ezkeriarra eta aurrerakoia entzutea oso garrantzitsua dela uste dugu, eta horren alde egin beharko dugu lan Madrilen ordezkari izan lortzen badugu".



PELLO URIZAR  
BILDU

"Madrilen gure eskubideak exijitzeko gauza izan behar dugu"

"Azaroaren 20ko hauteskunde ondoan Espainiako Kongresuan aldaketak egon daitezkeela ikusita, ikusten genuen beharrezkoa zela Madrilen egotea. PPK eta PSOEek ez dituzte gure eskubideak errespetatzen. Euskal Herriari eragiten dioten erabakiak hartzen dituzte han. Horregatik herri bezala aurkezteko beharra ikusi genuen. Zerrenda bateratu bat egitea pentsatu genuen."

Hori horrela, EAJren ezezkoa desengainu handia izan da guretzat. Gure ustez jeltzaleak ez dira bustitzera ausartzen. Proposamenen bat egin diegun bakoitzeko, behin eta berriz erantzun bera eman digute: etxeko lan asko egiteko daudela, eta ez daudela prest koalizioan aurkezteko".



AINZANE OIARBIDE  
EAJ

"Lehentasuna bake eszenatoki bat finkatzea da orain"

"EAK, Alternatibak eta ezker abertzaleak egindako proposamenaren berri prentsaren bidez jaso genuen. Hori horrela, benetako eskaintza ez dela izan uste dugu."

Euskaldunok elkartzeko desio handia dugula uste dugu. Abertzale guztiok elkar lan egiteko, baina oraindik pausu asko eman behar ditugu. Horregatik eman diogu ezezko borobila koalizioari."

Bakegintzaren esparruan lan handia egiteko daukagu. Lehentasuna bake eszenatoki bat finkatzea da. Herritarrak ezin dira engainatu proposamen faltsuekin. Guk urte asmo daramagu Madrilen Euskal Herriaren alde lan egiten, Euskal Herriarendako konpetentziak ekartzen".

## Euskal Herriko historialarien II. biltzarra hilaren 16tik 18ra

Nabarraldeak antolatuta, 'Euskal lurraldeak eta nafar Estatu' izango da biltzarraren gai nagusia

M.B. | OÑATI

Nabarraldeak antolatuta, hilaren 16an, 17an eta 18an egingo dute Oñatiko Euskal Herriko historialarien II. biltzarra. *Euskal lurraldeak eta nafar Estatu* izango da biltzarraren gai nagusia. Irakasle, historialari eta aditu talde bikaina bilduko da. Euren helburua da euskal lurraldeen eta nafar estatuaren harreman historikoa aztertzea, lurralde horietako batzuek Albako dukearen inbasioan eta geroko gertaeretan jokatuak papera barne.

Hilaren 16an 16:30ean egingo dute irekiera ekitaldia UNEDeko irakasle Victor Herreroekin. Ondoren, maila handiko historialariek parte hartuko dute; besteak beste, Mikel Sorraurenek, Floren Aozek eta Patxi Abasolok.

## Biltzarra baino asko gehiago

Eztabaida akademikoaz gain, biltzarraren antolatzaileek publikoari zabalduko jardueraz besteak beste egitaraua antolatuta dute: "Gure iraganeko atal hau biztanleriaren artean zabaltzeko eta ezagutarazteko asmoz".

Hala, unibertsitateko esparrutik kanpo hainbat ekitaldi prestatu dituzte; besteak beste, Aitzorrotzeko Erdi Aroko gaztelura irteera, Joseba Tapiaren kontzertua (hilaren 17an, Oñatiko gaztelekuan, 20:00etan) eta afari tematikoa Oñatiko Makalena elkartearekin, hilaren 14an. Azken horretan parte hartu gura dutenek 688 62 66 86 telefonora dei dezakete edo mezua idatzi [maozaraza@planalfa.es](mailto:maozaraza@planalfa.es). Afarian egongo da Nabarraldeko zuzendari Angel Rekalde.



## Pintaketa erraldoia Oñatiko plazan

Ezusteko ederra izan zuten eguazten goizean oñatiarrek: *Fan hemendik* leloa eta ikurra margotuta topatu zituzten Herriko Plazan, udaletxe aurrean. Pintura zuria eta horia erabili zuten. Pintaketa kentzeko disolbatzailea erabili zuten udal brigadako langileek. Oñatiz gain Debagoieneko beste hainbat herritan ere egin dituzte pintaketak azken egunetan.

## Munillak zuzenduko du meza nagusia Arantzazun

M.B. | OÑATI

Arantzazuko Amaren eguna da gaur. Erromes askok egingo dute basilikarako bidea oinez, eta 12:00etako meza nagusian parte hartuko dute. Jose Ignacio Munilla goitzainak zuzenduko du elizkizun nagusia. Mezan ez dira egongo Oñatiko alkatea eta Bilduko zinegotziak. Jaurlaritzako eta Aldundiko ordezkariak harrera egingo diete, baina korporazio moduan ez dute elizkizunean parte hartuko. Dena den, 10:00etan bisita egingo dute Gandiaga Topagunera eta Parketxera.

Bestalde, Aldundiko bozeramale Larriz Ugartek adepazpenak egingo ditu.

## Elkarretaratzea

Mezaren aurretik, 11:30ean, elkarretaratzea egingo dute euskal preso eskubideak aldarrikatzeko: euskal preso eskubideen eta larri gaixo daudenak eta zigorra bete dutenak etxera ekartzearen alde egingo dute, eta banaketa krudelarekin bukatzea eskatuko dute.

## Autobus gehiago

Oñati-Arantzazu-Oñati bidea egiten duen autobusak zabaldu egingo du zerbitzua gaur. Ordu tarte batzuetan -10:00etatik 14:30era Oñatitik eta 10:00etatik 14:00etara Arantzazutik- autobusa ordu laurdenean behin irtengo da.

## Hainbat elkarretaratze Espainiako Vueltaren inposaketaren kontra

Hainbat elkarretaratze egingo dituzte bihar Bergaran eta Arrasaten Espainiako Vueltaren "inposaketaren kontra". Bergaran Burdiñaten eta Gorlan egingo dituzte, eta Arrasaten Arbolapetan (14:45) eta Kanpazarren (15:00).

Bestalde, dei egiten diete bergararrei ikurrinak balkoira ateratzeko. Salgai egongo dira gaur Irala kalean.

## Turismo arloko formazio ikastaroak abendura arte

Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak antolatuta, turismo arloko profesionalendako formazio ikastaroak egingo dituzte. *Anfitriones* egitarauaren barruan zortzi ikastaro emanango dituzte. Informazio gehiago, Mankomunitateko turismo sailera deituta (943 79 64 63) edo [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbidera mezua bidalita.



# Marixol Iparragirre presoa epaituko dute martitzenean

Eskoriatzarraren kontrako lau euroagindu aztertuko dituzte, Bordelen

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Marixol Iparragirre eskoriatzarra martitzenean epaituko dute, Bordelen, haren kontra aurkeztu dituzten lau euroaginduren harira. Bada, elkartasuna helarazteko eta euroaginduak salatzekeo, egun horretan Bordelera joateko dei egin dute Debagoienetik. Horretarako hitzordu bi jarri dituzte: Eskoriatzan, autobus geltokian, 06:00etan; eta Arrasaten, Arbolapetan, 06:15ean.

Haren lagun Joseba Garitonaindiak azaldu du epaiketa hori oinarrituta dagoela epaile batek euskal herritar bati "Guardia Zibilarren torturapean" hartutako adierazpenetan. Epaketan, horren harira Iparragirreren kontra jarritako euroaginduak aztertuko dituzte. Garitonaindiak azaldu du gose greban joango dela epaiketara.

Denera, Espainiako Auzitegi Nazionalak eskoriatzarraren kontra aurkeztutako 14 estradizio eta euroagindu onartu dituzte Frantziako epaileek. Onartutako lau euroagindurengatik espainiaratzea eskatu du Andres Merelles epaileak, eta horietan izan dira, hain justu, martitzenean aztertuko dituztenak.

**Bizi baldintzak, okerrera**


Horrekin batera, Garitonaindiak salatu du Lyon-Corbas espetxean bizi dituzten baldintzak "asko okertu" direla; Iparragirrerekin

batera beste bost euskal preso daude han. Azaldu du han preso dagoen bikote baten bisitatik datorrela okertze hori: "Bisita hartan kontaktu fisikorik ezin zutela izan esan zieten. Besarkada eman zioten elkarri, eta preso guztien bisitak eten dituzte".

Horrekin batera, espetxeko zuzendaritzarekin adostutako hainbat akordio bertan behar utzi dituztela salatu du: telefono deiak murriztu egin dizkiete eta familiak miatu egiten dituzte.

**Txandakako gose greban**

Euroaginduak eta espetxean bizi dituzten baldintzak direla eta, astelehenean gose greba hasteko asmoa du preso eskoriatzarrak, beste bi euskal presorekin batera. Horren harira, Garitonaindiak jakinarazi du, hasiera baten, astebeteko iraupena duen txandakako gose greba egitea erabaki dutela; bada, helburuak lortu ezean, gose greba mugagabea egitea ez dutela baztertzen gaineratu du.



Joseba Garitonaindiak eta Iker San Pedro, Iparragirreren alde ari dira lanean. | M.B.

## Irteerak egingo dituzte Arantzazun eta Elgetan etzi

Pin-Pil mendira igoko dira Arantzazun eta Intxortako ibilbide tematikoa izango da Elgetan

M.B. | OÑATI

Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatutako mendi irteerek aurrera dihardute. Etzi, domeka, santutegitik Pin-Pileko gailurrerainoko ibilaldia egingo dute. Ohikoa den moduan, santutegiko hotelean egin dute hitzordua, 09:00etarako, eta handik Urbiaraino igoko dira. Jarraian, Elorrolako muinoan, Zabalaitz eta Gorostiaran mendian ezkerreko bidea utzi eta bidezidor txikia jarraituz, Perusaroi izeneko saroirantz abiatuko dira mendizaleak; ibilbideak Pin-Pilera joko du orduan, eta, han indarrak berri ostean, Olazara lehenengo eta Urbiara jaitsiko dira gero, eta ibilaldia Arantzazun amaitu.

Txangoak bost ordu iraungo du, eta, denera, 560 metroko desnibela dauka. 12 kilometroko

luzera du, eta zailtasun ertaina duen irteera moduan dago sailkatuta. Betiko moduan, nahi duten guztiak daude gonbidatuta irteera horretan parte hartzera.

**Bost kilometroko ibilbidea**

Bestalde, egun berean Intxortako ibilbide tematikoa egiteko aukera egongo da Elgetan. Intxortako magalean izandako frontearen berri ematen duen hiru orduko irteera Espaloian hasiko da, 10:00etan. Inpretazio-gunea bisitatu ostean, bost kilometroko ibilaldia egingo dute bisitariek.

Parte hartzeko aurrez eman behar da izena, 943 71 89 11 telefono zenbakian edo [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbide elektronikoa. Prezioari dagokionez, helbidea bost euro da eta 16 urtetik beherakoena, bi euro.

## Irakasle eta gurasoendako saioak egingo ditu Baketik-ek

M.B. | OÑATI

Baketik-eko gurasoen eta irakasleen eskolak bigarren denboraldiari ekingo dio hilaren 17an, Arantzazuko Gandiaga topagunean. Denera, lau saio gertatu dituzte urriaren 8ra bitartean; 09:30etik 13:30era izango dira horiek. Ikastaroan izena eman edo argibide gehiago nahi dutenek 943 25 10 05 telefono zenbakira dei dezakete, edo [info@baketik.org](mailto:info@baketik.org) helbidera idatzi.

Iaz urriari jarri zuten martxan eskola hori. Hezkuntza espazioaren inguruan, familien eta hezitzaileen elkargune gisa sortu zen, ardatz baten inguruan: pertsona izaten geure burua eta besteak hezten ikastea, bai etxean nahiz eskolan, eta baita gizartearen ere.



Goñi, martitzenean, Oñatiko Enpresagintzan. | AMAIA TXINTXURRETA

Maite Goñi | Mondragon Unibertsitateko irakaslea

## "Twitter da nire Ikasteko Ingurune Pertsonalaren osagai garrantzitsua"

Irakaskuntzan 2.0 tresnak egoki erabiltzen azaldu du asteon Oñatin egindako jardunaldian

M.B. | OÑATI

Bigarrenez, Mondragon Unibertsitateak antolatuta, *IKTak eta Hezkuntza* izeneko jardunaldia egin zuten martitzenean, Oñatiko Enpresagintzan. Hizlarien artean Maite Goñi irakaslea izan zen; *Gela birtualetik Ikasteko Ingurune Pertsonalizatu*etara izan zen jorratu zuen gaia.

**Ikasteko ingurune pertsonalizatuek egin zenuen berba jardunaldian. Zertan datza hori?**

Esango nuke 2.0 munduaren hurrengo pausoa dela. 2.0 delako hori tresna asko dira, erabilezkoak eta klik batekin eskura ditugunak. Horren atzean dagoen filosofia elkartrukatzeara da. Esaterako, Youtube izan daiteke 2.0 tresna bat; hor dauden produktuak kontsumitzeaz gain, zeuk ere sortu eta elkartrukatzen dituzu. Irakaskuntzan informazioa kudeatzeko baliagarria da hori.

Pauso bat haratago joan nahi izan dut, eta ikasteko ingurune pertsonalizatuaren gaineko hausnarketa egin dezatela lortu nahi izan dut, Interneten dagoen informazioa ezagutuz eta ondo aprobetxatuz; tresna horiek zelan erabili daitezkeen eta irakaslearen garapen pertsonalean lagungarriak izan daitezkeela erakustea nuen helburu.

**Zerekin osatzen ditugu ikasteko ingurune pertsonalizatuak?**

Batetik, kontsumitzen dugun informazioa dakarkiguten tresnaz osatuta daude, hala nola blogak, RSS harpidetzak eta bestelakoak. Baina bestelako tresnak ere badaude, kontsumitzeaz gain, eraldaketak eta ekarpenak egin ahal izateko, edukiak sortzeko... Horretaz gainera, gure sarea ere sartu beharko genuke, guk ere asko ikasten dugulako beste pertsona batzuegandik.

Horrek guztiak garrantzi handia du irakaskuntzan. Ikasteko ingurune pertsonalizatua

ez da tresna bat, ez da plataforma bat, irakasleak bere jarduna fokatzeko modu bat da, jarrera bat. Irakaskuntza akademikoaz gain, ikaste informalekin ere badu zerikusia. Irakasleok gure ingurune pertsonalizatuak osatzen goazen heinean, ikasleak ere euren sarea lotzen joan daitezela eta informazioa modu kritikoan kontsumitzen eta, aldi berean, edukiak sortzen joan daitezela da asmoa.

**Hori, dena dela, oso pertsonalizatua da, bakoitzaren beharrak ezberdinak direlako...**

Hala da, eta horixe da garrantzitsua. Ikasteko Ingurune Pertsonalizatuak izenak dioen moduan, pertsonalak dira; niretako baliagarriak diren tresnak agian ez dira baliagarriak zuretako. Baina nik tresna horiek guztiak ezagutu behar ditut, hortik etekina ateratzeko kome-ni zaidana jakiteko.

**Tresna komunik badago?**

Bai. Adibidez, Twitter izan daiteke, egun, Ikasteko Ingurune Pertsonalizatuko osagai garrantzitsuenetarikoa. Hortik informazio asko jaso daiteke, eta nik badakit nire ingurune pertsonalizatuaren egoteaz gain, ondokoarenean ere egon daitezkeela. Esaterako, nire ingurunea irudikatu beharko banu, Twitter erdian jarriko nuke, niretzat garrantzitsua izan daitekeen informazio ia guztia tresna horren bitartez jasotzen dudalako. Baina, agian, beste batendako Youtube izan daiteke informazio iturri nagusia, edo blogak, ikastaroak, RSS harpidetzak...

**"Tresna guztiak ezagutu behar ditut, etekina ateratzeko"**



## ZABALIK

ANDONI URZELAI  
http://goiena.net/iritzia/



## 'Marca'

Zahartzen ari naiz. Aurtengo udan egin dut deskubrimendu mingarri hori. Normalak diren zantzuek gain-nagikeria mortala, aurpegiko zimurduren bikoizketa, ilearen zuritze etengabea edo ajeen iraupen luzea-, edadean aurrera noala argi eta garbi erakusten duen arrasto beldurgarri batekin egin dut topo abuztuan: egunero-egunero irakurri dut *Marca* egunkaria.

Eta ez pentsa hegoaldeko hondartzetako txiringitoetan eman dudarik uda; keba, herrian bertan izan naiz, betiko lekuan eta betiko tabernetan

Ez hori bakarrik, aizue, normalean irakurtzen ditudan egunkariei muzin egin-aspergarriak suertatzen zitzaizkidan-, eta *Marca*-ren peskizan eman ditut goizak zoroa bezala.

Beraz, Mourinhoren eta Guardiolen arteko tirabiratan aditua nauzue eta Real Madrili dagozkion kontuetan, erabateko jakintsua.

Hori desgrazia gutxi ez eta, gainera, futbola ikusten hasi naiz azkenaldi honetan: Barça-Madril edo Europako kopakoak, ez naiz oraindik Vila-realen eta Malagaren arteko partida bat ikusteko gai. Gustura ikusi ere.

Nork eta nik, duela denbora gutxi arte futbolari gorrotoa zionak eta *Marca* egunkariari, berriz, sekulako amorrua. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada.

*Marca*-ren irakurle sutsua naizenetik gauza pare batez jabetu naiz: bata, zein gogorra izan behar duen Real Madrili edo Bartzelona ez den talderen bateko jarraitzailea izateak, inork ez baitie gainerakoei kasurik egiten. Ez dira existitzen ez telebistako albistegietan, ezta kirol prentsako orrialdeetan; bigarrena: ze gustua ematen duen Messi zelaian ikustek. Inpresioa daukat ez dugula sekula santan beste holako jokalaririk ikusteko aukerarik izango; ez, behintzat, ni bezala edadean hain aurrera goazenok...

## USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | zuzen@goiena.com

## Diru-kontu publikoak

Arrisku primak gora eta gora, badirudi estatuen kaudimeanean herritarrek zuten konfiantza galdu egin dela. Finantzari eta espekulatuzaileek erantzungo didazu. Baina uste al duzu konfiantza izateko arrazoi gehiago dituela langabezian dagoen helduak edota lehenengo lanari heldu ezin dion gazteak? Bateon batek asmatu du: aberatsei zerga berezi bat jarri eta 2.500 milioi jasoko ditugu. Baina hau ez da Gizarte Segurantzako prestazioen %2 baino eta... Bada, azpiegituretan inbertsioak murriztuko ditugu eta horrela diru gehiago izango dugu prestazio sozialetan gastatzeko. A! Baina langabe tasak ere gora egingo du, eta... Ez dakit onik aterako garen zurrumbilo honetatik.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zierza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
**ARRASATE 20500:**  
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutba  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**  
**ARETXABALETA 20550:** Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale.  
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adieraztako initzen erantzukizunik.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Fukushimako langile honek ez du jasoko Principe de Asturias saria

**Pello Zubiria**  
http://argia.com/  
erredakzio-mahaia/

Abuztuaren 16an hil baitzen. *Mainichi* egunkariak argitaratu eta *The Fukushima Project* guneak ingelesez zabaldu duenez, abuztuan TEPCOrentzako azpikontratatu batekin beharrez aritutako 40 urteko langilea hil zen leuzemia akutua jota.

Ez da, zorrotz hartuta, Principe de Asturias saria eman zaien hasierako heroietako bat, martxoaz geroztik Fukushima Daiichiko zentral txirtxilatutik pasa diren beste milaka obreroetako bat baizik.

Baina abuztuan hildako gizon horrek gezurtatzen du egunotan Espainiako agentziek zabaldu dutena, alegia erradioaktibitatearekin borrokan aritu ziren heroi

hietako batzuek arritmiak eta horrelakoak jasan dituztela... ezer gehiago ez.

Abuztuan hildako gizonak ez zuen 7 egun baizik eman Fukushima Daiichin, eta ofizialki ez zuen 5 milisiervert (mSv) baino gehiago nozitu.

Aldiz, Fukushima Project idazten duenak oroitarazi du nola TEPCO konpainiak berak aitortu zuen hain justu abuztuan aurkitu zituztela oso erradiazio maila altuko guneak errektoreen inguruetan, zehazki bentilazioa bermatzen duten tutuetan.

Txoko horietan erradioaktibitateak 10 Siervert (10.000 mSv, segundu gutxitan inguruan egondako edonori ondorengo egunetan heriotza eragiteko modukoa) aurkitu zuten, eta konpainiak berak zabalduetako fotoetan ikus daiteke langile bat erradiazioa neurtzen gune horietako batean, oso gertutik.

Aurretik, udan bertan beste langile bat hil da bihotzeko atakeak jota.

Bi heriotzak ondo dokumentaturik daude, nahiz eta hedabide askok -*Wikipedia* bera barne- bildu ez dituzten.

## Kontrastea

**Anjel Lertxundi Esnal**  
http://berria.info/blogak/lertxundi/


Deigarriak izan ohi dira Home English akademiak estatuko hainbat irratitan ematen dituen iragarki laburrak. [...] Bertan, enpresa bateko lankideek argumentu ezin txundigarriagoa darabilte neska batek ingelesa ikas dezan: laster zuzendari gisa etorriko zaien arduradun berriak -gizonezkoa bera, of course!- ez daki ingelesa baino. Spotean mintzatzen direnak gaztelaniadunak dira, gaztelaniaren lurralderen batean dago enpresa ere, baina lankide guztiek normal-normaltzat daukate kanpotik datorrenak ez hartzea gaztelania ikasteko lana, normal-normaltzat bertakoek egin beharra kanpotik datorrien hartuko ez duen lana. Eta, nola ez?, argumentuaren distirak aise konbentzitzen du neska.

Nik dakidala, inork ez du protestarik egin ingelesaren aurreko bandera-jaiste horren kontra.

Katalanek beren hizkuntza babesteko ahalegina dute nonbait, beren urguiluaren frontoi.



**Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## GUTUNAK

## Eskerrik asko

**Gotzone Balanzategi Gallastegi**  
(Angeles Gallastegiren familiaren izenean)  
Arrasate

Lerro hauek erabili nahi nituzke hil berri den Angeles Gallastegiren familiaren izenean eskerrak emateko Arrasateko Iturbide egoitzako lantalde osoari, bertan pasa dituen urteetan jaso duen zaintza eta maitasunagatik.

Egoera lasaiak eta larriak tokatu zaizkigu pasatzea, baina beti babestuak eta etxe giroan sentitu gara. Mila esker, denagatik.

## Txikizioak

**Inma Beristain**  
(Antzuolako Udalaren izenean)  
Antzuola

Antzuolako Udalak kezka hartzen ditu azken hilabeteotan Olanan etxean izan diren hainbat txikizio. Bertako buzoi eta tinbreak guztiz txikiturik agertu ziren. Badakigu entretenimendu hutsarengatik apurruak izan direla.

Txikiziook bertako langileen jarduna oztopatu eta herriari galera ekonomiko eragin beste ezer ez dute egiten, are gehiago zailduz herriaren egoera ekonomiko.

Honela, ba, txikizio hauek eragin dituztenei, egin dutenaz hausnartu eta beraien ekintzen

ondorioen gaineko ardura hartuz, egindako kalteak konpon ditzaten eskatzen diegu, beraien eta herri guztiaren onerako.

Herri atsegina da gurea eta honelako gertaerek giroa gaiztotu eta kalteak eragin besterik ez dute egiten. Azkenak izan daitezten nahi genuke.

## Arrainek ura ikusten al dute?

**M. Carmen Basterretxea eta Gabriel Valin**  
Usurbil

Duela egun batzuk, Donostiako Aquariumean lagun batzuekin batu, eta gatazka globalaz aritu ginen. Gatazka honen emaitzak, sentsazioak eguneroko bizitzan jende arruntari antsietatea, estutasuna, estresa, ziurtasun falta eta bakardadea sortzen diola adierazi genuen.

Elkarrizketa hartan gure lagunek galdetu ziguten: "Arrainek ura ikusten dute?". Galdera hau errekurtsio metaforiko bezala erabili zuten islatzeko edo erakusteko kaltea gaurko eredu kulturala, soziala eta ekonomiko dela. Eredu honen esanahia ura arraintzat dela baina arrainek ura ez dutela ikusten.

Gatazka globalaren zergatia eta ura ez ikustearren arrazoia eredu kulturean atxikita dagoela.

Ezjakite honen zergatia orain dela mende batzuk kokatzen da. Eredu kultural zapaltzailea inposatu ziguten, eredu hau eredu patriarkala zen eta da. Horren oinarria propietate pribatua da.

Sistema produktibo hau gaur egun kapitalismo aurrerakoa deritzona da. Beraz, sistema aurrerakoa talde txiki baten eskuetan dagoena dugu eta populazioa sistema honen zerbitzari bihurtzen du.

Sistema honen baloreak lehiaketa, dominazioa, norgehiagoka eta indibidualismoa dira. Kapitalismo aurrerakoi honen oinarriko baloreak, aipatutakoak, beharrezkoak dira kapitalismo aurrerakoa mantentzeko. Beraz, egoera honen esanahia eguneroko bizitzan antsietatea, urduritasuna, estresa, agresibitatea, bortxakeria, bakardadea eta barruko nahigabea dira.

Eredu patriarkala duela mende gutxi inposatu ziguten. Euskal Herriko eredu, eredu patriarkalaren aurretik, eredu matrilineala zen; Europako lehen kulturetan sortu zen, eta gure arbasoek komunitatearen eta herriaren bizitza ziurtatzeko eraiki zuten.

Lehen euskaldunek, ama lurrari behaketa egin ondoren, eredu matrilineala sortu zuten. Hasierako behaketa hartatik baloreak eskuratu zituzten eta balore hauekin bizitza soziala, pertsonala eta sistema

produktibo propioa osatu zuten.

Euskal gizonentzat balore hauek eskuzabala izatea da, ama lurrak janaria eskaintzen duen bezala. Ama lurrak lanaren bidez zaintzen gaituen bezala; babestea berak babesten gaituen bezala. Bai ugalketarako eta baita komunitatea defendatzeko indartsu izateko ere.

Euskaldunek behaketaren bidez jaso zuten euskal emakumearen jarrerak eta ama lurraren ezaugarriak antzekoak zirela. Eskuzabala, ama umeen eta familiaren zaintzaile, elikatzen eta babesten dituen, kulturaren ahozko transmisorea, etab. Ezaugarri honengatik, emakumea euskaldunentzat ama lurra bezala jakintsua dela barneratu zuten.

Eredu matrilinealean gizona eta emakumea orekan daude, elkarlanean arazoak gainditzen.

Aquariumeko arrainek aldaketaren beharra ikusiko balute, agian, aldaketa egitea ezinezkoa dela pentsatuko dute.

Baina gure Aquariumetik itsas askatasuna 20 metrora dago.

Irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 2an, Auzolan Topaketak izango ditugu Usurbilen. Une aproposa bide berria eraikitzeko. Hainbat tailer aurkeztuko dira bertan. Auzolan Topaketaren gaineko informazio gehiago helbide honetan dago eskuragarri: [www.auzolan.info](http://www.auzolan.info).

## Euskara ikasteko...

**Karmele Agirregabiria, Amaia Arana, Roberto Altuna eta Alex Labaien**

(Debagoieneko udal euskaltegiako zuzendariak)  
Oñati

Debagoieneko udal euskaltegiako zuzendarien izenean, Oñatiko Natxo Bolivarren eskutizari erantzunez, esan nahi dugu, hasteko, sentitzen dugula uda partean Gasteizera joan behar izatea euskara ikastera.

Hori, baina, ez da gertatu udal euskaltegiok halako mailarik eskaini ez dugulako, eskaerarik izan ez delako baizik.

Gure eskaintza zabala da, bai urtean zehar eta bai udan ere.

Hala ere, argi laga nahi dugu ez dagoela gure esku taldeak osatze.

Izan ere, nahitaezkoa dugu gutxieneko ikasle kopuru bat izatea taldeak aurrera egin dezan.

Eta, udan, zaila izaten da benetan goi-mailakoa ez den talderik osatzea, hiriburuetan ez baldin bada, behintzat.

Gustura asko osatuko genituzke maila guztietakoak!

Esandakoak esanda, gogoratu nahi dizuegu Debagoieneko lau udal euskaltegiok 2011-12 ikasturteko matrikula zabalik dugula eta pozik hartuko dugula euskara ikasi nahi duen oro.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | [papera@goiena.com](mailto:papera@goiena.com) | Faxa: 943 25 05 13

## DEBAGOIENA EZAGUTZEN

Goiena Klubeko bazkide bazara, Jakioneko otar bat zurea izan daiteke



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioan zuzentzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

## Debagoienetik kanpo egon arren, gure bailarako herri gehienetatik ikusten den mendia da. Nola du izena?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

## PARTE HARTZEKO

Telefonoz: 943 25 05 05 • e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

SMS bidez. Bidali KLUBA ERANTZUNA

[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.



**JAKION**

[www.jakion.es](http://www.jakion.es)

Jakionek emandako  
**Produktu sorta\***

\* 50 eurotan baloratutako sorta.

goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [goienakluba.com](http://goienakluba.com)  
Urteko kuota: 48 €.

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!







Iñaki Beristain, Arantzazuko frantziskotarra, Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

Iñaki Beristain | Frantziskotarra

# "Kontua da Arantzazuk bere esangura salbatzea, ez fraideok salbatzea"

- ▶ Arantzazuren orainaz eta etorkizunaz dihardu Beristainek
- ▶ "Beste bizimodu bat posible dela adierazteko jendea izango da"

ENEKO AZKARATE | ARANTZAZU

Arantzazuko fraide gazteenetakoa da (64 urte, Errezil). Eta ezagunenetakoa ere bai, Pello Zabala-rekin batera. Komunikazioaz arduratzen da. Arantzazuko Amaren egunaren bezperan, Arantzazuren orainaz eta geroaz jardun digu.

**Arantzazuko Amaren Eguna da barikuan. Ze espero duzue?**

Oñatiko erromesaldia 8etan hasiko da bide erdian eta handik gora batera egingo dugu ordu eta hogeitaz minutuz: kantu, otoitzaldi, gogoeta, poema, bertsoekin... Ibilaldi ederra. Gero, meza nagusia. Jende asko espero dugu. Berezikia aurtan, Gipuzkoan jaieguna da-eta.

**Lehendakaria eta ahaldu nagusia espero dituzue bertan?**

Lopez ez da etortzen. Idoia Mendia Jaurlaritzako bozeramailea etorri izan da. Aurten ez dakigu. Bestalde, ahaldu nagusia berria da eta ez dakigu oraindik zer egingo duen. Loiolan-eta egin zuena kontuan izanda, litekeena da Gipuzkoako diputatu nagusia bertaratzea, baina elizkizunera ez sartzea. Berdin Oñatiko alkateari eta udalbatzari dagokienez Denak daude gonbidatuta.

**Jose Inazio Munilla Gipuzkoako gotzaina ere han izango da.**

Bai, bai, jakina. Hura ere bai.

**Zelako harremana daukatzue gotzainarekin?**

Arantzazuko frantziskotarrok oso harreman puntuala izan ohi dugu gotzainarekin. Bestelakoan, izan ditugu geure arazoak, Arantzazun gertatu direlako, baina, oro har, ez zaigu tokatzen harreman handirik edukitzea gotzainarekin. Ez onik eta ez txarririk.

**Zeuen lankide izandako Joxe Arregik abituak laga izana zela baloratzen duzu?**

Min handia hartu genuen. Gurekin bizi izana da Joxe Arregi. Gizon jatorra da, gure betikoa, etxekoa. Gainera, min hori garraztu egin zen gauzak bere onetik atera zirelako. Barruko arazoa izaki, barruan konpondu beharrean hedabideen bidez zabaldu zen eta egoerak narrastu egin ziren, soluziobideak itxi... Joxe Arregik bere bidea hartu zuen. Orain lasai dago.

**Zergatik geratu zen guztia?**

Ez nintzateke hasiko erruak banatzen. Sokatirak hasiz gero, batek batera eta besteak kontrara egin ohi du. Eta ahalegin guztia egiten da, gainera, ahal den ertzeren eroateko izkina bakoitza. Hori gertatu zela uste dut. Alde batetik eta bestetik bere onetik atera ziren gauzak.

**Zelan doa bederatziruena?**

Jende aldetik, beti bezala. Arantzazuko etxeak, ostatuak-eta, bete-ta daude. Disgustu batzuk ere izan

dira, ze beti etortzen diren batzuk toki barik geratu baitira. 300 bat laguneko taldea izaten dugu egunero. Benetan hunkitu egiten nau jendea kantuan entzuteak. Munduko korurik ederrena bertan sortzen da, jendeak grina osoz ekiten diolako.

**Uda zelan joan da Arantzazun?**

Lehengo urtean baino jende gehiago ibili da, batez ere bisita gidatuetan jende gehiagok hartu du parte.

**"Arantzazuren frantziskotasuna laikoek ere egin dezakete"**

**"Euskal Herriko etxe askorekin harreman afektibo handia izan dugu beti"**

**"Aldizkaria erakargarri egiten asmatu behar dugu aurrerantzean ere"**

**Nondik etortzen dira turistak Arantzazura?**

Gehienak bertatik. Haiez gain, Kataluniatik eta Madrildik. Andaluziatik ere bai. Atzerritik...

**Arantzazuko Hotela zer moduz?**

Oso garai zailak dira hotel eta jatetxeendako. Krisi gogor hau dela-eta oso gaizki daude gauzak. Baxu antzean daude. Egia da, akaso, hotela berri samarra ere bade-la eta halakoak ahoz aho zabaltzen direnez denbora behar duela. Berri onak nekez zabaltzen dira; txarrak errazago.

**Arantzazuren ahalguneak eta indarguneak aztertu dituzue. Zeintzuk izan dira ondorio nagusiak?**

Bata, oso pozgarria: Arantzazuko erlijioarekin eta naturarekin. Domeketan jendez beteta egoten da. Kulturaren edo artearen aldetik eta Baketik-en lanagatik-eta, badoa hartzen indarra apurka, baina horiek poliki errotzen dira jendartean.

**Zenbat frantziskotar zaudete gaur egun Arantzazun?**

32 gara guztira. Gazteenak 55 urte ditu eta zaharrenak 93.

**Urterik ugarienetan 170 izatera ere heldu zineten...**

Bai, hala da. Orduan jendea soberan zegoen edozertarako. Orain oso gutxira etorrita gaude. Baina horrek beste mesede batzuk egiten dizkigu, beste baliabide batzuk topatu behar ditugula fraideak ez direnak: Arantzazuren alde lan egiteko prest dauden adiskideak, boluntarioak... Elizari, oro har, etorriko zaio ondo hori.

**500 urte baino gehiago dira frantziskotarrak Arantzazun daudena, baina aurki bat bera ere ez da gertatu seguruen, ezta?**

Egia da. Hala ere, frantziskotarrak izan edo ez izan, Arantzazuko eliza jardunari beste sen edo berezitasun bat eman behar diogu. Kontua ez da fraideok salbatzea, baizik eta Arantzazuk bere esangura salbatzea. Orain arte Euskal Herriari mezu bat eta presentzia bat eskaini badio, aurrerantzean ere hori lortu behar dugu fraideekin edo fraiderik barik.

**Ze etorkizun geratzen zaio Arantzazuri?**

Arantzazuren frantziskotasuna laikoek ere egin dezakete. Esaterako, azkeneko hiru urteotan Asis sarea sortu eta zabaldu da eta 2.000 lagun baditu dagoeneko. Gizatasuna, askatasuna, jatorritasuna, xumetasuna... zabal dezakete laikoek ere. Etorkizunean, gu ez gaudenean ere, frantziskotarrak izango dira Arantzazun; apaizak ez, akaso, baina bai laiko frantziskotarrak. Beste bizimodu bat posible dela adierazteko jendea izango da. Haiek izango dira Arantzazuren etorkizuna.

**Arantzazuko Gaur eta Arantzazuko Adiskideak. Ze ezberdintasun dago eta zein da bi horien helburua?**

Arantzazuko Gaur fundazioa da Arantzazuk gainean daukan txapela. Proiektu guztia babesteko. Berezikia, negozioak, Gandiaga Topagunearen aretoak, hotela, denda... Negozio kontuetan ez gara batera adituak. Fundazioan daude Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko Udala, Mondragon taldea, Kutxa Fundazioa eta gu geu.

**Arantzazuko Adiskideak?**

Beste kontu bat: Arantzazuri laguntzeko prest dagoen jende multzoa. Mila lagunetik gertu. Haiekin beste lan askotarako kontaktatzen dugu. Arantzazuren eta Euskal Herriko etxe askoren artean harreman afektibo handia egon da beti, sasoi batean fraideak ibiltzen zirelako etxerik etxe.

**Baketik-ek bost urte beteko ditu aurki. Ze balorazio egiten duzue?**


Asmo guztiak gainditu ditu. Hala ere, une erabakigarrian dago. Berregituratzea behar du. Gainera, dirulaguntzak pikutara joan dira eta hori ere kontuan izan behar da. Berritu edo hil. Etorkizunari eutsi egin behar.

**Arantzazuko aldizkariaren zuzendaria ere bazara.**

10.000 etxetara heltzen da, hori da-eta harpidedun kopurua. Une onean dago. Tresna oso ona daukagu esku artean eta hori erakargarri egiten asmatu behar dugu aurrerantzean ere.







Easy-Line

## Izen-emate epea zabalik!

Eguneko **1,5 €**ren truke,  
**hilabeteko gimnasioa** duzu!  
*Giartzun kirola egitea, zugaran inbertitzea da.*



**GIARTZU** gimnasioa zurea da

Boni Laskurain 3 behea BERGARA - 943 763005 - [gimnasio@giartzu.com](mailto:gimnasio@giartzu.com) - [www.giartzu.com](http://www.giartzu.com)



## DUELA 10 URTE

2001-09-14

**Bailarako baserritarrek omenduak**

Debagoieneko hiru baserritarrek sari garrantzitsuak irabazi zituzten Ordizian eginiko azokan.

Hain zuzen, Jose Arantzabal elgetarrak hiru urte eta erdi eta bost urte arteko gauduaren lehenengo saria irabazi zuen. Kontxi Izagirre antzuolarrak fruituen sailean lehenengo saria irabazi zuen. Eta Juan Maiora bergararrak zortzi urte gorako lehenengo saria irabazi zuen.



Kontxi Izagirre, bere fruituen postuan. | E. AZKARATE

2001-09-14

**Coprecik Rampgasa erosi zuen**

Copreci kooperatibak Italiako Rampgasa enpresaren akzio guztiak erosi zituen. Eragiketa komertzial harekin, Coprecik beste aurrerapauso bat eman zuen etxetresneta-ko osagaien sektorean duen jarduera nazioarteko bilakatzeko ibilbidean. Horrez gain, Gas Egosketako negozioa ere indartu zuen. Izan ere, Rampgasa Italiako merkaturan liderra zen gas-sukaldeetarako *tubing* eta hodiaren sektorean.

## DUELA 5 URTE

2006-09-08

**Atutxa, Kutxako zuzendari**

Elias Atutxa Euskadiko Kutxaren zuzendari nagusia izango zela erabaki zuten. Horrela, 16 urtez Euskadiko Kutxaren zuzendari nagusi izan zen Juan Jose Arrietaren lekua hartuko zuen Elias Atutxak. Erabakia 2006ko irailean hartu zen arren, 2007ko martxoan egin zen batzar orokorraren ostean egin zuten aldaketa.

## ARRASATE

**Rosa Maiztegi Balantzategi** Arrasateko kioskoan egunkariak saltzen ditu, baina paperean idatzita agertzen ez diren kontu asko ezagutzen ditu Maiztegik. | IRATIGOTIA

# "Jende asko bere kontuak esateko desiratzen egoten da; batzuetan sinestezinak..."

**B**izitza ia osoa darama Rosa Maiztegik egunkari artean. 62 urte ditu eta 12 urte zituenean hasi zen, egunkariak saltzen zituen osabari laguntzen. Egun, Arrasaten gelditzen den kiosko bakarra du eta ahizparekin eta koinatuarekin eramaten du aurrera.

**Zure osabak egunkariak saltzen zituen, ezta?**

Bai, osabak Portaloian saltzen zituen egunkariak. Bestalde, gu Musakolan bizi ginen eta etxean ere izaten genituen egunkariak auzotarrendako. Hala, 12 urte nituenean eskolako atsedendian banaketa egiten nuen auzoan. Portaloira ere etortzen nintzen osabari laguntzera. Horrela hasi nintzen egunkari artean lanean. Gero, osaba hil zenean nik hartu nuen haren ordezkia. Horregatik, oraindik ere, kioskoan jasotzen ditudan faktura askotan Balantzategi Kiosko bezala agertzen da nire saltokia. Izan ere, osaba zen Balantzategi.

**Gauzak asko aldatu ziren Portaloian saltzetik kioskora pasatu zinetenean?**

Bai, asko. Izan ere, Portaloian geundenean bi egunkari bakarrik zeuden. Gero, gehiago argitaratzen hasi ziren eta kioskora pasatu ginen. Egun, zaila da kontatzea zenbat egunkari dauden. Izan

ere, informazio orokorreko ez gain, badaude egunero kaleratzen diren kiroletakoak eta ekonomikoak ere.

**Jendearen ohiturak ere aldatuko ziren urte hauetan?**

Bai. Lehen, askoz jende gehiagok erosten zuen egunkaria. Nik gogoratzen dut domeketan jendea, mezetan izan ostean, nola etortzen zen egunkaria erostera. Auzo guztietatik etortzen ziren herritarrek kalera mezetara; eta, ondorioz, izaten ziren egunkari gabe gelditzen ginen egunak ere.

Egun, ordea, ez da horrela. Guk ikusten dugu egunkaria etxera eramaten duten nagusiak hiltzen direnean, etxekoak ez direla etortzen egunkariaren bila. Gazteek ez dute ohiturarik erosteko. Lauzpabostek kiroletakoak erosten dituzte, baina ez da lehengo. Nik etxean ere ikusten dut hori. Gure semeek ordenagailua piztu eta bertan ikusten dituzte egunkarietako azalak, eta tituluak irakurri.

**Hala ere, izango da egunkaria bereziki saltzen den egunik ere, ez?**

Hauteskundeen ondorengo egunean asko saltzen da, baita hemengo albisteren bat agertzen bada; adibidez, istripu bat egon bada edo hemengo talderen batek zerbait irabazi badu. Batez ere, ber-

## HERRITARRAK



Rosa Maiztegi, Garibai kalean duen kioskoaren parean. | I.G.

## "Lehen, egunkari gehiago saltzen ziren; egun, Internet ere bada-eta"

## "Bertako albisteak azaltzen direnean egiten dute salmentek gora"

tako kontuak irakurtzea gustatzen zaio jendeari.

**Inguruko bizilagunak ondo ezagutuko dituzu.**

Bezera kioskora iristen deneko, nik dagoeneko prest izaten dut etxera eraman behar duen egunkaria. Urte asko daramatzat lanean, eta badakit bakoitzak zer erosten duen.

**Harreman estuak ere egingo dira.**

Bai, jende askorekin dut konfiantza handia eta etxeko kontuak ere esaten dizkirate. Gainera, batzuk desiratzen egoten dira berba egiteko; batez ere, nagusiak. Nik gustura entzuten ditut euren kontuak.

**Jende askoren konfidentea zara, beraz.**

Bai, bai. Gogoratzen dut, adibidez, emakume batek nola kontatu zidan banandu egin zela, baina amaieran inori ez kontatzeko esan zidan, nik bakarrik nekiela -eta. Oroitzen dut, baita ere, bes-

## NIRE HERRIAN

### HERRIKO BIZITASUNA

Ni oso gustura bizi naiz Arrasaten. Gainera, herrian gauza asko aldatu dira, hoberako; nahiz eta gelditzen diren hobetu beharreko beste kontu batzuk ere. Arrasate herri bizia da: ume zein helduentzat ekintza ugari izaten dira. Herrian zerbait badago, ni normalean bertan izaten naiz, kalean izan edo Amaia antzokian izan.

### BITERI PLAZA NOLA DAGOEN

Biteri plaza ez zait batere gustatzen. Oso obra zakarra iruditzen zait. Herritarren erabilerarako egin zela diote, baina nik ez diot praktikotasunik ikusten. Gainera, gure kioskoa bertan jarri nahi zuten, garajeko irteeran dauden lokaletan. Azkenean, baina, ezerezean gelditu zen hori, eskerrak! Gu ez geunden ados.

te emakume batek beste behin bost euro eskatu zizkidala. Esan zidan gizonak diru guztia kendu ziola; Kutxan gauza batzuk konpondu eta itzuliko zizkidala gaineratu zidan. Nire poltsikotik eman nizkion bost euroak. Hurrengo egunean itzuli zizkidan.

**Kalean egonda, gauza asko ere ikusiko dituzu.**

Bueno, gauetakoa sinestezina izaten da. Ez naiz Maritxu egunaz eta jaiez ari, astebururo izaten da zerbait: ezkontzaren batetik etorritako gazteak edo parrandan dabilzanak. Goizeko seietarako etortzen naiz hona, eta... Hala ere, koinatua hiru eta erdi tarako etortzen da, eta hark bai ikusten dituela gauzak...

**Lanean gustura zabilzala dirudi.**

Bai, ni gustura etortzen naiz lanera, ez dut inolako arazorik izaten. Goizeko bostetan jaiki eta hemen izaten gara, jendearekin berba egin eta gustura.



# HERRIAK

**ESKORIATZA**

## Trumoikada arrakastatsua

- ▶ Sanpedrotan "ekitalditxo" egiteko asmoz osatu zen Burrumba Kelele batukada taldea
- ▶ Gustura geratu ziren eta jarraitzeko asmoa du askotariko jendea batzen duen taldeak

**MIRIAN BITERI |**
**ESKORIATZA**

Buru-belarri dabilta Eskoriatzako Burrumba Kelele batukada taldeko kideak domekan Leintz Gatzagan eskainiko duten ikuskizuna gertatzen. Sanpedrotan estreinatu ziren, eta irailerako bi emanaldi dituzte hitzartuta.

Taldeko partaide David Arrietak eta Iñaki Kortazarrek hastapenak gogorarazi dituzte. Ideia Jon Pagaldai *Txetu* taldearen zuzendariari bururatu zitzaioela, eta kalean hainbat kartel eta Udaleko webgunean deialdiaren berri eman ostean, lehen entseguak egiten hasi zirela azaldu dute; hain justu ere, Aste Santuan jarri zuten martxan, sanpedroei begira, "ekitalditxo" bat egiteko asmoz.

Burrumba Kelele izena nondik datorren ere azaldu digute: "Hainbat izen bota ostean, bozketa egin eta hori irten zen. Burrumbak sonoritatea dauka; zarata, trumoikada. Kelele, berriz, swahilierazko burrunbaren parekoa da. Afrikako erritmoak lantzen



Aurtengo sanpedrotan egin zuten lehen emanaldia; zaharren egoitzatik pasa ostean, Azkoaga Enea hotelean izan ziren. | BURRUMBA KELELE

ditugunez, izen aproposa dela deritzogu".

### Era askotariko 20 lagun

Gaur egun, 20 lagunek osatzen dute; askotariko jendea dago.

Horren harira, honakoa esan dute: "Denok bistaz ezagunak gara, baina askok geure artean berba egin bakoak ere baginen. Honek xarma berezia ematen dio taldeari, 10 eta 56 urte arteko pertsonak gara-eta".

Eskoriatzarrak dira guztiak, aretxabaletar bat izan ezik, eta astean bizpahirutan elkartu dira, Torrebason.

Esan bezala, sanpedrotan eskaini zuten lehen ikuskikuna. Hala gogoratzen dute hori: "Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan zen. Zaharren egoitzan ere egon ginen, eta une berezia bizi izan genuen han. Hasieran urduri, gero gozatuz eta azkenerako lehertuta. Dena eman genuen".

Gustura geratu ziren, eta hortaz, bestelako herrietara joateko asmoa dute "Hasiera batean, beste herri edo jaietara joateko prest gaude, kontutan hartuta langileak eta ikasleak osatzen dugula taldea, ordu eta egunen arabera han izango gara".

Taldea ezagutarazteko sare sozialak erabiltzen dituzte; Facebook, hain justu. Honako iritzia dute horren gainean: "Tresna onak direlakoan gaude, lagunak egin, zer egiten dugun erakutsi eta emanaldien berri emateko".

### Zain dute Leintz Gatzaga

Burrumba Kelele batukada taldearen ikuskizuna ikusteko aukera izango dugu ostera ere datozen egunotan. Etzi, domeka, Leintz Gatzagan izango dira, 19:00etan. Eskoriatzako emanaldian hainbat aldaketaxo egin dituztela jakinarazi digute, eta emaitza ona lortuko dutelakoan daude taldekoak.

Aretxabaletan ere izango dira, San Migeletan. Hilaren 24an izango da ikuskizuna. Ordurako, Jon Pagaldai *Txetu* bueltan izango da, eta taldea zuzenduko du ostera. Orain, David Arrieta dabil zeregin horretan.

### BITTOR GURRUTXAGA 'BIKI'

47 URTE

"Betidanik danborren eta perkusioaren kontu hau gustuko izan dut, eta, jakin bezain laster, ez nuen aukera galdu nahi izan, eta taldean parte hartzen hasi nintzen. 18 hazbeteko base bat jotzen dut nik. Jakina denez, sanpedrotan irten ginen lehen aldiz eta oso aberasgarria izan zen. Egunez egunera gero eta gusturago nago, bai jendearekin eta baita egiten dugunarekin ere".

### GARI BARANDIARAN

10 URTE

"Perkusioa oso gustukoa dut; musika eskolan ere hori ikasten nabil gaur egun, eta, herrian batukada taldea sortzeko asmoa zegoela jakin nuenean, ez nuen zalantzarik izan. Nik neuk kaxa jotzen dut. *Biki*-rekin bat egiten dut, sanpedrotan eskaini genuen ikuskizuna oso aberasgarria izan zen. Ni neu ere oso gustura nabil, eta, gainera, aurrera jarraitzeko asmoarekin".

### NIEVES GAMERO

56 URTE

"Kasualitate hutsez sartu nintzen taldean. Lehen entsegu egunean kaletik nenbilela zaratak entzun eta bertara hurreratu nintzen. Oso gustuko dudanez, denbora hartu nuen, eta begira non nagoen! Amets baten nagoela ematen du, oso polita da, eta, gainera, gustatzen zaidan zerbait egiteaz gain, jende jatorrez beteriko talde baten nago. Ea nork jarraitzen nauen!".

Astelehenera ostiralera eguneko menua



Aste bukaeran menu bereziak (baita astean zehar enkarguz ere) eta afariak



7 logela

## MAIALDE LANDETXEA (Elgeta hotela) BERRITUTA DATOR

**INAUGURAZIOA**  
Irailaren 14an, 19:00etan.  
Gonbidatuta zaude!

Etor zaitez Maialde ezagutzera!



San Roke kalea 26 - ELGETA  
Tel.: 943 78 91 07



# Birzikleta Azokarako materiala bihar batuko da

Hilaren 17an egingo dute azoka; materiala Udal Azokan batuko dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Udalak antolatuta, irailaren 16tik 22ra Mugikortasun Astea egingo dute. Horren barruan, azkeneko urteetan bezala, hainbat ekintza egingo dituzte. Besteak beste, Birzikleta Azoka egingo dute. Azokarako materiala batzeko egunak bihar, zapatua, eta datorren asteko martitzena eta eguena izango dira.

## Edonolako bizikletak

Birzikleta Azokarako, egoera onean dagoen edozein material jasoko dute: bizikletak –mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurrenak, trizikloak, patinak edo patineteak– kaskoak, abiadura-neurgailuak, gurpilak, eskularruak eta maillotak, besteak beste.

Materiala batuko dute Udal Azokan bihar, zapatua, 11:00etatik 13:00etara; eta hilaren 13an eta 15ean, martitzena eta eguena, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Azokarako eramaten den materialari jabeak jarri beharko dio prezioa. Saltzen ez den eta saldutakoaren zenbatekoa jabea-ri itzuliko zaio irailaren 22an,



Iaz egindako Birzikleta Azoka. | ARRASATEKO UDALA

eguna, 17:00etatik 19:00etara, Udal Azokan.

Birzikleta Azoka hilaren 17an egingo dute, zapatua, 11:00etatik 15:00etara, Seber Altube plazan.

## Segway zirkuitua

Hilaren 17an, Birzikleta Azokaz gain, segway eta trikke zirkuitua ere egingo dute. Biteri plazan izango da, 11:00etatik 14:00etara. Horrez gain, 11:00etatik 15:00etara emisio txikiko ibilgailuen era-

kusketa egongo da Biteri plazan: auto hibrido eta elektrikoak, paseoko bizikletak, elektrikoak...

## Autobus zerbitzua doan

Irailaren 16tik 22ra hiri autobus zerbitzua doan izango da. Beste urte batzuetan egon izan diren arazoak ekiditeko, adin txikikoek nagusi baten laguntzarekin erabili ahal izango dute autobus zerbitzua doan.

# Gaurtik domekara jai giroa nagusi Uribarrin

Ofizialki gaur 19:00etan hasiko dira jaiak suziri jaurtiketarekin; gauean rock jaialdia Udalpen

A.E. | ARRASATE

Auzoko jaiak ospatuko dituzte Uribarri-Erguinen gaur hasi eta domekara arte. Egitarau zabala prestatu dute; hala, alkatetzak "guztien gustukoa" izatea espero du. Bide batez, antolatu dituzten ekintzetan parte hartzeko eskatu die auzotarrei.

## Auzo bazkaria

Jaiak auzo bazkariarekin hasiko dituzte. Gaur, egubakoitza, bertso bazkaria egingo dute Txondorra jatetxean, 14:30ean. Ondoren, umeendako jolasak egongo dira Txatxilipurdikoen eskutik Usaetxe plazan, eta baita bolao eta buruhandiak ere. Jaiak, ofizialki, 19:00etan hasiko dira, suziri jaurtiketarekin.

Gauen rock kontzertua izango da Udalpe plazan: Madriguera eta Lined Hardcore taldeek eskainiko dute kontzertua rockzaleen gozamenarako. Emanaldia 23:00etan izango da eta goizaldera arte iraungo du.

## Zapatuan, denetik

Aurreko egunean berandu arte ibili direnek ez dute lo egiteko

denbora luzerik izango; izan ere, 10:00etan diana eta suziriak botako dituzte auzoan. Gainera, buruhandiak ere izango dira.

Horren ondoren, eliza inguruan segwayak erabiltzeko aukera izango dute ume eta ez hain umeek. 40 eta 115 kilo bitartean izan behar da ibilgailu berezi horiek erabiltzeko. Gainera, ordu berean astoak eta poneyak egongo dira txikiendako.

Gazteendako, ostera, Erguingo gaztetxe kanpoan ekintzak egingo dituzte 11:00etatik 13:00etara. 13:00etan luntxa egingo dute Usaetxe plazan. Arratsalde partean 23:00etan hasita Alai taldeak erromeria eskainiko du Usaetxe plazan, goizaldera arte.

Domekan rokodromoa, tiro-lina, ohe elastikoa eta San Migel kutzekin egindako dorreak izango dituzte 10:30etik 13:30era; eta 11:00etatik 14:00etara haur parkea Usaetxe plazan. Eguerd partean herri kirolak Arimazubi plazan eta txikiteoa Bilboko gaitariak alaituta izango dute. Arratsaldean dantza saioa izango da Arimazubin.

# Extremadurako eguna ospatuko dute bihar Landako urtegiaren

A.E. | ARRASATE

Arrasateko Corazon de Encina kultura elkarteak Extremadurako jaia ospatuko du bihar. Extremadurako egunaren harira egingo dituzte ospakizunak. Elkarteko zuzendaritza batzordeak, elkarteko bazkideez gain, gainerako arrasatearrak ere gonbidatu gura ditu ospakizunetan parte hartzera.

Bihar, zapatua, 10:30etik 20:00etara izango dira ospakizunak Landa urtegiaren inguruan. Jatekoak, edatekoak eta musika izango dituzte hara joaten direnek.

## Sardinak eta ardoa

Bazkideendako sardinak eta ardoa banatuko dituzte egunaren hasieran. Ondoren, ohorezko brindisa egingo dute eta Extremadurako ereserkia abestuko dute.

Txapelketak ere izango dira Landa: kartetan jardungo dute, kuartrola eta txintxonan –azken hori emakumeek–. Horrez gain, gazpatxo, tortilla, gazta eta ardo lehiaketak egongo dira, eta baita sandia (handiena) eta meloi (pisutsuena) lehiaketak ere. Sokatira eta uztai jokoak ere egongo dira.

# Gatzagako Toki Eder elkartekoena, goxoena

Leintz Gatzagako Benita Altuna eta Maria Plazaolak irabazi dute Abaroan jokaturako eskualdeko gastronomia lehiaketa. Bildotsa menestarekin prestatu behar izan zuten parte-hartzaileek. Arrasateko, Antzuolako eta Aretxabaletako elkartekoak ere aritu ziren. Orain, Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute.



JULEN IRIONDO

UGARTE  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK


## ARROZTEGIA

San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

## ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

## BERGARA



Proiektuak · Koltxoak · Horma-Armairuak · Altxariak neurritan  
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak



# EPA-HHiren egoitza berria gertu dago ikasturte berriari ekiteko

- ▶ Hilaren 15ean hasiko dute ofizialki; 430 ikasle inguru espero dituzte
- ▶ Egoitzarekin "oso pozik" eta urteari begira "gogotsu" dago irakasle taldea

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ikasturte hasiera ez da bakarrik haur eta gazteendako, ikasle helduendako ere orain hasten da klasera joateko garaia. Helduen Heziketa Iraunkorreko -EPA- zentroa da horren adibide, buru-belarri dabilta-eta matrikulazioekin; egoitza berrira bisitan joan garenean hainbat ikasle aurkitu ditugu izena ematen.

Irakasle taldea dena du gertu 2011-2012 ikasturterako. Ilusioz eta inoiz baino gogotsuago daude aurten, gainera. Izan ere, egoitza berria izango dute, Arrasate Pasealekuan, Mankomunitatearen egoitza zaharra zegoen lekuan.



EPA-HHiko irakasle taldea egoitza berriko liburutegian. | JOKIN BEREZIARTUA

## Matrikulaziorako bi epe

Hilaren 15ean hasiko dute ofizialki ikasturte berria, egun horretan amaitzen da-eta ohiko matrikulazio-epea. Epe horren barruan sartzen dira honako hiru gradu hauek: alfabetatzea, oinarriko ezagutzen finkatzea eta bigarren hezkuntzako titulua ateratzera bideratuta dagoen gradua. Bestalde, hilaren 16tik 22ra luzatuko da izenematea

## ESANAK

**"Orain denok egoitza berean egongo gara, askoz hobeto"**

MIREN BENGUA | ZUZENDARIA

honako irakasgai hauendako: ingelesa, frantsesa, informatika, filosofia, artea eta sarbideak -unibertsitateko edo goi mailako zikloetara-. Azken horiek hilaren 26an hasiko dira klaseekin.

## Egoitza, handia eta argitsua

Miren Bengoa zuzendariaren arabera, zentro berriak ez du konparaziorik Ferrerias kalean

zuten egoitzarekin: "Ferreriasen jende larregi geunden, ikasle batzuk Aretxabaletara bidali behar izaten genituen eta beste batzuk Etxaluzen ematen zituzten klaseak. Orain denok egoitza berean egongo gara, askoz hobeto".

Egoitza berriak zazpi ikasgela, informatika gela bat, liburutegia, zuzendaritza gela bat, irakasle gela bat eta itxaron-gela bat izango ditu. Oraindik ez dute ekipamendu osoa eta altzari guztiak jaso. Oraingoan, adibidez, mahai batzuk falta zaizkie eta ez dute interneterako sarbiderik. Baina, Bengoaren arabera, datozen egunetan jasoko dute hilaren 15ean dena gertu egon dadin. "Orain eskola bat garela dirudi. Lehen sartu ezinik ibiltzen ginen eta orain, berriz, lekua ez da arazoa. Oso pozik gaude", dio Bengoak.

Lourdes Jauregiak irakaslea ere oso gustura dago zentro berriarekin: "Oso argitsua da eta ikasteko aproposa, beraz. Lehen egoitzaren alderatuz, espazioa da nabarmenezkoa. Eta espazioa izateak, eta hori da guretako garrantzitsua, esan gura du ikasle guztiak zentro berean izango ditugula. Izan ere, orain arte oso sakabanatuta geunden".

Gainera, Udaleko langileei eskertu gura die uztaileko lekualdatzean emandako laguntza.

## 430 ikasle inguru

Matrikulazio epea amaitu arte ez dago datu zehatzik ematerik baina, Bengoaren arabera, 430 bat ikasle izango dituzte aurten.

## Ferixalekuko igogailua hilaren 12an irekiko da; goikoa, berriz, bihar

Ferixalekua eta Altamira auzoa lotzen dituzten igogailuetako pasabideetan putzuak agertzen ziren euri asko egiten zuenean. Putzuok ekiditeko pasabideei tratamendu berezia eman eta malda sortu diete, alboetara, modu horretan euri-ura bazterretatik jausi eta ur-putzurik ez sortzeko. Bada, goiko igogailua bihar irekiko dute eta behekoa, Ferixalekuan hartzen dena, berriz, hilaren 12an. Bihar ireki behar zituzten bi igogailuak baina behekoaren pasabideko lanak atzeratu egin dira. Beraz, datorren astean bi igogailuak egongo dira erabilgarri.



**Gazteluondo eta pasealekua lotzeko kalea, erritmo onean**

Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotuko dituen bidea egiteko lanak martxa onean doaz. Hau da, urtea amaitu baino lehen zabalik egongo da. Hirigintza Sailaren arabera, Mitarte izango du izena kale berriak. Obra Hiriber programaren barruan kokatzen da, eta Jaurilaritzak ordainduko du obraren %65: 463.710 euro.

## NIRE USTEZ

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



## Iturria berriz itxita?

Zurrumbilo baten nagoen susmoa daukat. Hau da, irailaren 6an sarean saltsan nenbilela, diru-laguntzen murrizketen albistea irakurri eta *déjà vu* sentsazioak hartu ninduen; ez al genuen iaz ere egoera hau bizi izan?

Krisiak ez omen du atzera egiteko gogo handirik, antza; apaltzeko asmoa izango du akaso, baina argi dagoena da aurrera egitea kostatzen ari zaiola mundu mailako ekonomiarik.

Eta gehiegitan gertatzen den bezala, berriro ere kultura galtzaile irtengo den errezeloa daukat.

Geratzen diren sotsak bes-telako ekimenetara joango dira, edo, Urgellek esan bezala, "berriro ere diruaren banaketa egin beharko dugu".

Eta horrekin batera, mezu "lasaigarria" ere bota digu sailburuak, jaitsiera txikiena euskara sustapenek eta euskaltegiek edukiko dutela, alegia. Ez dakit nik ba!

Dena den, halakoak entzunda, jendartea ez da lasaitasun sentsazioz gertatzen, ez horixe.

Adarra jotzen ari direla dirudi; aurreztaile bakarrak herritarrak izan behar dugula ematen du-eta, guri eragiten digula soilik krisiak...

Austeritate edo heretura plan ekonomikoa euren buruari ezarriko balioite sikiera...

*Déjà vu*, berri txarrak eta betiko leloaren betiko leloa.

**"Adarra jotzen ari direla dirudi; guri eragiten digula soilik krisiak..."**

## BIRZIKLETA AZOKA

Bigarren eskuko bizikleta azoka

Seber Altube plaza  
irailak 17, zapatua, 11:00-15:00

• **Zer batuko dugu:** Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikleta, triziklo, patin, patinete, kasko, belozimetro, gurpil, eskularruak, mailotak...

• **Noiz eta non batuko dugun materiala:** Udal azokan

Irailaren 10ean, zapatua  
11:00 - 13:00

Irailaren 13an, martitzena, eta irailaren 15ean, eguena  
11:00 - 13:00 / 17:00 - 19:00

Salneurria jabeak jarriko dio. Saltzen ez den materiala jabeari itzuliko zaio.  
Irailaren 22an, eguena. 17:00-19:00 Udal azokan.



**ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2011**

Irailaren 16-22





## Bigarren lagunartekoa, gaur, Ford Mugarrik

X.U. | ARRASATE

Joan den egubakoitzean jokatu zuen denboraldi-aurreko lehen norgehiagoka Ford Mugarri Arrasate eskubaloia taldeak, eta partiduko emaitza gutxienezkoa bada ere, Ane Herrerok garai-pen batekin egin zuen taldean entrenatzaile moduan debuta, Elgoibarkoen kontra jokatu-tako partiduan.

Hala, Arrasatekoek liga hasi aurretik prestatzen jarraitzeko gaur, egubakoitza, izango dute bigarren hitzordua, Gasteizko Divino Maestro kantxan, Gure Auzune taldearen kontra 20:30).

### Irabazi, hutsegite normalez

Elgoibarren jokatu-tako lehen partidua denboraldi-aurreko norgehiagoka batek dituen ezau-garri guztiak izan zituen: jaurtiketa eta paseetan hutsegite dezente izan ziren, jokoan zorrotasun gutxi izan zuten eta bi

taldeak hobeto ibili ziren defentsa-lanean ate aurrean baino.

Hala ere, Arrasateko ordez-kariak nahiko gustura itzuli ziren Elgoibarren ikusitako-arekin, Herreroren mutilak uneoro kontrarioa baino gehiago izan zirelako, eurek ezarri zutelako partiduen erritmoa eta norgehiagoka osoan zehar 5 goleko errentarekin ibili zire-lako aurretik, nahiz eta azken minutuetan kontrarioak estutu egin zuen, aldea murriztuz (26-29).

### Lehenengoan hobeto

Arrasatekoak lehenengo zatian bigarrenean baino hobeto ibili ziren. Defentsan lan ona egin zuten, eta horri esker kontra-rasoan irten ahal izan ziren dezentetan, Elgoibarri min egin ez eta 5 goleko abantaila lortuz. Bigarrenean Elgoibar esnatu egin zen, baina Arrasateko ate-zainak lan ona egin zuen.



Jonan Eskibealek eskubaloia uzteko erabakia hartu du. | GOIENA

## Ointxe!-ko jokalaria denak Tafallara

Arrasateko saskibaloia taldeak inoizko irteera handierarekin hasiko du denboraldia

X.U. | ARRASATE

Ez dago denboraldia talde giroan hasia baino modu hobetirik, eta Ointxe!-koak ez dira txikikerietan ibili, klubeko jokalaria guz-tiekin irteera egingo dute eta asteburuan, Tafallara.

Hala, klubeko ia 100 gazte batuko dira Ointxe!-ren kontzentrazioan, eta Beireko aterpetxean igaroko dute asteburua klubeko senior mailako hiru taldeek, gazte mailako bi taldeek, kadete mailako bi taldeek eta baita ere infantil mailako hiru taldeek ere. Hain zuzen ere, iazko irteeraz alderatuta infantilen parte-hartzea da aurtengo berritasuna.

### Lagunarteko partidua

Ointxe!-ko talde guztiak lagunartekoak jokatu dituzte

Nafarroako beste talde batzuen kontra, eta denboraldiko lehenengo partidua izango dira ia guztiendako, Euskal Ligako gazteendako ezik, joan den asteburuan Easo Kopan parte hartu zutelako.

### Sekula ere ez horrenbeste

Lehenengo aldiz batuko ditu Ointxe! klubak horrenbeste gazte halako irteera batean. Baina, klubeko ordez-kariendako garrantzitsua da taldeko gazteek euren erreferente diren nagusiagoekin asteburua pasatu ahal izatea; horregatik emanago dituzte infantilak.

Hala, jokalaria guztiak bihar, zapatua, dute hitzordua, 10:00etan, Beirerako bidea hartzeko -Tafallatik hamar minutura dago.

Oxel Apraitz | Aretxabaletako futbol jokalaria

## "Atxabalpe zelai ederra zen, ez dago belar naturala modukorik"

- ▶ Apraitzek UDAn jokatu du, iaz Beasaien min hartuta egon eta gero
- ▶ 20 urteren ostean Arrasatekoak ez zuen futbola lesionatuta utzi nahi

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Oxel Apraitzek (Arrasate, 1976) 22 urterekin utzi zuen Mondra, eta ordutik Euskal Herrian batera eta bestera ibili da, hirugarren eta bigarren B mailako taldeetan golak egiten. Iaz min hartuta ibili zen Beasainen, eta ez du futbola horrela utzi nahi izan. Hala, erretiroa hartu aurretik Aretxabaleta aukeratu du berdegune sentsazio onak errekuperatzeko. Esan barik doa gaitortzeko defentsendako albiste txarra dela hori.

### Oraindik gogoan dut Atxabalpen buruz egin zenuen gol ikusgarrietako bat, eta urteak pasa dira...

Badakit ze gol den hori. Eibarren kontra egin nuen gola, eta gogoan dut bi minutu baino ez nituelako egin berdegunean. Ordezko moduan irten berri, falta bat atera eta buruz errematatu nuen, indarrez. Eta, hurrengo jokaldian lesionatu egin nintzen.

### Ondoren talde mardoa ezagutu zenituen.

Mondratik Bergarara joan nintzen, hirugarren mailan zegoela, eta oso oroitzapen onak ditut, urte hartan ondo eutsi genion kategoriari. Handik Lemoara joan nintzen, eta bi urte egin nituen han. Ondoren Barakaldora, bigarren B mailara, baina neguan Lemoara itzuli nintzen, utzita. Amurrion ere jokatu nuen, eta Lemonatik deitu zidaten ondoren bigarren B mailan jokatzeko. Baina, orduan ere neguan Ondarroako Aurrera taldera joan nintzen, utzita.

Hurrengo bost urteak Gernikan jokatu nituen, eta handik Beasainera joan nintzen. Beasaingo azken urtea min hartuta egin dut, orkatilan ebakuntza egin zidaten eta ez nuen futbola horrela utzi nahi. Horregatik erabaki dut Aretxabaletara etortzea.

### Kategoriako beteranoetakoa izango zara.

Bai, zainetan daramat futbola, eta kosta egiten da azken erabakia hartzea. Fisikoki ondo nagoen bitartean jarraitzeko asmoa dut. Hori bai, denboraldi bat fisikoki justu samar amaitzen dudanean ez dut zalantzarik izango.

### Zeure kirol ibilbidea errepatatuta, bigarren b mailan egonkortzeko urte on bat falta izan zaizu.

Bai, nik ere hori uste dut. Askotan esan ohi dut futboleko zortea aldeko izatea oso garrantzitsua dela, eta nire kasuan, bigarren b mailan egon naizen bakoitzean ez dut zorterik izan. Nire kirol ibilbidea, azken batean, hirugarren mailako taldeetan egin dut.

### Mondrako jokalaria ohia, Aretxabaleta aukeratu duzu. Lagunen artean



Oxel Apraitz, Aretxabaletako aurkezpenean. | J. JARANTZABAL

### "Hirugarren mailako jokalaria izan naiz, bigarren B mailan ez nuen zorterik izan"

### "Urteekin abiadura galtzen da, baina ez errematatzeko gaitasuna"

### "Igor Arenatzak konbentzitu nator Aretxabaletara, talde ona da"

### jasan beharko zenuen adar jotzeren bat edo beste...

Bai, honezkero entzun behar izan zut zer edo zer (Barre). Aretxabaletaren aldeko erabakia hartzeko arrazoi garbi bat egon da, Igor Arenatzak hiru urte daromatza ni konbentzitu nahian. Denboraldia amaitu berri azken urteotan Arenatzaren deia jaso dut, eta hirugarren mailan jarraitzeko aukeraren bat banuen ere Aretxabaletara etortzea erabaki dut. Talde aproposa da, jokalaria gazte eta onak dituzte eta urtero-urtero goialdean dabilen taldea da. Eta, etxetik gertu dago, gainera (barre).

### Kategoriako beteranoetakoa izango zara.

Bai, zainetan daramat futbola, eta kosta egiten da azken erabakia hartzea. Fisikoki ondo nagoen bitartean jarraitzeko asmoa dut. Hori bai, denboraldi bat fisikoki justu samar amaitzen dudanean ez dut zalantzarik izango.

### Hirugarren mailan erremate azkarreko jokalaria zinelako egin zinen ezagun. Azkartasun hori mantentzen duzu?

Baietz espero dut (Barre). Garbi dago urteek aurrera egin ahala abiadura galdu egiten dela, baina ez dut uste ondo errematatzeko gaitasuna galdu dudanean. Dena dela, zelaian ikusiko da hori.

### Defentsekin borroka egiten ikusiko zaitugu, behintzat.

Hor bai, ez dago zalantzarik. Beti gustatu izan zait defentsekin lehian ibiltzea, ez dut jokalariekin talka egiteko beldurrik, eta orain ere berdin jarraituko dut.

### Eta ze asmorekin hasiko duzue denboraldia?

Taldeak ez dakit ze helburu izango duen, baina nik behintzat aurrean ibiltzeko egingo dut lan. Ez dakit hirugarren mailara igotzeko moduan egongo garen, baina azken jardunaldira arte helburu hori lortzeko borrokan ibiltzea polita izango litzateke.

### Amaitzeko, Mojategi ez, baina Atxabalpe ondo ezagutzen zenuen. Ze oroitzapen duzu?

Oroitzapen mardoa dut, orduko lagunena. Egia esan, Atxabalpe futbol zelai ederra zen. Tamalez zelai artifizialean jokatu dugu gaur egun, baina belar naturala modukorik ez dago.





Arrasateko kaleetan egindako pintura lehiaketa. | JOSETXO ARANTZABAL

# Pintatzen ikasteko aukera aurten ere Kulturaten

## Astlehenean zabalduko dute izen-ematea

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Amaia Bengoa irakaslearen eskutik pintatzen ikasteko aukera eskainiko dute aurten ere Kulturaten. Ikastaroa irailaren 19an hasiko da eta izen-ematea aurrez zabalduko dute: datorren astean izango da.

### Hainbat talde

Ikastaroa hiru taldetan banatuko dute: alde batetik, helduen taldea egongo da, hiru orduko ikastaroak

izango dituzte astean; meek, oster, ordu eta erdiko ikastaroak izango dituzte astean; zapatuetan, berriz, bi orduko ikastaroak eskainiko dituzte.

Prezioak izango dira 137 euro helduendako; 70 euro umeendako; eta 92 euro zapatuetan.

Ikastaroak irailean hasi eta ekainera arte izango dira, eta ordutegia dagoeneko zehaztuta dago: lanegunetan 17:00etatik 20:00etara izango dira eskolak

eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

### Izen-ematea, astlehenean

Irailaren 12tik irailaren 16ra izango da izen-ematea. 17:00etatik 19:00etara Kulturateko Pintura gelara joan beharko da izena ematera (sarrera Seber Altube plazatik).

Amaia Bengoa pintura irakaslea Arte Ederretan lizentziaduna da. Azaldu du ikastaroan

izena emateko behar den bakarra 7 urte beteta izatea dela, ez dela beste ezer behar. Hau da, ez dute pinturan trebetasun jakinik eskatzen ikastaroan parte hartzeko.

"Normalean, ikastaroetara etortzen den jendeak ez du ezer jakiten, etorri eta hemen ikasten dute", azaldu du Bengoak trebetasunen gainean galdetuta.

### Marrazketarekin hasi

Ikasleek olioia egin gura izaten dute normalean. Ikastaroan, baina, denetik ikasten dute. "Akua-rela, olioia, akrilikoa... hainbat teknika ikasten ditugu", dio Bengoak. Horren harira azaldu du lehenengo marrazketarekin hasen direla eta ondoren gainerako teknikak lantzen dituztela.

Umeen kasuan ere teknika guztiak ikasten dituzte eta trebetasuna hartzen dutenean olioia egiten dute gehien.

Amaia Bengoak urte mordera daramatza pintura eskolak ematen: "93-94 ikasturtean hasi nintzen eta ordutik hona nabil ikastaroak ematen", dio. Urte hauetan guztian ikasle asko pasatu dira Bengoaren pintura eskoletatik. Datu moduan, Bengoak dio urtean 180 ikasle inguru izaten dituztela Kulturaten.

### Ikastaroa eta erakusketak

Ikastaroan ikasitakoarekin eta urtean zehar egindako lanekin erakusketa egiten dute ekain aldean. "Iaz, ikastaro amaieran, erakusketa jarri genuen kalean, egubakoitz arratsalde baten. 50-60 koadro jarri genituen ikusgai, kalean, eta jende asko joan zen lanak ikustera", dio Bengoak.

Alde horretatik, ikastaroak izaten duen harrerarekin pozik dago Bengoa irakaslea. Orain, jendea animatu gura du ikasturte berrian izena emateko.

## Kooltur Ostegunak ekimenaren lehenengo saioa urriaren 6an

Lehenengo urteko arrakastaren ondoren, ikasturte berriarekin batera itzuliko da Kooltur Ostegunak ekimena. Hain zuzen, urriaren 6an Atom Rhumba taldeak egingo du lehen kontzertua. Orain arte bezala, 22:00etan izango dira, bost euroren truke. Askotariko estiloez gozatzeko aukera egongo da Arrasateko gaztetxean.

## Adierazpen askatasunaren aldeko eguna irailaren 17an

Adierazpen askatasunaren aldeko eguna ospatuko dute datorren zapatuan gaztetxean. Koadrila batek *Euskal presoak Euskal Herrira* jartzen zuen maindire bat erakusteagatik 8.000 euroko isuna jaso zuen Espainiako Poliziaren aldetik. Kontzertuko sarrerak 5 eurotan jarri dituzte salgai Taura eta Iluntzen. 22:00etan izango da.

## Gerra eta emakumeak batuko dituen lana prestatzen dabilta

Intxorta 1937 kultura elkarteak emakumeak eta gerra lotuko dituen dokumentala prestatzen dabil. Gerra garaian emakumeek zer egin zuten azaltzea da asmoa, euren ikuspuntutik. Julia Monge elkarteko kideak Arrasate Irratian azaldu du dagoeneko hamar elkarrizketa inguru egin dituztela eta asmoa dela beste pare bat egitea. Dokumentala aurten bukatzea espero dute.

## Udako zinema zikloaren azken filma 'Noche loca' izango da

Monterron parkean gaur, egubakoitza, *Noche loca* filma eskainiko dute, 22:30ean. Shawn Levy zuzendariaren komedia da, eta 7 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Steve Carell eta Tina Fey dira filmeko protagonistak. Senar-emazte batzuen istorioa kontatzen du filmak.



DAVID HERRANZ

## Gose hirukotea Katalunia aldean

Kataluniako Vic herrian urtero ospatzen den Mercat de Musica Viva (MMVV) azokan kontzertua eskainiko du Arrasateko Gose taldeak. Irailaren 14tik 18ra izango da jaialdia, aurten 23. edizioa. Gosek irailaren 16an, egubakoitza, eskainiko du kontzertua El Sucre agertokian, 01:00etan. Bestalde, irailaren 17an, zapatua, Bartzelonako Euskal Etxean eskainiko dute kontzertua arrasatearrek, 20:00etan (5 euro).

## Portaloia taldeak plazako dantza tradizionalen ikastaroa antolatu du

A.E. | ARRASATE

Euskal Herriko eta Europako plaza dantzak ikastea eta, oro har, ondo pasatzea izango da ikastaroaren helburua. Portaloia taldeak azken urteetan antolatu izan duen moduan, aurten ere 29 saioko ikastaroa antolatu du. Helduei zuzenduta dago.

### Ikastaroa astelehenetan

Ikastaroa urriaren 10ean hasiko da eta saioak astelehen iluntzeetan izango dira (ordua zehaztu barik). Izena AEDn edo Gazte Bulegoan eman daiteke: 943 77 12 28 edo [aed@aedelkar-tea.com](mailto:aed@aedelkar-tea.com); eta 943 25 20 65 edo [gaztebulegoa@arrasate-mon-dragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mon-dragon.net).

Restaurante  
UGARAN  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA  
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56



# Gaztetxeko 75 gazte gehituko zaizkio nagusien danborradari

Berreskuratu egingo da San Martinen gurutziltzatzea, Gabero abesbatzak antzeztuta; bestalde, azoka bihar, zapatua, izango da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

San Martin jaien atarian gaude eta asteburuan bertan hasiko dira egitarauaren barruko ekitaldiak. Hain justu, bihar, San Martin feria izango da.

10:00etan irekiko dute barazki, fruta eta gazta azoka. Euskal Herriko hainbat lekutako ekoizleak etorriko dira eta barazki, fruta eta gazta erakutsi eta salteaz gain, urtero egiten den lehiaketan ere hartuko dute parte. Barazki eta fruta postuak San Martin plazan jarriko dituzte eta gazta, berriz, Munibe plazan. Sari ematea 13:30ean egingo dute, San Martin plazan.

## Ekitaldi gehiago

Esandako postuez gain, Sebastian Imaz, Pello Urtzelai eta Jon Leturia harakinek emandako Bergarako odolosteak dastatzeko aukera ere egongo da, San Martin plazan, 12:30ean hasita.

Bestalde, kaleko giroa gehiago alaitzeko Bergarako trikitilariak ibiliko dira herriko kaleetan, 11:00etan hasita.

17:30ean, gaztetxoendako zezentxoak eta poneyak egongo dira Seminarioko jolaslekuan eta 19:00etan, Bergarako eta Iruñeko erraldoi, kiliki eta buruhandiek kalejira egingo dute Udala Txistulari Bandaren eta Elgoibarko dultzaineroen laguntzarekin.



Gazteak martitzeneko entseguan, Martinez de Iralako gimnasioan. | GOIENA

Egunari amaiera emateko, Bergarako Turboshit eta Hardflip taldeek kontzertua egingo dute San Martin plazan.

## Gaztetxeko 75 lagun

Eguenean, hilak 15, izango da nagusien danborrada, 22:30ean. Berrikuntza azpimarragarria du

aurten: gaztetxeko 75 gazte osatutako konpainia berri batek hartuko du parte. Mahoizko praketa eta gaztetxeko kamisetarekin aterako dira eta kapitaina, bandera... konpainia osatzen duten elementu guztiak izango dituzte. Erabiliko dituzten danborrei dagokienez, Arrasateko SUCD elkarteak lagatakoak dira, Udalak ez ditu-eta hainbeste lagundako. Gaztetxekoarekin batera aterako dira: Aritzeta, Barrrikak, Banda, San Joxepe, Herriko danbor-jotzaileak, Artatse, Sustarberri, Zuloa, Urdinak eta Lasai-Toki.

Bestetik, berreskuratu egingo da -iaz ez zen egin- San Martinen gurutziltzatzea, eta Gabero abesbatzako kideek antzeztuko dute.

Aurten, danborradaren bukarran, San Martin, Pertxa eta Lasai-Toki martxak joko ditu bandak San Martin plazan. Eta, horrekin batera, antzezen amaieran abes-

ten den San Martin ereserkia jantziago izan dadin, Aritzeta abesbatzari megafonia jarriko diotela aurreratu dute Udaletik. Era berean, herritarrek ereserkia abastera gonbidatu dituzte.

Umeen danborradari dagokionez, hilaren 16an, egubakoitza, izango da. 18:30ean abiatuko da, Musika Eskolako Bandak lagunduta, eta ohiko ibilbidea egingo du.

## Entseguak Seminarioan

Danborradetako entseguak dago-kionez, lehen bi entseguak Martinez de Irala erakikineko gimnasioan egin badituzte ere, eguaztena ezkerreko ohiko lekuan dihardute, Seminarioko zutabe patioan, hain justu. Izan ere, Aranzadi ikastolak atzeratu egin ditu han egitekoa den lanak.

Datorren asteko entseguak izango dira 12an, 13an eta 14an. Umeena 19:00etan eta nagusiena 20:00etan.

## Munduko jolas eta dantzekin gozatuko dute umeek 15ean

M.B. | BERGARA

Umeek ondo pasatzeko eta disfrutatzen aukera bikaina izango dute eguenean, hilak 15, Eidabe taldeak San Martin plazan, 19:00etan, egingo duen Kanpanolue. 11 salto gehiago izeneko berbenarekin.

Eidabe taldeko aktoreek dantzan, jolasean eta barrezka jarriko dituzte haur guztiak. Ikuskizun dibertigarria egiten dute eta umeak joko bizieta parte hartzerantz animatzen dituzte, baita dantzan egitera ere. Euren helburua da haur bat bera ere geldirik ez egotea.

Taldekiek diote munduko kultura ezberdinetatik ikasi dituzten dantza eta jolasak Euskal Herriko ume eta hain ume ez direnei erakustera datozela. Beraz, kulturartekotasuna landuz ondo pasatzeko aukera bikaina eskainiko die gaztetxoenei Eidabe taldeak.



Saioaren une bat. | GOIENA



Ondo pasa San Martinetan!

KONDE  
PANADEROKUA



Burdiñate 1 | 943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3 | 943 76 14 87  
BERGARA



Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behe  
943 76 59 54 BERGARA



# 'Monzon' pastoralean 3.000 lagun espero dira

Pastoral egunean egin beharreko hainbat zereginetarako herritarren laguntza eskatu dute

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Astebete geratzen da Telesforo Monzonen gaineko pastoralerako. Hilaren 17an da, zapatua, Seminarioko jolastokian. 3.000 ikusle espero dira, dena ondo bidean eta euririk egiten ez badu. Egunotan, azken prestaketetan dabilta.

Herritar askok dihardu lanean dena ondo irten dadin. Hala, Udalak, orain arte jasotako laguntza eskertu nahi izan du asteon egindako prentsaurrekoan, eta herritarrei eskerrak ematearekin batera, Kutzari eman duen diru-laguntza ekonomikoa eskertu dio eta Olaso Dorrea Fundazioari pleno aretoan irailaren 15etik urriaren 2ra bitartean egingo den Monzonen gaineko erakusketarako materiala utzi izana.

## Laguntza eske

Pastoral egunean bertan ere, hainbat zeregin izango direla adierazi du Jesus Elortza alkateak eta herritarrek laguntzen jarraitzea animatu nahi izan ditu. Besteak beste, lan hauek egiteko



Iruin, Abarrategi, Elortza eta Mendibil, Telesforo Monzon plazan. | E.A.

beharko da jendea: bazkaria zerbitzatu, sarrerak saldu, afaria zerbitzatu, afaltzeko tortilak egin, desmuntatu... Laguntzeko interesa duenak 943 77 91 81 zenbakira edo [mosa@goiena.net](mailto:mosa@goiena.net) helbidera idatz dezake.

## Sarrerak salgai

Pastoralerako sarrerak dagoeneko salgai daudela ere ekarri du

gogora Elortza alkateak. Debagoienean zein hiriburuetan daude salgai.

Debagoienari dagokionez, leku hauetan eskura daitezke, 15 eurotan: Bergarako kultura etxean eta turismo bulegoan; Arrasateko AED elkartean; eta Oñatiko kultura etxean. 13 urtetik beharokoak doan sartu ahal izango dira.

## OHARRAK

### HIRU PEI LANPOSTU BETETZEKO AZTERKETA

Udalak egin du deialdia hilaren 21erako, 09:00etan, Udal Pilotalekuan.

### MAGALIREN ALDEKO ZOKKETA

Haren alde egindako zozketako lehen sariko (8.301) irabazlea oraindik ez da atera. Irabazleak azaroaren 8ra arteko epea du jasotzeko, Iratxo mertzerian.

### LEGAZPIRA MENDI MARTXA SAN JOXEPEREKIN

Irailaren 14an, eguaztena, egingo dute. 08:30ean abiatuko dira autobus geltokitik.

### 1971N JAIOTAKOEN IRTEERA ERRIOXARA

Irailaren 24an egingo dute. 09:30ean abiatuko dira Fraiskozuritik, eta 21:00etan itzuli.

Izena emateko azken eguna irailaren 8a da, Depor tabernan, 20 euro aurreratuta. Itzultzean, afaria egongo da Santa Ana elkartean.

### UDAL EUSKALTEGIKO MATRIKULA ZABALIK DAGO

Maila guztiak eskaintzen dituzte eta baita Boga autoikaskuntza ere. Orduzabala dute eta baita diru-laguntzak ere. Informazio gehiago eta izenematea 08:30etik 13:00etara eta 14:30etik 18:30era Irizar jairegian, 943 76 44 53 zenbakian eta [berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net) helbidean.

### AGORROSIN ITXI EGINGO DUTE GARBITZEKO

Hilaren 12tik 18ra egongo da itxita ekintza-gunea. Bihar eta etzi ere, barruko bi igerilekuak itxita egongo dira.

## Zeramika herritarrei gerturatzeko ate irekien jardunaldiak egingo ditu Xanti Arrietak gaurtik

Bolu kaleko 53. zenbakian duen tailerrean egingo ditu jardunaldiak. Interesa duena gaur hasi eta hilaren 30era bitartean, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara, joan daiteke Arrietaren tailerrera. Orduzabala ere dei dezake. Zeramika ezagutzera emateko asmoz antolatu ditu jardunaldiak artistak. Hala, haren tailerra eta obra ezagutzearekin batera, zeramikako teknika ezberdinetara hurbiltzeko aukera izango du ikusleak.



**ARKAUZ**  
MUEBLES  
ARETXABALETA

**ETXE MOBEL**  
ALTZARIAK  
ARRASATE



**ARKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
ARETXABALETA  
FAGOR  
banatzaile ofiziala

**ARKAUZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
ARETXABALETA  
expert  
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

**ARKAUZ**  
GRUPO  
ARETXABALETA 1950-2011 ARRASATE

60 urte baino gehiago



# Labegaraietako areto futbol txapelketak 25 urte beteko ditu

Aurtengo edizioa irailaren 24an hasiko dute eta zabalik dago izen-ematea

X.U. | BERGARA

Labegaraietako areto futbol txapelketak urteurren biribila beteko du aurten, eta torneo txukuna antolatuz ospatu nahi dute urteurren hori: "Denboraldian zehar badugu zer bait berezia egiteko asmoa", adierazi digu Pedri Zafrak, baina lehentasuna txapelketa abian jartzea da.

Dagoeneko zabalik dago izen-emate epea -hilaren 19ra arte- eta hurrengo egunean, hilaren 20an, talde bakoitzeko ordezkariekin batzarra egingo dute kultura etxean (19:30). Hala, izena ema-

teko talde bakoitzak 200 euro ordaindu beharko ditu Euskadiko Kutzako 3035 0009 12 0090033922 kontu korrontean.

## Hamabost talde, zenbateko ona

Txapelketa txukuna egite aldera zenbat talde behar dituzten galdetuta, hauxe dio: "Hamabost da kopuru ona, hori da gure helburua. Iaz 13 talde hasi ziren, baina talde batek bertan behera utzi zuen txapelketa. Hala, hamabost hamasei talderekin torneo polita egin dezakegu. Gehiago etortzen badira, ederto, baina ordutegi

aldetik nahiko justu ibiliko ginatekeen, partidu guztiak kantxa barruan jokatu nahi baditugu bai, behintzat".

Talde batzuetako ordezkariak dagoeneko baieztatu dute aurten ere Labegaraietan izango direla: "Iazko ligako eta kopako txapel-dun Alytis eta Errota-gain torneoan izango dira, seguru. Eta, horrekin batera, brasildarrez osatutako talde baten deia jaso dut, izena eman nahi dutela esanez.

Ez da izango kanpotarrez osatutako lehenengo taldea, azken



Errota-gain taldeak kopa irabazi du azken edizioan. | LABEGARAIETAKO ANTOLATZAILAK

urteotan bizpahiru talde egon dira-eta kanpotarrekin egindakoak, eta oso maila ona erakutsi izan dute, gainera: "Latindarrez osatutako talde bat izan dugu, eta baita arabiarrez osatutakoa ere. Azken horiek Zumarraga eta

Urretxu aldetik etortzen ziren, eta hirugarren egin zuten ligan, oso ondo jokatzen zuten".

Hala, txapelketan jokatzeko jartzen duten baldintza bakarra da jokalariek futboleko federatuta ez egotea.

## Manex Azula Innsbruken izango da, neguko Olinpiar Jokoetan

Manex Azulak joan den neguan Bartzelonan egin zuten snowboardeko Munduko Txapelketan parte hartu ahal izan zuen; orduan, inaugurazio ekitaldian Big Air jauzian estreinako saltoa egin zuen.

Urtarrilean, berriz, Bergarako rider gazteak -16 urte ditu-

beste aurrerapauso handi bat egin ahal izango du, Innsbruken (Austria) egingo duten neguko Olinpiar Jokoetan parte hartzeko aukeratu du-eta Espainiako neguko kirolen federazioak.

Hala, Azula bi modalitateetan lehiatuko da, *Sloop-Style* eta *Half-pipe* modalitateetan.



Manex Azula, urtarrilean, Bartzelonako hitzorduaren aurretik. | X.U.

## Pol-Pol Mendi taldeak Pirinioetara egingo du iraileko irteera

Irailaren 17ko eta 18ko asteburuan egingo dute Pirinioetara irteera. Hala, zapatuan 05:30ean hartuko dute autobusa, pilotalekuan. Izena emateko, astelehen, martitzen eta eguaztenean Pol-Poleko bulegoan egongo dira antolatzaileak (18:45-19:45). Telefonoa, ostera, 943 76 48 51 da.



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



**gelatzu**

Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51





## KARATE SHOTOKAN, KIROLA ETA ZERBAIT GEHIAGO

Karatea kirolik berebiziko eta osoenarikoa da, beste kirol asko baino onuragarriagoa baita alde fisiologikotik begiratu.



Umetatik



nagusietara

**1996a  
ezkero**

**BETI GAILURREAN**



Shotokan txapelketa



Euskadi, 21 urtez azpikoak



Gipuzkoako txapeldunak 2011



Euskadiko txapeldunak 2011

### Onenekin entrenatzen gara



Euskadiko Selekzioarekin: Joane Amasorrain, Jone Agirrezabal, Iker Osinaga eta Josu Zalakain. Baita Espainiako Selekzioarekin ere.



## Zatoz gurera, ez zara damutuko!

**SHOTOKAN Karate eskolak IRAILAREN 12an hasiko dira:  
Astelehen, asteazken eta ostiraletan.**

Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era Nagusiak: 19:30etik 20:30era  
2. txanda, 18:30etik 19:30era

Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora, bergarako.shotokan@gmail.com helbidera idatzi edo zatoz Bergarako Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasia orduetan.





Mendiko kalea auto bakarrek; udaltzainak isunak ipintzen hasi dira. | MIREIA BIKUÑA

# Isunak Mendiko kalean aparkatzen duten guztiei

## Udaltzainek gogorarazten dute "oinezkoendako kalea" dela eta "ezin direla" autoak aparkatu

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Irailaren 1etik ezingo da autorik aparkatu. Oñatiko udaltzaingoa zioen kartela ipini zuten abuztu bukaeran Mendiko kalearen sarreran. Ordutik hona, kalea hutsik dago. Ez dago autorik. "Zorrotz ipiniko gara gaizki aparkatzen duten autoekin. Herritarrek jakin behar dute Mendiko kalea oinezkoendako dela eta bizilagun askok garajea dutela han", esan digute Udaltzaingotik.

Orain dela hilabete batzuk, aurreko udalbatzak piboteak jartzeko erabakia hartu zuen hango bizilagun batek egindako eskaerari erantzunez. Oraingoz, ez dituzte piboteak ipiniko. "Hidraulikoak ipiniz gero, garajea duten

bizilagun guztiei eman beharko genieke giltza, eta hori guztiori kontrolatzea oso zaila izango litzateke", diote.

Hori horrela, isunak ipintzen hasteko neurria hartuko dute.

Azken egunetan auto kopurua jaitsi egin dela nabaritu dute hango bizilagunek eta dendariak. "Egia esan, ohitura txarra da leku guztietara autoarekin joatea. Pertsona batzuek beharrezkoa

dute, baina badaude batzuk dena barruraino autoa sartuko luketenak", esan digu Osi dendako Jose Luis Osinagak. Gaineratu digu azken egunotan "auto gutxiago" dagoela. "Gure dendak sarrera dauka Mendiko kalean, eta atzealdean erakusleihoa. Han marra horia margotu dute, eta espaloi gainean aparkatzearen isunak ipintzen hasi dira", dio.

### Denbora kontrolatu

Iritzi bera du Garai harategiko Agustinek. Dena den, haren ustez, autoa zenbat denbora uzten den neurtzea da inportantea. "Kale Zaharra oinezkoendako bidea da, eta autoa uzten dutenek 5-10 minutuz uzten dute. Mendiko kalean badaude auto batzuk egun askoan mugitu barik egoten direnak. Beste batzuek, aldiz, denbora laburragoa egiten dute: erosketak autotik jaisteko edo etxera sartu-irtena egiteko. Denbora hori kontrolatzea da gakoa. Baina nola?"

Udaltzainen zorrotasuna eskertzen dute. "Autoarekin kale barruraino sartzen direnak betikoak dira. Lehen isuna hartzen dutenean, kontu handiagoz aparkatuko dute", diote.

### Gauetan, auto gehiago

Mendiko kaleko bizilagunek Udalari helarazitako kexei erantzuna ematearren hasi dira isunak ipintzen. "Guk eskatzen duguna da behin betiko irtenbide bat ematea kalean dugun arazoari. Azken egunotan isunak ipintzen hasi dira, eta nabaritzen dugu auto gutxiago daudela. Baina gauetan udaltzainik ez dagoenean, autoak egoten dira", esan digute.

Euren ustez, kontrol zorrotza egiten duten bitartean, arazoa arindu egingo da, "baina zorrotasuna jaisten dutenean, lehengo egoerara itzuliko gara".

Bizilagun askok autoa garajeen sartzeko arazoak izaten dituzte. "Garajearen sarreran dauden autoek maniobra asko egitera behartzen gaituzte. Kalea estua da eta ume asko ibiltzen da. Arriskutsua da oinezkoendako eta autoekin ibiltzen garenondako", diote.

## Igeriketa ikastaroetako izen-ematea hilaren 12tik 16ra arte

Kiroldegiko igeriketa ikastaroetan eta ur-ekintzetan parte hartu gura dutenek hilaren 12tik 16ra eman beharko dute izena, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. 0-8 urte arteko neska-mutikoen gurasoek kiroldegiko bulegoan eman beharko dute izena igeriketa irakaslearekin batera. Behin betiko zerrendak hilaren 27an kaleratuko dituzte eta ikastaroa urriaren 17an hasiko dute.

## Elkarretaratzea egingo dute gaur Arantzazun, 11:30ean

Arantzazuko Amaren eguna dela-eta, elkarretaratzea deitu dute gaurko Arantzazun bertan. Euskal preso politikoen senideak eta lagunak 11:30ean bilduko dira Basilikaren aurrean euren aldarrikapenak egiteko: euskal presoen eskubideen eta larriki gaixo daudenak eta zigorra bete dutenak etxera ekartzearen alde egingo dute, eta banaketa krudela bukatzea eskatuko dute.

## Gimnasia erritmikoko ikasturtea hilaren 13an hasiko dute

Aloña Mendiko kirolarietako batzuek hasi dituzte ikasturteak. Gimnasia erritmikoko denboraldia martitzenean, hilaren 13an, hasiko dute. Iazko ordutegi bera izango dute: martitzenetan eta egunetan 16:45ean, 17:40an eta 18:35ean. Adinaren arabera banatuko dituzte neskek, eta askotariko koreografiak landuko dituzte ikasturte bukaerako erakustaldia egiteko. Visi Gutierrez eta Lide Osinaga izango dira irakasleak. Osinaga txikienekin ibiliko da.

### ESANAK

**"Herritar batzuek denda barruraino sartu gura dute autoarekin"**

JOSE LUIS OSINAGA | OSI DENDA

**"Denbora kontrolatzea da gakoa; autoa zenbat denbora uzten den"**

AGUSTIN GARAI | GARAI HARATEGIA

## "Irudi klasikoa da, eta aldi berean berritzailea"

Leire Mugartzak egindako irudian baserriarren lepoko eta buruko zapiak eta txapela dira nagusi

M.B. | OÑATI

Gorri kolorea eta baserriarren lepoko eta buruko zapiak eta txapela izango dira protagonistak San Migeletako jai egitarauko azalean. Irudi horrekin irabazi du Leire Mugartzak Kultura Sailak deitutako lehiaketa. 350 euro jaso ditu. Egindako irudia egitarauan eta jaietarako egingo dituzten zapietan ipiniko dute. "Lehen aldia da halako lehiaketa baten parte hartzen dudana, eta ilusio handia egin dit irabazteak", esan

zuen Leire Mugartzak. Ze irudi egin erabakitzeke orduan esan zuen aurreko urteetan egindako azalak hartu zituela kontuan: "Ikusi nuen txantxikua behin eta berriz agertzen zela, eta erabaki nuen bestelako irudia egitea. Jaietako egun bakarra aukeratu nuen, eta Herri Egunekeo adierazgarriena hartu nuen: baserri-tarrak. Lehen zirriborroan baserriarren lepoko eta buruko zapiak eta txapela margotu nituen. Beste hainbat zirriborro egin nituen,



Leire Mugartza eta Manu Egaña, jaietako irudiarekin. | MIREIA BIKUÑA

baina, azkenean, lehena aurkeztu nuen", esan zuen.

Manu Egaña Kultura zinegotziak esan zuen Leire Mugartzaren irudia aukeratu zutela "klasikoa eta, era berean, berritzailea" zelako.

Helduen mailan 14 lan aurkeztu zituzten, eta umeen mailan zortzi. "Umeen mailan parte hartu duten guztiei oparia emango diegu: Arrikruzerako sarrera, bisera eta liburuxka jasoko dute", esan zuen Egaña.

### Jaietako zapiak

Bestalde, esan zuen Mugartzak egindako irudia jaietako zapietan ipiniko dutela. "Herriko tabernetan eta txosnetan egongo da salgai. Gure asmoa da 3.000 bat zapi egitea. Baina harrera ona badute, akaso gehiago egin beharko ditugu.



# Atzeko kalea kolorez jantziko da domekara arte

Sokamuturra, txirrindulari proba, mariachiak, piroteknia saioa eta rock kontzertua izango dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Atzeko kaleko jai batzordeak gertu du aste bukaerako egitaraua. Festak izango dira protagonista gaurtik domekara arte: kolorea eta musika izango dira nagusi. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte: rock kontzertua, piroteknia saioa, sokamuturra, mus txapelketa, zinta eta txirrindulari lasterketak...

Jaiak 16:00etan hasiko dituzte etxafuego jaurtiketarekin eta tradizio bilakatu den zinta lasterketarekin. 17:00etan umeendako jolasak egingo dituzte. Atzeko kaleko txorimaloak eta erraldoiak kalerik kale ibiliko dira, 19:00etan hasita. Gero, poteoa egingo dute eta 22:30ean rock kontzertua: Los Galerna, Skaketian eta Skapando dira gonbidatuak.

## Mariachiak

Biharko ekitaldiak auzoko hildakoen omenezko saldarekin hasiko dituzte. 17:30ean Arno etxeko sokamuturrak eta poneyak



Ziklistak, iaz, Atzeko kaleko proban. | JOSETXO ARANTZABAL

egongo dira. 19:00etatik 20:30era arte garagardo dastatzea, txorimaloen kalejira eta poteoa egingo dituzte, 23:30ean piroteknia saioa eta zezensuzkoa eta 00:00etan Chuchin Ibañez mariachiaren emanaldia.

Domekan, berriz, herriko neska-mutiko asko batzen dituen txirrindulari proba egingo dute, 16:30ean. Ziklista onenek opariak

jasoko dituzte. Aurretik, 15:30ean, mus txapelketa egingo dute Galizia tabernan. 18:30ean txorimaloek eta erraldoiek kalejira egingo dute eta 20:00etan erromeria.

Jaiaren azken txanpan, Atzeko kaleko saskiaren zozketa egingo dute. 00:00etara arte musika izango da nagusi eta ordu horretan etxafuego jaurtiketa egingo dute jaiari bukaera emateko.

## Gazte mailako ziklista onenak San Migel sarian lehiatuko dira

M.B. | OÑATI

San Migeletako lehen kirol proba aste bukaeran egingo dute. Hain justu ere, gazte mailako ziklistak lehiatuko dira domekan San Migel sarian. 10:30ean irtengo dira Unibertsitate etorbidean jarritako irteera puntutik eta 88 kilometro egin beharko dituzte.

Egingo duten ibilbidea izango da: Oñati-Zubillaga-Bergara-Osintxu-Bergara-Oñati-Olabarrieta-Udana-Motxorro-Aztiria-Ergoien-Zerain-Uarketa-Aztiria-Motxorro-Udana-Oñati-Olabarrieta-Oñati-Zubillaga-Torrauzo-Zuazola-Santipillau baserria-hilerria-San Juan kalea-Foru plaza.

## Afizionatu mailakoak

Bestalde, hilaren 17an afizionatu mailako ziklistak izango dira protagonista. 23 urtez azpiko ziklistek Oñatiko 24. sarian parte hartuko dute. Guztira, 98 kilometro egingo dituzte, Unibertsitate aurretik irtenda (09:30). Oñatitik Legazpi aldera egingo dute. Udana eta Aztiria igo ondoren, Elorregin Epele aldera hartuko dute eta Kanpanzar igoko dute. Bergara aldetik sartuta, Torrauzo aldean egingo dute eta, Santipillau baserriko aldapa igota, hilerriatik helduko dira helmugara.

Bi proba horietan Aloña Mendiko ordezkariak parte hartuko dute.

## OHARRAK

### DEIALDIA

Odol-ateratzea egingo dute egubakoitzean ikastolan, 18:00etatik 20:00etara arte. Hurrengoak egingo dituzte urriaren 7an, azaroaren 11n eta abenduaren 9an.

### KIROLDEGIKO ORDUTEGIA

Dagoeneko neguko ordutegia dute kiroldegian: asteleheneetik egubakoitzera 07:30etik 21:30e-

ra arte; zapatuetan 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:30era arte; eta domeka eta jaieguetan 09:00etatik 14:00etara arte.

### TRASTE ZAHARRAK

Hileko eguen guztietan batzen dituzte etxeko traste zaharrak. Materiala dutenek 943 71 19 38 telefonora deitu beharko dute.







Gaztetxoak Aretxabaletako kalean. | M.A.

# Gaztetxoen gaueko aisialdia laster abian

15 eta 16 urteko gazteek ekintza bat izango dute hileko zapatu gau baten; lehenengoa Galartzara

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gazteria Zerbitzuak eta Loramendi elkarteak gaztettoendako gaueko aisialdia antolatu dute. Irailean hasi eta abendura arte, hileko zapatu gau baten ekintzak izango dituzte 15 eta 16 urteko gaztetxoek -DBHko 3. eta 4. mailakoak.

"Tabernetatik aparte gazteek eskaintzarik ez dutela entzun ohi dugu sarri, eta adin horretako

gazteekin egindako kontsulta baten ondoren egitasmo hau proba gisa jarri nahi du abian Udalak", dio Maider Etxanizek, Gazteria teknikariak. Hala, zein helbururekin antolatu duten argitu du: "Tabernen aurrean, aukera osasungarria eskaintzeko; beste kontsumo batzuetatik aldentzeko; gazteen arteko harremanak bultzatzeko; eta gazteen parte-hartzea bultzatzeko". Hain zuzen,

ekainean egin zuten batzarra gaztetxoekin, eta han jasotako iritzi eta nahiak kontuan hartuta antolatu dute gaueko aisialdia. Irailaren 16an hasi eta abendura artean egingo dute proba, askotariko ekintzak antolatuta.

**Galartzara gaua pasatzera**

Gazteekua izango dute topaleku, eta ordutegia honakoa: 22:00-01:00. Hala ere, ekintzaren arabera

## GAUETAKO JARDUERAK

**IRAILAK 17-18:**

Galartzako etxera gaua pasatzera.

**URRIAK 22:**

Izotz pistara irteera.

**AZAROAK 19:**

Kontzertua.

**ABENDUA:**

Beldurrezko filmak, jaialdia...

moldatu egingo dute. Bertan bi lagunek egingo diete harrera eta gaztetxoekin egingo dira.

Gazteek eurek adostu eta antolatuko dituzte jarduerak. Besteak beste, honakoak izango dira: sukaldaritza; jarduera artistikoak; teknologia berriak; kontzertuak; umorea; filmak; jolasak: mahai futbola, ping-ponga... "Oraingoz, hiru ditugu zehaztuta, baina horiek ere aldatu egin daitezke gazteekin berba egin ondoren", dio Etxanizek. Hala, irailaren 16tik 17rako gaua Galartzan emango dute; urriaren 22an izotz pistara joango dira; azaroaren 19an kontzertua izango dute; eta abenduan, oraindik zehaztu barik dagoen jardueraren bat egingo dute: beldurrezko filmak ikusi, jaialdia egin...

Ekintza batzuetarako aurrez eman beharko dute izena gazteek; Galartzako irteerarako, esaterako. Goizez Gazteria Zerbitzura jo dezatela -Arkupen- eta arratsaldez Loramendi elkartera. Azken eguna irailaren 14a da.

## Txarapeako etxeen lanak sinaduraren zain daude

M.A. | ARETXABALETA

Uztail bukaeran iragarri zuten Txarapea ibilbideko bi etxe blokeak bukatzeko akordioa iritsi zirela Bruesa enpresa eraikitzailea, administratzaile konkurtsala eta Kutxa. Akordioa iritsi bai, baina ez zuten ezer sinatu orduan, ezta abuztuaren ere, eta, lanak irailaren 1ean jarraituko zituztela esan arren, oraindik geldirik daude. "Akordio hura ez zegoen sinatuta. Jabeok baditugu hamaika arrazoi mesfidantza izateko, eta, oraingoan ere, akordioa abuztuaren 15a baino lehenago sinatuko zutela esan bazuten ere, ez dute bete", dio Amaia Arroyok, dio Amaia Arroyok. Kutxako estamento gorenak akordio hori onartu egin zuela jakin zuen joan den astean Arroyok, eta atzo, irailak 8, zirela sinatzeak, "baina jakin ez seguru".

**Urtea bukatu aurretik**

Behin akordioa sinatuta epaile batek eman behar dio oniritzia, eta ondoren etorriko dira langileak lanak bukatzea. 1. eta 2. zenbakietako blokeak bukatu behar dituzte, 32 etxebizitza bakoitzean. "Lanak lehenbailehen hastea gura dugu, urtea bukatu aurretik amaituta izateko, eta, hala, BEZaren murrizketa aprobetxatu", dio Arroyok. Lasaitu ederra hartuko dute jabeek giltzak esku artean dituztenean.

## Kataluniara joateko izen-ematea zabalduko dute Basotxon

Katalunia aldera joango dira Basotxo erretiratuen elkarte-kideak urriaren 13tik 20ra: Lloret de Mar, Tossa de Mar, Bartzelona, Roses, Montserrat... Izena datorren astean eman behar dute interesatuek Basotxon (11:00-12:00): hilak 12, 13 eta 14. Bidaiaren kostua 425 euro da.

## Immigrazioaren gainean jardungo dute Basotxon, eztabaida mahaiak osatuta

Sasoi bateko immigrazioa aztertu eta oraingoarekin alderatuko dute

M.A. | ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarte-kideek eztabaida mahaiak antolatu jarraituko dute udazkenean, eta immigrazioa da esku artean izango duten lehenengo gaia.

Oraindik data zehaztu barik izan arren, datozen asteotan osatuko dute mahaiak.

"Orain dela urte asko etorri ginen batzuk Aretxabaletara, eta oraindik hemen gaude orduan

iritsitako asko. Orain beste batzuk datoz; urrutitik, gainera. Oraingo egoera eta guk bizi izandakoa ezberdinak dira, baina uste dugu interesgarria izango dela gure etorrera zelakoa izan zen aztertu eta biak alderatzea: zelan iritsi ginen, zergatik, zelan sentitu ginen, zelako harrera egin ziguten...", azaldu du Basotxo elkarte-kide eta eztabaida mahaien sustatzaile Pedro Etxebarriak. Hala, bada, Aretxabaletan 50, 60, 70eko... hamarkadetan izandako immigrazioa aztertuko dute datozen asteotan.

**Egungo etorkinen egoera**

Hori guztia aztertzeke zein prozesu jarraituko duten ere zehaztu dute. Hona: inkesta egin urte haieran Aretxabaletara etorritakoen artean; orduan bizi izandakoak eta sentitutakoak jaso, aztertu eta txostena egin; eta

ondoren eztabaida mahaiak osatu, aurretik egindako txosten horren gainean jardun eta iritziak agertzeko. Batzar horren akta jasoko dute, beti egiten duten legez, eta, ondoren, azterketa horretan parte hartutako guztiei erakutsiko dizkiete jasotakoak.

Behin hori guztia egindakoan egungo etorkinen egoera aztertzeke moduan izango direla uste dute antolatzaileek, eta aztertuko dituzten kontuen artean daude: harrera beroa jasotzeko duten beharra, etorkizunerako dituzten erronkak... "Egitasmoak guztiz positiboa eta eraikitzailea izan gura du, eta ez da gure asmoa zauriak zabaltzea eta erantzukizun edo errurik inorri leporatzea, ez pertsona, ezta inongo erakunderi ere", argitu du Etxebarriak.

**Eztabaida mahaiak lantzen**

Basotxon iaz hasi ziren eztabaida mahaiak osatzen, eta esperientzia polita bizi izaten dabilta. Norberaren iritzia errespetuz agertu eta gainerakoena entzuten ikastea dute helburu mahai horiek, eta hainbat gai landu dituzte: Udaleko kontuak, hauteskundeak, M-15 mugimendua...

PIENSOSS  
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56



Alberto Asensio | Aretxarte merkatarien elkarteko presidentea

## "Hirugarren Ixadebalde dator, harrera ona izan duelako beti"

- Orain urtebete antolatu zuten lehenengoz eta harrera ezin hobea izan zuten
- Hamabi postu izango dira Mitarte kalean, baita jatekoa eta edatekoa ere

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Orain dela urtebete antolatu zuten lehenengoz Aretxarte merkatarien elkarteak Ixadebalde azoka. Herri-tarrek egindako harrera ona dela eta, dagoeneko hirugarrenez egingo dute bihar, zapatua, Mitarte kalean.

**Orain dela urtebete lehenengoa antolatu eta martxa hartu duzue. Esperientzia ona izan zen, ala?**

Bai, benetan ona. Aretxabaletan sekula egin barik geunden merkealdien azoka eta zerbait egin guran antolatu genuen iaz, irailean, lehenengoz. Bertan parte hartu genuen merkatariok oso gustura geratu ginen bai egin ziguten harreragatik, bai salmentengatik, eta bihar hirugarrena egingo dugu.

**Orduan egondako merkatari guztiok errepikatuko duzue?**

Bueno, pare bat, Kioskoa eta Maria Jesus argazkilaria, ezin izango dira egon arrazoi ezberdinak direla eta, baina gainerakook bai. Aretxabaleta Kirol Elkarteko kideak ere izango dira, orain dela urtebete legez, txanpaina eta daukaten materiala saltzen. Udaberrian egindako bigarren azokarako postu kopurua handitu egin zen eta aurrerantzean ere ildo horretatik jarraituko dugulakoan gaude. Poliki-poliki animatuaz doaz gainerako merkatariak.

**Giro ona ziurtatuta dago, ezta?**

Bai, horixe. Eguraldia lagun izango dugu eta Mitarte kalean jarriko ditugu postuak. Orly tabernak edaria ekarriko du eta Gertuk jatekoa eskaini. Hori guztia musikak girotuta, eta gainerako merkatarien jeneroa oso prezio onean dela. Bertara datozenak eskertze-

**"Bezeroak eskertzeko afariak zozketatuko ditugu ilunkaran"**



Alberto Asensio, Aretxarte merkatarien elkarteko presidentea. | M.A.

ko, gainera, zozketa baterako txartelak banatuko ditugu, eta saria izango da hiru bikoterendako afaria Eguzki tabernan.

**Halako azoken beharra dago herri-tarrak erostera anima daitezen?**

Ez dakit ba... Ez dut uste merkealdien zain egoten direnik aretxabaletarrak, nahiz eta beti egon halakoak. Baina prezio onak jarriz gero, beti animatzen gara erostera, eta merkealdien azokek hori daukate. Merkatariendako ere aukera ona da atzera geratutako jeneroa kaleratzeko.

**Aretxarte merkatarien elkarteko presidente zara azken urteotan; zenbat urte dagoeneko?**

Ba... neuk ere ez dakit, baina asko bai. Hasieran, gainera, oso bakarrik nengoen eta elkarteak geldi egon zen. Orain, berriz, bost lagunek osatzen dugu zuzendaritza eta lanean gabiltza herriko merkataritzaren alde.

### III. Ixadebalde bihar Mitarten

Bihar, irailak 10, III. Ixadebalde azoka egingo dute Aretxarteko merkatariak Mitarte kalean –eguraldi txarrekin pilotalekuan– (10:00-20:00). Hona hemen bertan izango diren postuak: Zubia zapata-denda; Leintz mertzeria; Kilima eta Haurrak umeen arropa-dendak; Asensio, Zare eta Belar Meta arropa-dendak; Txilarra belar-denda; Brasileña kafetegia eta UDA. Horiek batera, Gertu janari dendak jatekoa eskainiko du eta Orly tabernak edatekoa.

## Autobusen ibilbideen proposamenak ikusgai daude

M.A. | ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 12, bukatuko da autobusen ibilbideen proposamenei iradokizunak egiteko epea. Arkupeko harre-ran daude ikusgai planoak eta argibideak, eta bertan bete behar da iradokizun orria.

**Azben geltokirik ez**

Udalak autobusen ibilbidea eta, ondorioz, geltokien kokalekua aldatuko du. Hainbat proposamen egin ditu eta behin betiko erabakia hartu aurretik herri-tarren iritzia jaso gura du.

Arrasatetik Eskoriatzarako autobusedako hiru proposamen egin ditu: hiru kasuetan kuartel zaharrea egongo da gelto-

kietako bat; bigarrena, Erreka-barren kalean edo Belorrieta auzoan; eta hirugarrena, Araba ibilbidean –orain dagoena.

Eskoriatzatik Arrasaterako autobusen ibilbidea ez dute aldatuko, baina Txarapeako geltokia Nafarroa kalera eroango dute, Belorrietako biribilgune ingurura.

Bestalde, Azbe lantegi pareko geltokiak desagertu egingo dira eta Donostiara eta Gasteizera doazen autobusak ez dira horietan geratuko, geltoki nagusietan baizik. Geltoki nagusiak erdigunean daudenak izango dira; hau da, Nafarroa kalean eta Belorrieta edo Erreka-barren kaleetan.

## Agorreko Andramaixak ospatzen dabilta Areantzan eta gaur afaria dute

M.A. | ARETXABALETA

Atzo hasi zituzten Andramaixak Areantzan eta aste bukaera osoan jarraituko dute ospakizunek. Gaur, esaterako, kanpai-joaldia (20:00) eta auzo-afaria (20:30) izango dituzte.

Bihar meza nagusia dute (12:00) Basotxoko abesbatzak lagunduta eta gero, mokadutxoa

auzoko jeneroarekin. Bazkaltzera joan aurretik 27. jinkana jolasa egingo dute eta arratsaldean (17:45) ere jolasak izango dituzte: musika jolasa, txapel-jaurtiketa... Eta bukatzeko, 26. aro-sartze txapelketa (20:00).

Domekan, osteran, Kurtzebarri eguneko ospakizunekin bat egingo dute.

### Kurtzebarriko eguna ospatuko du Murruxok domekan

Etzi, iraileko bigarren domeka, ospatuko dute, urtero legez, Kurtzebarri mendiko eguna. Murruxok Mendizale Elkar-teak antolatzen du azken urteotan, eta betiko egitarauari eutsiko diote: salda beroa tontorrean (10:30); meza (11:00); txorizo muturra eta txanpaina (11:30); eta bermuta Mendiola auzoan (13:00).

Aretxabaletako mendi kutuna izanik, herritar asko joango da Kurtzebarri, eguraldiak lagun egiten badu, behintzat. Murruxokoko kideek jakinarazi dute eguraldi onik ez bada go aldaketak egin ditzaketela iragarritako egitarauan.

### Pandero ikastarorako izen-emate epea zabalik dago

Loramendi Elkar-teak pandero ikastaroa antolatu du iraileko. Hilaren 15ean hasi eta urriaren 6a arte, egunenetan (18:30-20:00) emango ditu eskolak Lur Gurrutxaga aretxabaletarrak. Izena emateko Loramendira jo behar da eta azken eguna martitzena da, hilak 13; bazkideek 10 euro eta gainontzekoek 15 euro ordaindu behar dute.

Bestalde, irailaren 18an, III. ibilbide historikoari dago-kion bigarren zatia aurkeztuko dute. Goroeta –bertara automobilean joanda– eta Ugastegi auzoetan ibiliko dira bertako kontuak ikusi eta entzun bitartean.



ANTOLATZAILEA: LAGUNTZAILEA:



# IXADEBALDE

Aretxabaletako III. merkealdi azoka

Irailak 10, zapatua. 10:00etatik 20:00etara  
Mitarte kalean (euria eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan)

- SARI BEREZIAK BANATUKO DIRA

Orly  
Brasileña akeita etxea  
Zubia  
Kilima  
Txilarra  
Asensio  
Zare  
Haurrak  
Gertu  
Belar meta  
Leintz  
U.D.A.





Aurten ere spinninga egiteko aukera egongo da. | GOIENA

# Sasoian egoteko gimnasia eta total fit, jarduera berriak

Kirol eskaintza zabala gertatu dute, eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzan ere gertu dute ikasturte berrirako kirol eskaintza, eta, urtero moduan, berrikuntzekin dator. Lehorreko jardueri dagokienez, goi intentsitateko eta intentsitate ertaineko total fit jarduera egin ahal izango da aurten lehen aldiz. Norberaren egoera fisikoa eta gorputzeko tonu muskularra hobetzen laguntzen du; horretarako, oreka eta lan propiozeptikoa, mugimendu aerobikoa, sabelaldeko giharrak indartzeko ariketak, gorputz oso tonifikazioa eta luzaketak batuko dira arratsaldean izango den ordubeteko saioan.

Horretaz gain, sasoiaren egoteko gimnasia berreskuratzeak asmoa du Udaleko Kirol Zerbi-

## ESKAINITZA ZABALA

- ▶ Pilatesa
- ▶ 3. adinekoendako gimnasia
- ▶ Spinninga
- ▶ Adimen urritasuna dutenendako gimnasia
- ▶ Sasoiaren egoteko gimnasia
- ▶ Total fit
- ▶ Aguagyma
- ▶ Igeriketa helduendako
- ▶ Igeriketa umeendako

tzuen kudeaketa daroan Goiena Sport enpresak. Gainera, hirugarren adinekoendako gimnasia goizez ere saio bat jartzen ahalginduko dira. Enpresa horretako Bixen Calzonek azaldu digunez, pertsona nagusien behar espezifikoei erantzuteko gimnasia eskaintzeaz gain, gizarteratzea hobetzen laguntzen du jarduera horrek.

### Metodologia berria

Igeriketan ere aldaketak datoz. Calzonek azaldu du umei zuzendutako ludikotasunean oinarritutako igeri egiten ikasteko metodologia berria jarriko dutela martxan, monitore espezializatu berri batekin. Mailak izango dira: olagarroak, karramarroak, igelak,

## Aisialdirako zerbitzu gida

Kirol jardueraz gain, aisialdiarekin lotutako bestelako ikastaroak ere egin daitezke ikasturte osoan. Eskoriatzarrek horien guztien berri izan dezaten, Udalak 2011-12 aisialdirako zerbitzu gida atera du. Besteak beste, musika, dantza eta hizkuntza ikastaroen eta askotariko tailerren gaineko informazioa jaso dute argitalpen horretan. Udalak bakoitzaren beharretara egokitzen den jarduera aukeratu eta izena ematera animatu nahi izan ditu herritarrek.

amurrainak, izurdeak eta marrazoak. Maila bakoitzean helburu zehatzak landuko dira umeen ezaugarriak kontuan izanda. Honakoa esan du Calzonek: "Helburua da igeri egiten ikastea, baina jolasen bitartez".

Helduendako igeriketan has-tapen eta hobekuntza ikastaroak mantendu dira; eta aguagymean, goizean, 08:45ean, eta arratsaldean, 19:00etan, talde bana ateratzeko asmoa dute.

### Pilatesa, astean birritan

Bestalde, pilatesaren arrakastaren ondoren, astean birritan eskaintzea pentsatu dute. Bada, adimenaren eta gorputzaren arteko oreka du helburu jarduera horrek.

### Kobratzea, hiru hilean behin

Bestalde, kobratzeak hiru hilean behin egingo dira, kontu korrontearen bidez; lehenengoa azaroaren 6an pasako dute; bigarrena otsailaren 6an; eta azkena maiatzaren 6an. Ohikoa den moduan, abonatuak deskontu bereziak izango dituzte.

Jarduera horiek egiteko interesa dutenek kiroldegian dute izen-emate orria.

## NIRE USTEZ

TXOMIN AZPITARTE



## Aurtengo uda

Azkenaldian, ekonomia mamuarekin etengabe bonbardatzen gaituzte; mamu horiek eragiten duten bultzadetara mugiarazi nahi gaituzte, ziurgabetasun giroa sortuz. Horrekin batera, komeni da gogoratzea hori guztia egosten den Nazioarteko Diru Funtsa bezalako tokiak urrun geratzen zaizkigula.

Egunerokotasunak asmo handirik gabeko pozak ekartzen dizkigu; horietako bat abuztuaren herrian dagoen lasaitasuna eta sosegua da. Jende gutxi egoten da, eta hortaz, hiri-altzariak nabarmentzen dira giro horretan.

Herriko hainbat tokitan ondo zainduta dagoela nabarmentzen da; beste batzuetan, ordea, kontrakoagatik. Ez naiz ñabarduretan sartuko, baina berria zenean ezin hobeto bazegoen ere, gutxieneko mantenu sistematikoa ezinbestekoa dela ematen du. Degradazio horren atzetik eguraldia, erabilera edo bandalismoa egon daiteke; horrek kostu ekonomikoa eragiten du, gugandik gertuago dagoena. Guztion artean ordaintzen dugu, eta hortaz, guri modu onean mantentzea dagokigu, eta Udalari kudeaketa.

Horrekin guztiorrekin zainduago dagoen ingurunea sortzen dugu; hori, baina, guztion parte-hartzearekin lortzen da, norbaitek zerbait txarra egiten ari dela beste alde batera begiratuta ez dugu ezer lortzen. Erretiratuta gaudenok, denbora baldin badugu, hobetu daitekeena dago-kionari esan beharko genioke. Ondo zainduta dagoen inguruneak poza eragiten du; kontrakoak etsigarria da.

**"Hobetu daitekeena dagokionari esan beharko genioke"**

## Zabalik dago Leintz euskaltegian matrikula egiteko epea

M.B. | ESKORIATZA

Dagoeneko zabalik dago Leintz Udal Euskaltegian matrikula egiteko epea. Interesa izanez gero 943 79 21 68 telefono zenbakira deitu, [leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net) helbidera idatzi edo Intxaurtxueta duen egoitzara joan beharra dago, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etara 19:00etara bitartean.

Aurten ere euskaraz ez daki tenendako euskalduntze maila guztiak eskainiko dituzte han, eta baita euskaldunendako alfabetatze eta EGA mailak ere. Gainera, ikastaro bereziak ere egin ohi dira, euskalkiari buruzkoak, administrazioko hizkuntza eska-

kizunak lortzeko, dendari nahiz gurasoentzako, baita etorkin entzako ere. Ohiko ikastaro horiez gain, *on line* ikastaroa ere eskaintzen da.

### Langabeak eta ikasleak

Euskaltegitik azaldu dute langabeak eta ikasleak erdia ordainduko dutela, eta bekatze sistema ere eskainiko dela. Beka kobratzeko honako baldintzak bete beharko dituzte ikasleak: Eskoriatzako erroldan egotea, %90eko asistentzia izatea eta kurtsoa amaitzea eta kurtso bukaeran egiten diren probetan parte hartzea. Ordaindutakoaren %60a arte itzuliko da.

## Hilaren 27ra arte eman daiteke izena urritik ekainera egingo den helduendako pintura tailerrean

Aurten ere pintura tailerra egiteko aukera izango da. Urritik ekainera bitarteko zapatuetan egingo da, kultura etxean; hain justu, 14:30etik 17:30era. Udaletik jakinarazi dute dagoeneko zabalik dagoela horretan izena emateko epea; interesatuak irailaren 27ra arte apuntatu ahalgo dira, kultura etxean, 943 71 46 88 telefono zenbakian edo [kultura@eskoriatza.net](mailto:kultura@eskoriatza.net) helbide elektronikoan. Ikastaro horren prezioa 40 euro da, hiru hileko. Eskolak urriaren 1ean hasiko dira.

## Irailaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira Luis Ezeiza ikastetxeko etxebizitzarako eskaerak

Luis Ezeiza herri ikastetxean dagoen Udalaren jabetzako etxebizitza erabilera pribaturako esleitzeko dei egin dute osteraren egunak, Udalaren erregistro orokorrean. Aurkeztu beharreko agiriak edo argibideak jaso nahi dituztenek Udalera jo behar dute, udaletxera joanda edo 943 71 44 07 telefono zenbakira deituta. Emakidadunak herriko eskolako ingurua zaintzen lagundu beharko du.

**Villar**  
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA



# Matz-Erreka kooperatibaren 50 urteko ibilbidea batu dute liburu baten

Lau negozio-ildo ditu gaur egun enpresak eta horietako bakoitzaren historia biltzen da liburuan; martitzenean egin zuten aurkezpena, Torresoroan

J. IRIONDO / U. AGIRRE | ANTZUOLA

Bakoitzak 100.000 pezeta jarrita, Luzio Agirrezabal, Julian Alberdi, Asensio Azkarate eta Inaxio Aristik sortu zuten Matz-Erreka kooperatiba 1961ean, Bergarako Masterreka kaleko 20. zenbakian, Inazio Basterrak bere etxearen beheko solairuan utzi zien lokalean. Torlojuak eta automobilerako osagarriak egiten hasi ziren. Enpresaren jardura eta langile kopurua haziz joan zen etengabe; 1962an Bergarako Azkarruntz auzoko lokal batera joan ziren, eta 1967an Bergaratik Antzuolara etorri ziren, 57 langilerekin.

1969an Euskadiko Kutxan bazkidetzeko kontratua izenpetu zuten eta hori oso garrantzitsua izan zen kooperatibaren ibilbidean, une hartan sartu baitzen Arrasaten osatzen ari zen Mondragon enpresa taldean.



Liburua egiten parte hartu dutenak, aurkezpenaren aurretik. | MIRIAN BITERI

Kontu horiek, negozio desberdinen sorrera eta bilakaera eta beste jasotzen ditu hainbat argazkiz lagunduta atera duten liburuak.

## Pertsonen garrantzia

Gaur egun lau negozio-ildo ditu Matz-Errekak: ateetarako automatismoak, ate automatikoak, prezisiozko plastikoak eta finka-

pen elementuak. Azken negozio horretan 2000ko hamarkadan pauso inportanteak egin direla adierazi zuen liburuaren aurkezpenean Mila Retolatza finkapeneko zuzendari komertzialak, "sortu duten lantalde indartsutik hasita".

Etorkizuna oparua izan dadin Matz-Erreka "ondo kokatuta" dagoela adierazi zuen Jose Manuel Etxezarreta gerenteak. Guztiaren gainera pertsonen garrantzia nabarmentzen da 50. urteurrenko liburuan eta horixe nabarmendu zuen aurkezpenean gerenteak ere. Datozen urteetan Matz-Errekak "orain arteko merkatuetan" jarraituko duela esan zuen Etxezarretak, agian berriak ere agertuko direla, mundu osoan saldu beharko dituztela euren produktuak eta ekoiztu ere, bai hemen baina baita kanpoan ere.

Elkarlanean osatu dute 50. urteurrenko liburua. Sekzio bakoitzeko arduradunek idatzi dituzte bakoitzari dagozkien atalak eta Idazti enpresak egin du edukien koordinazio lana. Aurkezpena martitzenean egin zuten Torresoroan; 40 bat lagun bildu ziren bertan.

## Alegian emango dio hasiera futbol talde nagusiak aurtengo denboraldiari

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Etzi, domeka, 16:00etan, Alegia-ko Intxurren kontra jokatu du denboraldiko lehen partidua preferente mailako taldeak. Juanina Garai da aurten ere entrenatzailea eta haren helburu nagusia da zelaia irten eta disfrutatzea. Julen Losada, Asier Longares, Mikel Rodri-

guez, Isma Navas eta Jon Linaisoro dira jokalar berriak.

## Nesken talderik ez

Denboraldi honetan, preferente taldeaz gain, kadete eta infantil mailakoak izango ditu AKEk. Nesken talderik ez da egongo, 13k bakarrik eman baitute izena.

## Eskulan ikastaroan eta helduen heziketa iraunkorrean izen-ematea zabalik

U. A. | ANTZUOLA

Eskulan ikastaroan izen-ematea zabalik dago irailaren 19ra bitartean. Aurten bi ordu egongo dira: eguaztenetan 18:00etatik 20:00etara eta eguenetan 14:30etik 16:30era. Hileko kuota 24 euro izango da.

Bestalde, Xinkona dendan ere umeendako eskulan ikas-

taroak antolatuko dira. Urrian hasiko dira ikastaroak.

## Heziketa iraunkorra

Helduen heziketa iraunkorrean, gaztelaniazko alfabetatze, informatika eta ingelesa emango dira. Irailaren 14erako eman behar da izena udaletxean. Matrikula 24 euro da.



ANTZUOLAKO UDALA

## Txikizioak egin dituzte Olaranen

Olarango atzeko lehenengo atetik sartuta dauden gutunontzietan eta interfonoan txikizioak egin dituzte ezezagunek. Udalak oharra kaleratu du esanez "txikiziook bertako langileen jarduna oztopatu eta herriari galera ekonomikoa eragin beste ezer" ez dutela egiten. Egileei "egin dutenaz hausnartu eta beraien ekintzen ondorioen gaineko ardura hartuz egindako kalteak konpon ditzaten" eskatu die Udalak.

## Zuntz optikoa sartuko du Euskaltelek herrigunean

Joan den martitzenean egin zuten udalbatzarrak ohiko osoko bilkura. Bertan, udal gimnasioko tarifak aldatzea onartu zuten: bazkide plusa, ekintza plusa eta bazkide familiarra tarifak sortu dituzte, besteak beste. Bestalde, herrigunean zuntz optikoa sartzeko Euskaltelekin lankidetzeta hitzarmena sinatzeko proposamena onartu zen.

## Herriko hirugarren bira egingo du Arrolak domekan

Etzi, domeka, Antzuolako biraren hirugarren etapa eta azkena egingo du Arrolak. 09:00etan Olarandik irten eta ibilbide hau egingo dute: Oñati bidetik Korosora, Arrola, Kimuberri, Deskarga, Trekutz, Gorlako Aterpean bazkaria, Trekutz, Antzuola. Ibilaldia egiteko ez dago izena eman beharrik.

## OHARRAK

### GINNASIOKO EKINTZAK

Datorren astelehenean eguaztenera bitartean gimnasioko ekintza batzuk zabalik egongo dira nahi duten herritar guztiendako. Astelehenean fitness zirkuitua eta spinninga; martitzenean spinninga eta bosu-tonua; eta eguaztenean fitness zirkuitua eta spinninga. Irailaren 19ko astean hastapeneko doako pilates ikastaroak egongo dira.

### ERRIOXARA IRTEERA

Datorren irailaren 15erako -eguna- erretiratuek egun osoko irteera antolatu dute Errioxara. 09:00etan irtengo dira Antzuolatik.

### ORDU ERRESERBAK

Futbol zelaiaren eta pilotalekuaren ordu erreserba egiteko aukera dago irailean. Izen-ematea udaletxean edo [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net) helbidera mezua bidaliz egingo da. Orain arteko erabiltzaileek ere egin behar dute erreserba.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

### ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**



Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



# Atzo hasi zen ikasturtea San Martin eskolan

2 eta 12 urte arteko 140 ikasle izango dira aurten; irailaren 16ra arte, klaseak goizez bakarrik

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO  
Amaitu dira oporrak herriko txikiendako, atzo ireki zituen -eta ateak San Martin Herri

Eskolak. Araban gaur ez da jaieguna eta horregatik atzo hasi zen ikasturtea. Urte berriari lo aurpegi nabarmenekin ekin zioten batzuk eta beste batzuk, aldiz, lagun eta ikasleekin jolasteko gogotsu hasi ziren.

Aurten 2 eta 12 urte arteko 140 ikasle izango dira eta 19 irakaslez osatutako taldea -horietatik batzuk egun erdiz egingo dute lan- eratu du eskolako zuzendaritzak. Itzulera ahalik eta eramangarriena izan dadin, irailaren 16ra arte goizez bakarrik izango dira klaseak, 09:00e-



Ikasle eta gurasoak San Martin eskolaren atarian, atzo, ateak ireki ziren unean (09:00). | JOKIN BEREZIARTUA

DATUA
<b>19</b> IRAKASLE
19 irakasleko taldea osatu dute; aurten guztiak lanean daude, batzuk egun erdiz.

tatik 13:00etara. Hilaren 19tik aurrera goiz eta arratsalde joango dira, 09:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 16:00etara. Bi urteko umeak eta hiru urteko haur berriak pixkanaka joango dira moldatzen. Izan ere, horiendako gurasoen presentzia ezinbestekoa da hasieran.

## Eskola 2.0 irakasleendako

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu eskolak. Hamar talde dira guztira eta talde bakoitzean 12 eta 18 arteko ume kopurua dago. Beraz, talde nahiko txikiak dira.

Bestalde, ikasturte honetan hasiko dira euskara eta gaztele-

raz gain, ingelesa landu ahal izateko hausnarketekin. Izan ere, Arrasaten, esaterako, 4. LHko ikasleek ingelesa sakonago landuko dute aurten. Gainera, Eskola 2.0 eta Matematika prestakuntza jasoko dute irakasleek eta liburuen mailegu programan sartzeko asmoa erakutsi dute.



Aurten ere *Somos ala bagare?* izango da leloa. | JOSETXO ARANTZABAL

## Txirritola Eguna irailaren 18an, euskaraz eta sagardoz blai

**J.B.** | ARAMAIO  
Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere ez du hutsik egingo Txirritola Eguna. Txirritola euskara elkartearen urteko hitzordu garrantzitsuenetarikoa da eta sagardo ezberdinak dastatzeko aukera emateaz gain euskararen aldeko festa egingo dute antolatzaileek.

Hala, iazko leloa errepikatuko dute: *somos ala bagare?*. Egitaraua zehaztu dute dagoneko: 11:30ean trikitilariak eta

gaztetxoendako tailerrak izango dira, 12:00etan txotx irekiera egingo dute -sagardo ezberdinak eta talo eta pintxoak egongo dira- eta 17:30ean herriko jaientan bertan behera geratu ziren iparraldeko herri kirolak eta harri-jasotzea egingo dira.

### Bazkide egiteko aukera

Antolatzaileek iragarri dutenez, Txirritolako bazkide egiteko aukera egongo da plazan bertan. Urteko kuota hamar euro da.

## Orixolen eskutik, irailaren 24an egingo da Aitor Aranaren omenezko mendi ibilaldiaren 15. edizioa

Orixol mendi elkartek antolatuta, hilaren 24an egingo da Aitor Aranaren omenezko mendi ibilaldia. 15. edizioa izango da aurtengoa eta honakoa izango da ibilbidea: kiroldegitik irten eta Barajuen, Asensiomendi, Jarindo, Marixeka, Orixol eta Zabalautitik kiroldegira buelta. 08:00etan irtenda, sei eta zortzi ordu artean egiteko ibilaldia antolatu dute. Egunean bertan eman beharko da izena, 07:30ean. Zortzi euro ordaindu beharko da.

## Zuzeneko musika izango da Sastiñan iraileko egubakoitzetan, gaurtik hasita

Da soul jet taldearen soul emanaldiarekin (20:00) hasiko da kontzertu zikloa

**J.B.** | ARAMAIO

Udaleko Kultura Sailaren ekimenez, zuzeneko musika izango da Sastiñan datozen lau egubakoitzetan, gaurtik hasita. Izan ere, abuztuko oporren ostean Kultura Saila egitarau zabalarekin itzuli da lanera, eta hasteko, iraileko egubakoitzetan zuzeneko musikaz gozatzeko aukera emango die aramaioarrei.

Eguraldiak laguntzen badu eraikinaren atarian izango dira kontzertuak, 20:00etatik aurrera. Da soul jet talde gasteiztarrek irekiko du kontzertu zikloa. Vital Kutzak eskaini dio kontzertua

Aramaio Udalari *Vitala Arabatik* programaren barruan. Da soul jet taldea bost musikaririk osatzen dute -saxoa, gitarra, baxua, bateria eta ahotsa- eta euren emanaldietan honako talde hauen bertsioak eskaintzen dituzte: Otis Redding, Aretha Franklin, Martha and the Vandellas, James Brown, Stevie Wonder edo The Temptations.

### Soula, bluesa eta folka

Udalak, Vital Kutzaren aukera aprobeztatzeaz gain, hileko gaintzeko egubakoitzak ere musikatu gura izan ditu. Beste hiru

talde hauek etorriko dira: Bilbo Blues morning singers, hilaren 16an; Bergara eta Lazkaoko Fiachras, hilaren 23an eta Eibarko Adunia, hilaren 30ean. Soul, blues eta folk doinuak izango dira nagusi, beraz. Hau da, gurean oso ohikoak ez diren doinuak.

### Debagoienetik, Fiachras

Euskal Herrikoak dira talde guztiak baina Debagoienetik talde bakarra dator: Haritz Artolak eta Aitor Aldanondok gidatzen duten Fiachras taldea, hain zuzen. *Hiltzera goaz* bigarren diskoa aurkeztuko dute Aramaion.



Haritz Artola lazkaotarrak eta Aitor Aldanondo bergararrak zuzentzen duten Fiachras taldea, hilaren 23an. | ARTXIBOA



## ELGETA



Autobusa Elgetan. | L.Z.

## Autobus zerbitzua bere horretan azarora arte

Irailerako iragarritako hobekuntzak atzeratu egingo direla esan du Garraio zuzendari berriak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Irailan gaude eta ez dugu hobekuntzarik ikusi Eibar-Elgeta autobus zerbitzuan. Martxoan aurreko garraio sailburuorde Arantza Tapiak hainbat iragarpen egin zituen Elgetan, baina ez dira beteko. Tapiak iragarri zuten Diputazioak handitu egingo zuela Eibar-Elgeta zerbitzua eta taxi-busa ipiniko zuela Elgeta Bergararekin lotzeko.

Unai Erroizena da Garraio zuzendari berria, eta, aurreratu duenez, Eibar-Elgeta zerbitzuko hobekuntzak egingo dira; taxi-busa, aldiz, "berde dago".

Erroizeneak azaldu duenez, esleipen fasean dago Eibar-Elgeta zerbitzua eta espero du azaro hasierarako lana nork egingo duen erabakita egotea. "Alegazio batek eragin du atzerapena, baina egitasmoa martxan dago".

Taxi-busa

Erroizeneak zalantza handiagoak ditu Tapiak martxoan elgetarrei agindutako taxi-bus zerbitzuaren gainean. "Beizama-Errezil-Aizarnazabal zerbitzua martxan jartzeko etxeko lanak eginda joan zen Tapiak, baina Elgetaren kasuan ez", esan du. "Aztertu beharko dugu egitasmoak herri horietan zer-nolako emaitzak eman dituen, eta gero erabakiko dugu Elgetarako aproposa den edo ez. Gainera, bailarako beste herri batzuetatik bestelako proposamenak jaso ditugu eta guztiei erantzuna emango dion irtenbide bat topatu nahiko genuke", azaldu du.

Bada, Erroizeneak oraingoz hartu duen konpromisoa da gaur egun Elgetan dugun taxi-bus zerbitzua mantendu egingo duela Gipuzkoako Foru Aldundiak.

## Baserritarren azokarako izen-emateak astelehenera arte

L.Z. | ELGETA

Badator atzera ere baserritarren azoka; irailaren 17an izango da aurten, Sagardo Egunarekin batera. Aurreko edizioetan bezala, bi helburu nagusi izango ditu: alde batetik, herriko baserritarrei etxean egindako produktuak saltzeko aukera ematea; eta, bestetik, herritarrei Elgetan bertan egiten diren produktuak erakustea. Hau da, salerosketarako aukera ematea eta aldi berean herriko baserrien erakusleho izatea.

Izen-ematea zabalik

Iazko azokan 11 postu izan ziren eta antolatzaileen nahia da aurten ere kopuru hori mantentzea. Azoka 11:00 aldera zabalduko dute eta 13:00ak arte iraungo du.

Azokan postua ipintzeko interesa duten baserritarrek irailaren 12a, astelehena, dute izena emateko azken eguna. Iaz frutak, barazkiak, ogia, eztia eta artisautzako produktuak izan

genituen azokan. Aurten beste horrenbeste lortzea da helburua.

Vespa eta Lambretta

Biharamunerako, irailak 18, Elgetako VI. Vespa eta Lambretta eguna antolatu dute Fermin Iribarrek eta haren lantaldeak.

Urteroko parte-hartzea espero du Iribarrek: "Eguraldiak zerikusi handia izango du, baina 80 bat motor espero ditut". Aurten, Intxorta elkartean egingo dute bazkaria eta interesatuei izena lehenbailehen emateko eskatzen zaie; irailaren 16a da azken eguna.

Bazkaria egin aurretik, Elgetan elkartutako motorzale guztiek 50 kilometroko ibilbidea egingo dute. 12:15ean abiatuko dira Elgetatik eta Elorrio-Miñota-Berriz-Matiena-Abadiño-Atxondo-Aspe-Atxondo-Elgeta ibilbidea egingo dute.

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu Fermin Iribarri: 669 10 79 07.



## Urduri eskolako lehen egunean

Eguaztenean bete ziren atzera ere Herri Eskolako ikasgelak. Itxura baten, pozik hartu dute ikasturte berria Elgetako umeek. Aste motza izan da honakoa; bi egunekoa eta jardun erdikoa. Astelehenean hasiko dute jardunaldi osoa. Bi urteko gelako umeek ere egun horretan hasiko dute egokitzapenaldia. Aurten, 95 ume hartuko ditu Elgetako eskolak, iaz baino zortzi gehiago.

## 45 langaberekin Elgetako langabezia tasa %9,15 da

Langabeziak gora egin du Elgetan uztailean eta abuztuan. Ekaineko datuak onak izan ziren, baina puntualak; 36 elgetar zeuden orduan langabezia bulegoan izena emanda. Uztailean 47 ziren eta abuztuan 45. Badira hiru urte langabezia tasa berdintsuarekin gaudena. Ahaztuta daude 2008ko abuztuko datuak; orduan langabeak 23 ziren.

## Erretiratuen hilaren 14ko irteerarako izen-ematea zabalik

08:30ean abiatuko dira Elgetatik eta plana da hamarretakoa Getxon egitea, Bermeon bazkaltzea eta arratsalde-pasa Gernikan egitea. Hilaren 14rako antolatu du irteera Salbadorpe erretiratu elkar-teak, eta gaur duzue izena emateko azken eguna. Joan nahi duenak Pedro Mari Ube-rarekin jarri behar du harremanetan. Prezioa 30 euro da.

## Sagardo Eguneko tortilla lehiaketarako izen-ematea zabalik

Irailaren 17an, zapatua, ospatuko dugu aurten Sagardo Eguna. Gaztetxeko kideak hasita daude prestaketa lane-tan. Jakinarazi dutenez, tortilla lehiaketan parte hartu gura dutenek irailaren 15era-ko eman behar dute izena Udal Liburutegian. Iaz, Juisiua eta On Egin taldeak nabar-mendu ziren.

## Zirkulazio mozketak zapatuan, Espainiako Itzulia dela-eta

Antolatzaileen aurreikuspenak betetzen badira, 14:40 bueltan igaroko da lasterketa Elgetatik. Karabietatik dator eta Bergara aldera egingo du. Herrizaingo Salletik ez dute zehaztopenik eman, baina aurreikusten dute lasterketa iritsi baino 15 minutu lehenago zirkulazio mozketak egingo direla bi bideotan.

## Leo Bassik 'Utopia' ikuskizuna egingo du Espaloian irailaren 30ean

L.Z. | ELGETA

Aski ezaguna da Leo Bassi eta aurretik ere Espaloia kafe antzokian egondakoa da. Irailaren 30ean, barikua, Elgetan izango dugu atzera ere. Kasu honetan, *Utopia* ikuskizuna eskainiko du, 22:00etan hasita. Haserre dago Bassi. Pailazo jantzita, krisi ekonomikoa nork eragin

duen eta estatuek zein irtenbide ematen dioten azalduko digu.

Bassik matxinadara deitzen du. Lidertza falta sumatzen du eta etorkizuna amesteko esku-bidea aldarrikatzen du. Gober-nuek eta batez ere ezkerreko alderdiek amore eman dutela uste du.

## LEINTZ GATZAGA

## Hasi dira Andramaixak eguraldi eta giro ezin hobearrekin

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Eguazten ilunkeran, Ama Birjina-bederatziurrenaren bukaerarekin eman zieten hasiera Andramaixei gatzagarrek. Jendea pilatu zen orduan Dorletako santutegian, baita atzo ere, meza nagusian. Otxandiokoak izan zituzten lagun, urtero moduan, eta giro bikaina sortu zuten.

Jaiak aste bukaera dute aurrez aurre, eta ekitaldi asko gatzagar-rrak asetzeko. Gaur, umeendako puzgarriekin hasiko dute eguna (10:00); herri kirolen ikuskizuna dute gero (13:00) eta pilota partiduak arratsaldean (16:30). Gaua, oster, rock kontzertuek giro-tuko dute (22:00); Skarmento (Galizia), TLS (Ordizia) eta Interprete

Desconocido (Arrasate). Bihar, zapatua, Arraska taldearen skat-e erakustaldia (11:00) izango da; puzgarriak (16:00); eta herri afa-ria (21:30), pilotalekuan. Gau parte Basajaun taldeak giro-tuko die, eta bolo txapelketa ere izan-go da bolatokian (00:00).

Domeka, mendi bizikletarekin zeharkaldia eginda hasiko dute (09:30), eta gero Mexikoko folklorea ezagutzeko aukera izango da (12:30); arratsaldean, pilota partiduak (16:30) eta jaiak bukatzeko batukada (19:00) egingo dira.



Dorletako amaren omenez ospatutako meza nagusia atzo eguerdian. | M.A.



**ESKUBALOIA****Koldo Goenaga** | Arrateko zuzendaritzako kidea

# "Arrate Donostiakoa balitz, ez litzateke desagertuko"

- ▶ Koldo Goenagak azken hilabeteak egin ditu Arrateko zuzendaritza taldean
- ▶ Kritiko azaldu da, instituzioetatik ez dutelako agindutakoa bete

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Eibartarra bada ere, Koldo Goenagak (1948) hamar urte darabata Elgetan bizi izaten. Azken hilabeteak Arrateko zuzendaritza egin ditu, aurreko gestio-taldeak dimisioa aurkeztu ostean kluba desagertu ez zedin sortu zuten zuzendaritza taldean. Dagoeneko hainbat egun igaro dira Arrate desagertu egingo dela baieztatu zutenetik, baina Goenagak ezin ditu atsekabea eta amorrua gainetik kendu. Haserre dago, instituzioetako ordezkariak ez dutelako emandako hitza bete. Debagoienan, asko dira Eibarko klubetik pasa diren lagunak.

**Arrate desagertu egin da, zor ekonomikoek itota. Eibarko taldeak beste klub batzuek jaso dituzten laguntzak jaso ez dituela salatu duzue.**

Urte hasieran Arrateko instituzioetatik dirulaguntzak jaso ahal izateko hainbat baldintza bete behar zituen, eta horietako bat zen, esaterako, lehengo presidenten Iñaki Bolinagak dimisioa aurkezte eta klubean hauteskundeak egitea.

Baldintza guztiak bete ziren, gestore talde bat sortu zuten taldea kudeatzeko, jokalariek Asobalen mailari eutsi zioten, baina instituzioetatik ez zen aginduta-



Koldo Goenaga. | GOIENA

ko dirua iritsi, ez Jaurlaritzatik eta ezta Diputaziotik; Eibarko Udalak bakarrik bete zuten emandako hitza. Hori ikusita, kluba zuzentzen ari ziren gestoreak dimititu egin zuten (uztailaren 15ean), eta, kluba desagertzera zihoala, beste talde batek hartu genuen zuzendaritza; ez du ezertarako balio izan.

**Zor handia zegoen atzean, 1,9 milioi euro.**

Prentsan zenbateko hori azaldu da, baina benetako zorra 1,7 milioi euro zen. Dena dela, jokalariekin akordioa iritsita geunden, eta akordio horrekin zorra milioi bat euro baino gutxiagokoa zen. Diputazioarekin hiruzpalau batzar izan genituen, eta bideragarritasun plan bat aurkeztu genion. Arrate salbatzeko moduan zegoen. Iñaki Ugarteburuk [Foru Aldundiko Kirol arduradun ohia] aparatiko dirulaguntza bat agindu zigun, 400.000 eurokoa, eta gero, ez zuten agindutakoa bete.

Ondoren, Diputaziora sartu direnek dirurik ez zegoela esan ziguten, eta datorren urteko 300.000 euro aurreratuko zizkigutela; hau da, urtero jasotzen dugunetik %10eko jaitiera izan behar genuen. Eta badakigu beste talde batzuei %30 gehiago eman dietela. Kreditu bigun bat emateko

**"Eibarko Udalak baino ez du emandako hitza bete"**

**ARRATEREKIN HARREMANA IZAN DUTENEN IRITZIA****JOSE MANUEL RUIZ**  
ENTRENATZAILE OHIA

**"Errudun asko izan dira, baina instituzioek ez dute denekin berdin jokatu"**

"Garbi dago ekonomikoki ez dela kudeaketa ona egin, eta erantzule asko daudela hor. Zuzendaritzako ordezkariak onartu dute euren errua, prentsan azaldu da hori. Duela lau-pabost urte taldeak kolpean galdu zuten babesle nagusia –Madrilgo eraikuntza enpresa bat–, eta horrek min handia egin zuen. Eta ondoren, Asobal mailari eutsi nahian zuloa handitzen joan zen. Egia da, baina, instituzioek ez dutela emandako hitza bete, eta eurak ere erantzule direla. Arratek ez du izan Gipuzkoa mailan beste kirol talde batzuek izan duten laguntza; sekulako galera da eskubaloia erandako".

**FERTXU RODRIGUEZ**  
JOKALARI OHIA

**"Nire garaian ere klubean entzuten zen ekonomikoki arazoak zeudela"**

"Pena hartu dut, Euskal Herri mailan ez dagoelako Arrateko duen moduko harrobirik, seguruenik ez da egongo beste klub bat horrenbeste jokalaririk izango dituenik. Gure garaian 12 talde inguru zituen Arratek, eta orain ere antzera jarraituko dute. Horrek esan nahi du neska-mutiko mordo geratu direla eskubaloian talde barik. Diru-arazoak kontua ez da berria, ni Arratera iritsi aurretik ere entzuten ziren horrelakoak, baina oraingo zulo handia zen. Eta penagarria izan da, Asobalen jokatzeko 150.000 euroko abala baino ez zutelako behar...".

eskaera ere egin genuen, eta Arrate joango zen hori ordaintzen. Baina horrela ere ez... nazkatuta amaitu dut honekin guztiarekin.

**Zer gertatuko da Arrateko talde guztiekin?**

Eibarren beste eskubaloian talde bat sortzekotan dabilta, baina kontuz ibili beharko dute, klub horrek ezingo duelako Arrate zenarekin inongo harremanik

izan. Bestela, Arrateko zituen zorrak klub horrek hartuko ditu.

**Pentsatzen dut jokalariek gazte horiek eskubaloian jarraitu ahal izatea izango dela lehentasuna.**

Bai, baina soluzio hori ere ez da ona, Arrateko Euskadiko talde onenak zituelako kategoria guztietan eta klub berri batekin kategoria guztiak galdu egingo dituztelako. Hori ez da ona, ez talde horiendako, ezta gainontze-

## Ondo pasatu jaietan!

Agirrebeña

• Ariznoa

• Azpeitxi

• Bule

• Etxagi

• Euxebio II

• Iraho

• Irish Pub Galways

• Kai

• Kayak

• Sirimiri

• Toki Ona

• Usoa

• Zunbeltz



**San Martin Jaiak 2011 - Bergara**  
Irailaren 10, 15, 16, 17 eta 18







**EDU ORGAZ**  
PRESTATZAILE FISIKOA

### "Hemengo taldeei ez die kalterik egingo, baina denon erreferente zen"

Edu Orgazek Arrasateko Ford Mugarri taldea utzi eta erronka berri bati ekin behar zion Eibarren, Arrateko prestatzaile fisikoa izan behar zuelako: "Pena da, Arrate taldea erreferente izan delako inguruko guztiondako, eta jokalariek hor zutelako maila goragoetan jokatzeko aukera. Ez dut uste Arrate desagertzeak ibarreko taldeei zuzenean eragingo dienik, baina galera handia da Gipuzkoako eta Euskal Herriko eskubaloierendako. Gogorra da, neurri batean Arratekin gertatu denak erakusten duelako eskubaloia ze egoeratan dagoen. Talde guztion adierazgarri da Arrate".



**ANDONI BERNAL**  
JOKALARIA

### "Azken ordura arte, iritsi ez den mirariaren zain egon gara jokariok"

"Egia esan, kolpe handia izan da Arraten jokatzeko genbiltzan jokalariondako. Azken bi urteotan ibili gara entzuten lehenengo taldean zeuden jokalariek arazoak zituztela kobratzeko. Eta horrelakoak entzunda antzeman zitekeen kontu honek ez zuela ondo amaitu behar. Dena dela, azken ordura arte, iritsi ez den mirariaren zain egon gara jokariok.

Gertatu denaren ostean jokariok talde bila hasi dira. Ni lehenago ere Arrasaten egondakoa naiz, lagunak ditut han, eta ez dut zalantzarik izan Ford Mugarria itzultzeko. Igoera fasean izan dira, maila ona duten seinale".

## FUTBOLA

### Oraingo asteburuan hasiko dute ibarreko futbol taldeek liga

X.U. | ARRASATE  
Denboraldi-aurrean egindako lanaren fruituak ikusi ahal izango dira oraingo asteburuan hasita, kategoria gehienetan hasiko dituzte eta futbol txapelketak.

Ohorezko erregional mailan Bergara izango da etxean jokatuko duen talde bakarra, eta gaur bertan izango dute nor-

gehiagoka (egubakoitza, 17:30, Tolosaren kontra). Aloñak ere gaur, egubakoitza, estreinatuko du liga, 17:00etan, Rotetaren zelaian.

Aretxabaletak, berriz, Hondarribian jokatuko du zapatu goizean (11:30) eta Mondrak Lesakara egingo du bidaia, Beti Gazteren kontra jokatzerako (18:00).

## MENDIKO LASTERKETAK

### Galizian irabazi ostean, Kopa ere Kortazarrendako

X.U. | ARRASATE  
Mendiko lasterketen Espainiako Kopa irabazi du Oihana Kortazarrek, domekan korritu zuten Kopako azken proba irabazita, Galiziako Ribeira Sacra egin zuten Canon do Sileko lasterketa. Garaipen horrekin batutako puntuei esker Espainiako Kopa poltsikoratu du. Bada, uztailan Ribagorzan

Espainiako txapelketa irabazita, Elgetakoak *dobletea* egin du, eta denboraldi bikainari jarraipena eman.

**Lasterketa osoa bakarrik**  
Elgetakoak aurrera egin zuen hasieratik; azken tartean, kontrario zuzen Blanca Serrano gerturatu egin zitzaion, baina ondo eutsi zion aldeari.



Oihana Kortazar 43 segundoko aldearekin iritsi zen. | CORREORDEMONTANA.COM

## TXIRRINDULARITZA

### Espainiako Itzulia zapatuan, San Migel saria domekan

Zapatuan Vuelta pasatuko da ibarretik, Elgetatik sartuko da (14:00), Bergarara jaitsi eta Gorla igoko dute (14:15), eta Deskargatik bueltan Antzuolatik (15:15) Kanpanzarrerako bidea hartuko dute (15:39).

Domekan, berriz, San Migel saria egingo dute Oñatin, gazte mailako ziklistendako. 10:30ean hasita 84 kilometroko proba egingo dute.

## MENDIKO BIZIKLETA

### Gatzagako mendiko bizikleta irteera egingo dute domekan

Iraila iristearekin batera jarriko da abian Debagoieneko mendiko bizikleten zirkuitua, eta oraingo domekan izango da lehenengo hitzordua, Gatzagan.

Urtero moduan, txirindulariek 09:30ean emango dituzte lehenengo pedalkadak –plazan hasita–, baina proban izena emateko lehenago joatea komeni da.

## SASKIBALOA

### Sustrai Aloñak lehen partidu ofiziala jokatuko du bihar, Euskal Kopan

Atzo iluntzean Iraurgiren kontra jokatutako lagunartekoak etxeko zaleen aurrean EBA mailako taldea erakusteko balio izan bazuen ere, Sustrai Aloña Mendik bihar, zapatua, ekingo dio 2011-2012 denboraldiari, Euskal Kopako kanporaketa batekin. Oñatikoez Zornotzako taldea izango dute aurrean, 18:00etan hasita.

ko kontrarioendako ere. Pentsa liga horietan zelako jipoiak eman go dituzten. Arazoa bakarrik ez da Arrate klub moduan desagertzea, kirolariei ere kalte egingo die honek. Eta baita Euskal Herriko gainontzeko taldeei ere, Asobal mailan zegoen talde baten erreferentzia galdu dutelako.

**Garbi dago, baina, Arrate azken urteotan zituen baliabideen gaine-tik ibili dela.**

Bai, noski! Baina denak, e! Baita gure talde *modeliko* Reala ere! Eta nik ez dut Realaren kontra ezer, Realzalea naiz, baina talde horri zorrak barkatu dizkio Diputazioak, zorrak ordaintzeko kreditu bigunak onartu dizkiote, eta besteoi ezer ere ez? Horrek haserretzen nau. Arrate Donostia aldeko taldea izango balitz, ez litzateke desagertuko. Oso garbi dut hori.

Ingelesa, alemana, frantsesa...



hizkuntzak



**Adin guztiak**  
**Maila guztiak**

%80ek gainditzen dituzte Cambridgeko azterketak

**Aktiba zaitez**  
MONDRAGON LINGUAekin

**Activa las clases más flexibles** por horarios, objetivos, materias, destrezas...

**Activa las clases más eficaces**, con una tutorización personalizada y una planificación individualizada.

**Activa la innovación**, con la tecnología más avanzada, incluso cómodamente desde tu propio ordenador.

**Activa tu aprendizaje** con videojuegos didácticos para los más jóvenes.



**Urriaren 7a** baino lehen matrikulatzen diren ikasle helduek **e-book** edo **iPad2** zoragarria jasoko dute opari.

www.mondragonlingua.com

ARRASATE  
Araba etorbidea 4 Tel. 943 71 20 55

OÑATI  
Motxon kalea Tel. 943 71 60 00



Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

## UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)



LARA GONZALEZ



IDOIA ITURRALDE



MIGUEL DE GAMESHA

Har ezazu parte!

### Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.** Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- **Argazkiak bidaltzeko epea:** uztailaren 1etik irailaren 16ra arte.
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira:** berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri:
  - ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate
  - ARETXABALETA: Basabe poligonoa EO5 edo Durana 11-2 solairura, 20550 Aretxabaleta.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta, CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 3an jakingo dugu asteleheneko Goiena paperean.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkia guztiak Goienako artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

### Sariak

#### 1. saria

Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.

- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.



**2. saria:** Cantabriako bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.



**3. saria:** bi pertsonarendako afa-ri edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**GURE AMETSA**  
JATETXEA





# KULTURA



Iaz Arantzazun egin zuten artisau azoka. | JOSETXO ARANTZABAL

## Artisau azoka egingo dute domekan Arantzazun

- ▶ 10:00etatik 15:00etara izango da azoka dorre nagusiaren azpian
- ▶ Artaso elkarteak antolatuta, Arantzazu erreferente izatea gura dute

### ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Artisau azoka egingo dute etzi, domeka, Arantzazun, Artaso elkarteak antolatuta. Urtero egiten duten legez, gai konkretu baten bueltan jardungo dute: belarrak izango dira aurtengo protagonistak.

Elkartekoen asmoa azoka Santiago egunez, uztailak 25, egitea zen baina eguraldi txarragatik bertan behera utzi zuten azoka, eta atzeratzea erabaki zuten. Hala ere, elkartekoen asmoa aurrerantzean azoka Santiago egunarekin batera egitea da.

### Belarren gainean izango da

Azokaren edizio bakoitzak gai konkretu bat izaten du. Hala, aurten belarren gaineko postuak jarriko dituzte. Belarrekin egiten diren sendabelarrak egongo dira ikusgai, eta baita belarrekin egindako apaingarriak ere.

Kepa Elortza Artaso elkarteko kideak dio azoka Arantzazuko plazatxoan izango dela, erlojuak dagoen dorrearen azpian. Hamar postu inguru jarriko dituzte, eta

gaineratu du gehienak belarrekin zerikusia dutenak izango diren arren, beste mota batzuetako postu batzuk ere izango direla Arantzazun: xaboigileak, zeramika, lore sikuak, ezta... Azoka goiz partean izango da, 10:00etatik 15:00etara. "Gainera, azoka girotzeko musika jartzen dugu; aurten, Zumarragako txalapartariak etorriko dira, eta meza orduetatik kanpo joko dute".

Belarrekin zerikusia duten postuen artean, Aizarnatik eta Oiarzundik etorritako petrikiloak egongo dira, eta belarrekin ukondoak nola egin erakutsiko dute. Gainera, Bergarako Anaje

Narbaiza eta Oñatiko Paulina Kernstock ere izango dira azokan, eta belarren gaineko irteeratxoak egingo dute.

### Irteera 10:30ean izango da

Hain zuzen, irteeratxoak izango da domekako azokako berezitasuna. "10:30ean irtengo gara. Gaur egun dauden sendabelarrak eza-gutu eta nola batzen diren erakutsiko dute", azaldu du Elortzak. Arantzazu inguruko zelaietan egingo dute irteeratxoak.

Narbaiza eta Kernstockek adierazi dute belarrak nola eta zenbat batu behar diren azalduko dutela domekan.

### Artaso elkarteak

"Arantzazu eta artisautza lotzea da gure asmoa, eta Euskal Herrian Arantzazu erreferente izatea", dio Elortzak. Asmo horrekin hasi ziren lanean Artasoko kideak orain dela lau urte. "Artisautza erreferentzia izateko leku aproposena Arantzazu dela uste dugu", gaineratu du.

Taldea osatzen duten gehienak Arantzazurekin zerikusia dutenak dira, bai han jaio direlako edo baita han hazi direlako ere.

2008an egin zuten lehenengo artisau azoka Arantzazun. Orduan, birziklapenez jardun zuten: "Pilotalekuan egin genuen lehenengo azoka, eta, oinezko bideetatik kanpo geratzen denez, ez zen horrenbeste jende etorri", azaldu du Elortzak.

Bigarren urtetik aurrera plazatxoan egin izan dute: "Orain dela bi urte artisautza izan zen gaia eta iaz naturaz jardun genuen", gaineratu du Kepa Elortzak. Eguraldiak laguntzea ezinbestekoa izango da eguna boro-biltzeko.

**PAULINA KERSNTOCK eta ANAJE NARBAIZA**  
BELARRETAN ADITUAK

**"Landareak noiz eta nola batu behar diren erakutsiko dugu"**

Lehenengo aldia izango da horrelako irteeratxo bat egingo dutena elkarrekin. Naturaren garrantzia nabarmendu eta ahozko transmisioa elkartrukatzea izango da irteeratxoaren helburua.

### Zer azalduko duzue domekako irteeran?

Paulina Kernstock: Gure Euskal Herri maitean dauden belarren inguruan jardungo dugu. Noiz batu behar diren, nola... azalduko dugu, eta baita zergatik ez diren denak kendu behar.

Anaje Narbaiza: Ordubetan inguruko irteera izango da eta azalduko dugu landareak zelakoak diren eta nola erabili behar diren.

### Non ibiliko zarete?

P.K.: Arantzazu inguruko zelaietan ibiliko gara. Belar onenak 600 metrotik behera egoten dira; edozelan ere, kamamila, esaterako, gorago ere egoten da; oso ona, gainera.

A.N.: Milikua ingurutik irtengo gara eta 500 metroko ibilaldia egingo dugu, ordubetekoa.

### Ze belar daude gure baso eta zelaietan?

P.K.: Ikusiko dugu ze aurkitzen dugun; izan ere, belarra moztu egin dute.

A.N.: Ez da sasoi onena belarra jasotzeko. Hala ere, gurean berbena, elorria, intxusa... denetarik dago.

### Ukenduak egiten ere erakutsiko duzue?

P.K.: Landareak eta belarrak zelan jaso eta sikatu erakutsiko dugu, eta baita landare horiekin ze ukendu mota egin daitezkeen ere.



Paulina Kernstock. | A.E.



Anaje Narbaiza. | GOIENA

### ESANAK

**"Artisautza eta Arantzazu lotzea da gure asmoa"**

KEPA ELORTZA | ARTASOKO KIDEA

### DATUA

**4.**

EDIZIOA

Aurtengoa Artasok antolatzen duen laugarren azoka izango da.



# Napoka Iria bikoteak estreinatuko du Kulture Akustikoak zikloa, gaur

Kulturaren egingo dute saioa, 20:00etan; bihar, Litoral taldeak jardungo du ordu eta leku berean

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE  
Ander Muxikak eta Miren Narbaitzak osatzen dute Napoka Iria. 2005ean sortu zuten taldea eta hasieratik eskaini izan dituzte zuzenekoak formatu akustikoan. Besteak beste, Jeff Buckley, PJ Harvey, Pearl Jam eta Ani DiFranco artisten eragina izan dute. Adituek diote inor ez dutela hotz uzten Napoka Iriaren zuzenekoak; Narbaitzaren ahots indartsua eta gitarra soinuak besterik ez dute erabiltzen aretoa betetzeko.

**Bergaran grabatutako diskoa**  
2005ean grabatu zuten euren lehengo lana Narbaitzak eta Muxikak. 2008an hiru kantuz osatutako bigarren maketa kaleratu zuten. Orain eskaintzen dabiltzan lana aurten zuzenean grabatutakoa da. Hain zuzen, Bergarako Zabalotegi aretoan grabatu zuten diskoa

urte hasieran. Aste bukaera baten bi kontzertu eskaini zituzten, kantu zahar, berri eta bertsoiak nahastuta. Zabalotegin eskaintako hamar abesti aukeratu dituzte *Lehertarazi edifizioak* lana osatzeko. Gitarra elektrikoa, akus-



Napoka Iria Miren Narbaitzak eta Ander Muxikak osatzen dute. | GOIENA

tikoa eta ahotsa besterik ez dute erabili diskoan.

Grabazioak egin ostean, Legarre estudioan txukundu zuten diskoa, Ander Barriusoren laguntzarekin. Diskoaren diseinu lanak Muxikak berak egin ditu.

## Zapatuan, Litoral

Arrasateo Udalak antolatutako Kulture Akustikoak zikloaren barruan, bigarren emanaldia Litoral taldeak egingo du bihar, 20:00etan. Pau Roca musikaria da Litoral taldeko burua; gainerako kideak eskarmentu handiko musikari Ivan Cuevas, Edu Baos, Manu Moreno, Guillaine Goosse eta Pablo Magariños dira.

Folk doinuak sortzen dituzte, eta katalana eta frantsesa erabiltzen dute euren abestien letretan. Musika sortu eta zuzenean jotzeko askatasuna bilatzen du Litoral taldeak, mugarik eta hesirik gabeko filosofia jarraituta.

# Orfeoiak eta Bilboko Bandak gaur jardungo dute Oñatin

Ulmaren 50. urteurrenaren harira antolatutako kontzertua da; 21:00etan izango da, plazan

## A.E. | OÑATI

Ulmak antolatuta kontzertua eskainiko dute Donostiako Orfeoiak eta Bilboko Udala Musika Bandak Oñatiko plazan gaur, 21:00etan.

Kooperatibaren 50. urteurrenaren harira antolatutako kontzertua da, *Oroitzapenerako kontzertua* izenarekin. Ordubete inguru iraungo du. Oñatiko plazan 1.000 aulki jarriko dituzte eta sarrera doan izango da.

## Abesti ezagunak

Euskal abestiak eta operako abestiak eskainiko dituzte bi taldeek Oñatin: besteak beste, Madinaren *Aita Gurea*, Guri-diren *El Caserío*, *Cuadros vascos* eta *The best of Manchini*.

Egitarrako obra gehienak Orfeoiak eta Bandak elkarrekin egingo dituzte, baina *El Caserío* lanaren *Preludioa* eta *The best of Manchini* Bilboko Udala Musika bandak joko ditu.

Orfeoiarekin batera etorriko da Esteban Urtzelai oñatiarra. Tenorea da Urtzelai eta azaldu du ilusio handia duela gaurko emanaldirako.

## Denboraren kapsula

50. urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, etorkizuneko bazkideendako mezu, objektu eta desioak batu ditu Ulma taldeak denboraren kapsula baten. Atzo ezker, denboraren kapsula hori taldearen egoitza nagusiaren sarreran dago, 2061. urteko bazkideek zabaltzeko zain.

*Gure baloreek denboran zehar iraun dezatela: Lankidetzeta, Lehiakortasuna, Parte-hartzea eta Berrikuntza* leloa grabatuta duen poliedro itxurako kapsularen barruan, Ulmaren zortzi negozioetako bakoitzari eta taldeari berari dagozkion kutxa bana sartu zuten enpresako lehendakari eta komunikazio arduradunek.

# DEBA GOIENENKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK \* A



## EPA-HHI MATRIKULAZIO KANPAINA

### EPA - HHI ARRASATE

Helbide berria: Arrasate pasealekua 1, 3 eta 5  
Tel.: 943 77 11 72

Irailaren 1etik 15era:

- I. Gradua (alfabetizazioa / gaztelera / euskara)
- II. Gradua (gaitasun orokorrak sendotu)
- III. Gradua (bigarren hezkuntzako graduatua)

Ikasturtearen hasiera irailaren 15ean.

Irailaren 16tik 22ra:

- Ingelesa
- Frantsesa
- Informatika
- Artea
- Filosofia
- Unibertsitaterako sarbidea
- Goi mailako heziketa zikloetarako sarbidea

### EPA - HHI BERGARA

Barrenkale 33, 2.  
Tel.: 943 76 44 52

Irailaren 1etik 15era:

- I. Gradua (alfabetizazioa / gaztelera / euskara)
- II. Gradua (gaitasun orokorrak sendotu)
- III. Gradua (bigarren hezkuntzako graduatua)
- Ingelesa
- Frantsesa
- Informatika
- Artea
- Filosofia
- Unibertsitaterako sarbidea
- Goi mailako heziketa zikloetarako sarbidea





ELKAR

## Ordorikaren lan berria, urrirako

New Yorken lan berria grabatu ostean, lan horren nahasketak Elkar estudioan egiten dihardu Ruper Ordorika musikariak, ohikoa den moduan, Jean Phocas teknikari ezagunaren laguntzarekin. Oñatiarraren disko berria urri bukaeran argitaratuko dute.

### La Madriguera eta Lined Hardcore taldeak Uribarriko jaietan

Rock jaialdia izango dute gaur Uribarri-Erguin auzoko jaietan. 23:00etan hasita, Udalpe plazan Arrasateko La Madriguera eta Lined Hardcore taldeek jardungo dute. Abuztuaren zehar lehenengo diskoa prestatzen ibili dira La Madriguera taldekoak; 2012an argitaratuko dute lana.

### Rock eta ska doinuek hartuko dute gaur Oñatiko Atzeko kalea

Ohikoa den moduan, rock kontzertuarekin hasiko dira gaur Atzeko kaleko jaiak Oñatin. 22:30ean hasita Los Galerna (Arrasate), Skakietan (Donostia) eta Skapando (Legazpi) taldeek jardungo dute. Arrasateko Los Galerna taldeak surf eta rock-and-roll doinuek eskainiko ditu.

# 'Kantaxumeak' diskoko folka ekarriko du Garatek gaztetxera

Egubakoitzak Kartzelan egitasmoaren barruan jardungo du, 22:00etan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA  
Mikel Garate eta Ekaitz Aranberri girotuko dute gaur kartzela zaharreko patioa. Garatek *Kantaxumeak* lana aurkeztuko du herritarren aurrean. Folk doinuek izango dira emanaldian.

Egubakoitzak Kartzelan egitasmoaren barruan dago emanaldia. Gaztetxeko patioan izango da, doan, 22:00etan.

### Azken orduko aldaketa

Gaurko emanaldia Mikel Urdangarin bakarlarik ezagunak eta Ekaitz Aranberri uberarrak eskaini behar zuten. Baina Urdangarinek azken momentuan abisatu du gripeak jota dagoela eta ezin izango duela abestu. Hala, emanaldia atzeratzea erabaki dute gaztetxeko kideek.

Urdangarinen kontzertua datorren astean, hilaren 16an izango da.

### Mikel Garate

Begararrak hamar urte pasatxo daramatza musika munduan. Harmonika eta gitarra lagun dituela, Bob Dylan gogora ekartzen du Garatek. *Kantaxumeak* lana lagun eta musikari handien laguntzarekin egin du. Txapa



Mikel Garatek urte mordo daramatza musika munduan. | GOIENA

Irratian hasi eta Elosuko abadetxean amaitu zuten *Kantaxumeak* diskoaren grabazioa. Folk eta country soinuek sentitzen da gusturen bergararra, baina ez

doala "estilo jakin baten atzetik" azaldu du.

Irlandako folkaren eragina dute Aranbarriren abesti eta bertsoek: baina euskal identitateari eusten dio uberarrak.

## Mikel Urdangarinen saioa atzeratu egin dute

### Hurrengo kontzertuak

Bada, Egubakoitzak Kartzelan egitasmoak gertu dauka iraileko agenda. Hilaren 23an Napoko Iria bikoteak eta Laudioko Marak (Igor Arzuaga) jardungo dute gaztetxean; eta hilaren 30ean Azkaiter Pelox eta Saioak.

**ONGI ETORRI**  
BIENVENIDO  
WELCOME  
BENVINGUT  
مرحبا بكم  
BIENVENUE  
歓迎  
WILLKOMMEN  
BINE AI VENIT  
BEN-VINDO

2011-2012 IKASTURTEA  
**Matrikula zabalik**  
www.udaleuskaltegiak.net

UDAL EUSKALTEGIA  
EUSKALTEGIA MUNDUAKO  
EUSKALTEGIA MUNDUAKO  
ENTZATE OINATIA

Euskara ikasteko.

Ordutegi malgua:

goizez, arratsaldez eta gauzez.

Beka sistema eta diru laguntzak ditugu.

## 5 ARRAZOI ON UDAL EUSKALTEGIAN IZENA EMATEKO

1. Zure seme-alabei etxeko lanetan laguntzea erraztuko dizu.
2. Komunikabideak ulertzen lagunduko dizu.
3. Lagun berriak egingo dituzu.
4. Lana aurkitzen lagunduko dizu.
5. Euskaraz irakurtzen eta idazten trebatuko zara.

### Abantailak

- Titulu ofizialak.
- 30 urteko esperientzia.
- Ordutegi eta erritmo malguak.
- Kurtsoa finantzatzeko bekak.
- Ekintza osagarriak.

### ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Faxa: 943 79 91 43  
euskaltegi@arrasate-mondragon.net



### BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Barrenkalea, 33 • Irizar jauregia • BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

### LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 • 20550 **Aretxabaleta** Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62  
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Itxaurtxueta 10 • 20540 **Eskoriatza** Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62  
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

### BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta kalea 18 - Oñati  
Tel.: 943 78 24 96 • Faxa: 943 71 82 96  
euskaltegia@oinati.net



Iagoba Domingo | Diseinatzailea

# "Asko ikasi genuen 8mm-tan filmatzen. Gaur egun, teknologiari esker, gauzak asko erraztu dira"

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Iagoba Domingo (Arrasate, 1987) Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua da eta, egun, tabernari lanak eta diseinatzaile lanak uztartzen ditu.

**Zer nolako diseinuak egiten dituzu?**

Batez ere musikarekin lotutako diseinuak egiten ditut: diskoak, logoak, kamisetak... Arrasate eta inguruetako taldeentzat lan egin dut, baina kanpoko taldeentzat ere lan egin dut. Lagun artean hasi nintzen diseinuak egiten eta, gaur egun, lan profesionalak ere egiten ditut.

**Musikarekin lotutako diseinuak egiten dituzu?**

Bai. Diseinuak egiterakoan, argazkietan oinarritzen naiz, baina nik egindako marrazkiak ere erabiltzen ditut. Azkenaldian, B serieko pelikula eta komikietan oinarritutako marrazkiak egiten ditut. Eskuz marrazten ditut eta gero digitalizatu egiten ditut, azken ukituan ordenagailuan egiteko.

**Nola edo zergatik hasi zinen marrazten?**

Txikitatik gustatu zait marraztea. Eskolan mahai, koaderno eta liburuetan marrazten hasi nintzen eta, beranduago, 5 Twisters taldean jotzen nuenean, lehenengo diskorako diseinua egitea pentsatu nuen. Ordutik aurrera, horrelako lanak egiteko aukera izan dudana bakoitzean aprobe txatu dut.

**Zure lanaren adibide batzuk?**

Nire bi musika taldeetako diskoen diseinuak egin ditut: 5 Twisters eta Los Galerna. Baita, Dirty Brothers, The Convicts, MPJ... Des-kontrol eta Aggressive Combat taldeentzako bideoklip bana...

**Beraz, bideoklipak ere egiten dituzu?**

Bai, orain kamera bat erosi dut eta bideoklip gehiago egiteko intenzioa dut. Bi bideoklip egiteko proiektuak ditut, baina ezin dut ezer gehiago aurreratu.

**Super 8 kamerarekin erre film labur bat ere egin duzu.**

Bai. Esperientzia polita izan da. 'Juakin Galerna vs Dr. Bocanegra' da filmaren izena. B serieko filma da, baina Z serieko ukituak ditu. Super 8 kamera film laburraren estilora egokia zela iruditu zitzaidan.

**Nolako esperientzia izan zen?**

Esperientzia aberasgarria izan

zen. Asko ikasi genuen 8mm-tan filmatzen. Gaur egun, teknologiari esker, gauzak asko erraztu dira, baina karretean filmatzeak asko irakasten du. 8mm-tan grabatzea oso garestia da, eta oso argi izan behar dira gauzak grabatzen hasi aurretik.

**Zer nolako prozesua da?**

Luzea. Lehenengo frogak egin behar dira, gero karretea errebelatu eta emaitza ikusita nola grabatu behar den erabaki behar da. Ondoren, grabaketa egin eta berriz ere, errebelatu. Gero filma digitalizatu behar da eta azkenik, edizioa eta postprodukzioa ordenagailuan egin behar da. Karrete bakoitzak 3 minutuko iraupena du eta bakoitzak 30 euro inguru balio ditu.

**Beraz, 8mm-tan grabatzea artisauntza lana da?**

Bai. Argazkilaritza analogikoarekin zer ikusi handia du. Gaur egun, kamera digitalekin lan egitea merkeagoa da, baina etxeko sotoan aurkitutako kamera zaharra erabilia asko ikasi du. Oso lan polita da, emaitzak merezi du. 70. hamarkadako zinean girotutako filma da, garai artako baliabideekin egindakoa. Zahar ukitu hori bideo digitalekin lortu daiteke, baina originala hobeagoa dela uste dut.

**Musika egiten jarraitzen duzu, ezta?**

Bai. Abuztuan Los Galerna taldearen bigarren diskoa grabatu dugu Guadalajarako 'El Purgatorio' estudioan, Jon Rodriguez soinu teknikari atxabaltarrarekin. Orain, soinu nahasketak egiten ari gara eta hori bukatzen dugunean, azalaren diseinuarekin hasiko naiz.

**Argazkilaritza ere trebea zara...**

Bai, nire zaletasunetarikoa bat da. Kamera hartu eta kontzertu askotara joaten naiz, gehienetan lagunen argazkiak ateratzen ditut, baina lan profesionalak ere egin ditut.

## MARRA AZKARREZ

**Marrazkilaria bat:** Doctor Alderete.

**Musika talde bat:** Thin Lizzy.

**Musikari bat:** Phil Lynot eta Brian Setzer.

**Musika mota bat:** Rock & rolla.

**Bizitzeko leku bat:** Oraingo, Arrasate.

**Bisitatzeko herri bat:** Berlin.



Iagoba argazki bat egiten.



**1. ETXEBIZITZAK**

**101. SALDU**

**Bergara.** 72 m<sup>2</sup>ko etxebizitzasalgai erdigunean. Bilogela eta komun bat. Berokuntza, gasarekin. 606 65 58 08 edo 660 04 25 25

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorentzon. Lau logela, bainugela bat eta komun txiki bat, jangela-egongela eta sukaldia. Garaje itxia. Garbara. Balkoia eta terraza. Negoziagarria. 634 43 78 19

**Zumarraga.** Etxebizitza eguzkitsua salgai. Bi logela, egongela, komuna eta sukaldia. 156.300 euro. 638 33 03 01

**103. ERRENTAN EMAN**

**Antzuola.** Bilogeladun etxebizitza ematen da errentan. Igo-gailuarekin. 645 00 89 97 edo 645 70 80 26

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Jantzia. 649 55 48 10

**Arrasate.** 120 m<sup>2</sup>ko etxebizitza. Garbiketa gela, sukaldia, komun txikia, bainugela, egongela-jangela eta lau logela. Erdigunean. Unibertsitatetik bost minutura. 609 03 85 20

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Ikasleentzat. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. 650 02 79 27 edo 943 79 99 63

**Arrasate.** Hilean 600 euroatik guztiz jantzitako apartamentua ematen da errentan Bizkaia etorbideko 2an. Pertsona bat edo biendako egokia. 636 68 28 26

**Arrasate.** Ikasleentzat edo bikote batentzat egokia. Hiru logela. Unibertsitatetik gertu. 645 76 17 88

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi komun. Igo-gailuarekin. 675 71 50 36

**Oñati.** San Lorenzo 10An, 4. solairuan, etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bi bainugela. Garajea aukeran. 686 76 01 87 edo 943 78 13 57

**104. ERRENTAN HARTU**

**Aretxabaleta.** Bikote arduratsua gara eta Aretxabaletan denboraldi luze errentan hartzeko pisu bila gabiltza. Interesatuok deitu: 669 83 35 61

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. 626 12 55 60 edo 662 26 71 41

**Debagoiena.** Familia batek 3 logelako etxebizitza hartuko luke errentan. 698 33 62 98 edo 632 31 87 56

**105. ETXEA OSATU**

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu alokagai Arrasaten. 630 71 35 83

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko jende bila gabiltza. Hiru logela, sukaldia, egongela, komuna, balkoia, igogailua eta berokuntza zentrala. 260 euro hilean, gastuak barne. Unibertsitate ondoan. 620 52 94 98

**Arrasate.** Hiru pertsona behar dira pisua osatzeko. Lau logela, komuna eta sukaldia-egongela. Herriko plazan bertan eta merke. 17:30etatik aurrera deitu. 658 74 48 24

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakararentzat. 657 55 81 15 edo 648 86 05 49

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Langileak bizi dira. Pisuak lau logela eta bi bainugela ditu eta oso eguzkitsua da. 653 71 44 57

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 240 euro gastuak barne. 670 85 86 68

**Oñati.** Etxebizitza konpartitzeko pertsona bila nabil, erdigunean (Kale Barrixan). 225 euro gehi gastuak (argia eta ura). Etxea guztiz jantzia eta hornitua. 652 71 52 50

**4. LANA**

**401. ESKAINTZAK**

**Antzuola.** Pertsona euskalduna behar da etxeko garbiketa lanak egiteko. 652 73 12 56

**402. ESKAERAK**

**Antzuola edo Bergara.** Neska euskalduna eta irakaslea, goizetan umeak eskolarako prestatu eta eskolara eramateko prest. 677 60 85 96

**Aretxabaleta.** Haur hezkuntza ikasiduen neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Ordu-tegi malgua. 636 50 83 46. Patricia.

**Arrasate edo Bergara.** Bertako neska, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko prest. 637 18 07 23

**Arrasate.** Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Eskarmentuduna. Ordu-tegi malgua. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

